


Salvador Zapiroain

“Ataño”

# Askatasun billa



17302  
GAS-128/

# Askatasun billa

---

SENDOA ARGITALDARIA

Ugaldetxo auzoa

Tels. (943) 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax (943) 49 35 48

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Salbador Zapiroain

**“Ataño”**

---

# Askatasun billa

---

Auspoa Liburutegia  
(1996)

© SENDOA ARGITALDARIA

Fotokonposaketa eta inprimaketa: ITXAROPENA, S.A., Zarautz

ISBN: 84-89080-34-8

Legezko Gordailu: S.S. 32/96

## Semearen salaketa

**J**OAN Joxe, emezortzi urteko mutilla, goldean ari zan, bakarrik, itaurrekorik gabe. Alare, idiak ondo ezi ta erakutsiak zeuzkalako, eta berez motel samarrak nola baidiran, etzeukan lagunaren bearrik. Naita ere, laguntzaillerik etzuan billatuko.

Beren ibillera motelean, baiña seguruan, atzera-aurrera urrats bat galdu gabe irixten ziran ertz batetik besteraiño. Aldizka "Aida, idiak!" esatea aski zuen, ixilik ez egotearren, bere betiko oitura ori zuelako. Baiña aiek beren pausotik etzituen aterako.

Mugara irixtean, "Ooo!" luze batekin gelditu erazi, goldea etzedin neurtutako arraitik pasa; eta goldearen galgari atzera egin eraziko zion, aurrean zekarren lurra ebaki ta golde muturra azalera erten zedin.

Au zikiña bazetorren, ortarako zeukan atxurra-ekin garbituko zuen. Baiña aziendaren berri dakienak ez bein ere esku edo oiñarekin. Idiak, zerbaitekin izututa-edo, mugitu zitezken edozein aldetara, eta goldeak arrapatu. Arraixku txarreko lana izaten da ori. Dijoazela bidean. Trabatzen bada, berdin.

Kontu aundia bear da ortan. Erremienta orrek egindako zauriak geienetan beldurgarriak izaten dira. Nekazari batek baiño geiagok beren biziarekin pagatu dute ori.

Zein aldetara buelta eman nai duen, ezkerrera edo eskubira, kontrako idiari, ezkerrera bazan eskubiari, ziztako bizi bat emango zion; eta onek, besteari indar egiñez, jira emango zion ezkerrekoari. Orregatik, beti berekin ibilliko zituen akuillua eta atxurra.

Zuzentzen ziranean, beste "Ooo!" batekin gelditu eraziko zituen; eta, berak goldeari pixar bat atzera egiñaz, "Esti!", eta goldea sartu nai zuen neurriraiño eramango zuen. Orduan, galgari aurrera eman ta goldearen bere muturra lurpean sartuz, bi idiei ziztako edo akuilluaren igurtzi bana egiñez, "Aida, idiak!", eta abiatuko ziran auek betiko beren mar-txa motel eta seguruan.

Olaxe ariko ziran aspertzeke, asitako lana bukatu arte.

Idiak lotu eta askatzen amak laguntzen zion.

Lantegi aspergarria benetan, atzera ta aurreraka beti berdin. Alare, laiaren ondoan, beste aurrerapen bat zan ori. Berarentzat neke gutxi zeukan orrek. Idiak ondo ezita bazeuzkan beiñepain, aiek egiten zuten lana.

Len beti txistuka edo aopean bertso zaarren batzuk kantatuz ariko zan, berak goldetu aiñean atzetik txori taldea zekarrela, ango xomorro ta ar txuriak irentsiz. Baiña arratsalde artan ez; serio eta pentsakizunez betea, bere baitara bildua zebillen.

Maiatza zan eta giro bikaiña zegoen, eta inguru artako baso, txara ta zelai lorez apainduak; bizia, berriz, gaiñezka dena alai eta zoriontsu; eguzkia mendi atzean ezkutatzen, atsedentzeko illuna laster bazetorrela.



Inguru samar, aritz adar igar baten puntan, eten gabeko birigarro baten abesti zoragarria entzuten zan.

Goldelaria, ordea, serio zebillen. Alaitasun origuzia etzuen aintzakotz artzen. Axalean geratzen zitzaion; eta bere barrua kezka bezalako, berriz, kanpoko atseginik ezin sartu araino.

Etxera etorri ta idiak askatzerakoan, amak igeri zion etzegoela bere semea oso umore goxoan. Etzan, bada, noski gaixo egongo!

Etzuen uste; etzeukan itxura txarrik; ezta lanarengatik ere. Joan Joxe etzan alperra. Ia berak bakarrik zeraman baserriko martxa guzia. Baiña aren kopet illuna ikusita etzion ezertxo ere galdetu.

“Gaur trumoia diagu; ori bai” pentsatu zuen amak. Urteetako ixiltasuna lertzera zijoan. Zuzengabekeri ikaragarria baizan, ura, oraindik gaztea, etxeko martxa guziarekin bakarrik uztea. Iru anai eta aita etorriko ziran lanetik, eta inork etzion ukulluko lanak egiten ere lagunduko. Arek baserriko lanari muzin egiten bazion, arazo ori konpontzen izango ziran kontuak.

Aitak ere noski ikusiko zuen arraixku ori. Baiña egiten zuen arte, ixilik pasa. Lertzen zan arte, beinepein, aurrera.

Emezortzi urte bete berriak zituen eta gazte bikaina zegoen. Jakiña, bere etorkizunean pentsatzen asia. Baserria, ainbeste nekepean amabost urte ezker berak bakarrik landu zuena, beste anairen batek eramaten bazion, norako zegoen bera? Orregatik jakin nai zuen gurasoak zer erabaki artu nai zuten.

Bere kezka bazebilzkien, bada, biotzean. Orduarte ixilik zeraman guzia. Etzion inori aipatu ere gogo txarretik ari zanik. Ain gutxi nabarmendu. Baiña lertu bear zuen. Besteak lasai zebiltzan

bitartean, etxeko astotzat zeukaten bera. Beste anairen batek artu nai bazuen baserria, berak egin zezala lana.

Al bazuen beiñepein iñorekin asarretu gabe, nola bere biotzeko naigabeak agertu ausnartzen ari da. Bere eskubideak eskatu alegia, mukitsu bat besterik etzala anbat esango zioten baiña.

Len esan degunez, aita eta iru anai bazituen. Laurak, baserria gaztearen bizkar utzita, paurrika batean lanean ari ziran. Irabaziak jakiña bakoitzak beretzat jasotzen zituztela. Etxetik mantendu, berriz, amak eta berak egiten zutenetik.

Aitarenean aurka etzijoan, gertatzen zanaren erru guziak berak bazituen ere. Etzeukan egiten zuenik egiteko arrazoirik: ama-semeak lanpean utzi ta bera lasai paurrikara irabazira. Baserria berea zuen ezkerre, ez al zegoen eustera beartua? Bestela saldu.

Baiña iru anaien jokaerarekin ere oso kezketan eta amorruz zebillen. Illunabarrean etorriko ziran, eta etziotela ukuilluko lanak egiten lagundu nai ere. Beren irabazi osoa beretzat jaso ondoren, paurrikatik etorri ta txuxenean tabernara. Alare, berak egiña jatera balijoaz bezela, lotsarik gabe maiera exeriko ziran, baserrian bakarrik geratzen zanari laguntzera beartuak ez baleude bezela.

Etzuen trumoi otsik joko. Ixil-ixilik erakutsiko zien etzebillela kontentuz; beste batzuk lasai zebiltzan bezela, bitartean bera eziñean lertzen ari zala, eta aldaketaren batzuk egin bear ziralda, arek modu artan jarraitzezkeroz. Baserria beretzat edo bestela askatasunera. Ori eskatuko zuen.

Askotan itzak bakarrak indar gutxi zeukaten, eta gaizki ulertu gaiñera. Alperrikako asarreak sortu ere bai. Beste modu batera zabaldu eraziko zizkien begiak. Zuzengabekeri ori etzegoen ulertzen zailla.

Bera oraindik goldean ari zala etorri ziran anaiak. Aita etzan azaldu oraindik. Beste egitekoren batzuk ibiliko zituen bere esku artean.

Ler eginta etorri balira bezela, amari merienda eskatu ta auzoko tabernara joan ziran bi anai, beren otordu lege ura an lasai ta atsedenean jateko. Bestea, berriz, mendi aldera. Apaltzeko garaira arte etzan azalduko.

Aiek irurak etziran egundo lanean izerditu noski. Eskola utzi orduko asi ziran paurrikara, amasei urte bete berrian beiñepein. Geroztik, irabazi guzia berentzat zuten. Amak etzien xentimorik eskatzen. Ori zuzendu bearra zegoen, baserriko martxari eutsi nai bazioten beiñepein.

Golde lana bukatuta etxera joan zanean, ama beti bezela etorri zitzaion idiak askatzen laguntzera. Sumindu zan Joan Joxe; eta, amatzaz errukiturik, ala esan zion:

— Zu al zatoz, ama?

— Zerk arritzen au? Ez al diagu, bada, betiko martxa?

— Eta zuk ez al daukazu etxean lanik?

— Lanik ez dek beiñere neretzat palta.

— Anaiak etorriak ez dira, bada?

— Bai. Lanetik nekatuak etortzen dituk, eta atsedeen pixar bat artu bear oiek ere.

— Bai; ta auzoko tabernara joan dira.

— Bestea, berriz, merienda artu ta mendi aldera. Etzekiat zertara.

— Lanera ez beiñepein. Ori seguru badakigu. Eta zuk eman? Irabazi al dute?

— Egun guzian lanean nekatzen dan seme maite bati amak merienda ukatzezkeroz, abere utsak al gaituk?

- Len ere esan dizut: irabazi al dute?
- Sari polita jasotzen ditek beiñepein.
- Baiña guk egiñetik jan.
- Ez al dek ori aitarengatik esango...

— Aitak ere, dabillen bezela ibiltzeko ez du arrazoirik. Ez du ondo egiten. Baiña ura beste bat da. Alare, zergatik etzuen neri laguntzera etorri bear? Anaiengatik, berriz, zer esanik ez. Oiek bezela, egun guzia lanean igaro det nik ere. Oiek beren sariak osorik jasotzen dituzte. Nerea, berriz, oiek mantentzeko izaten da. Iñork ez dit xentimorik ematen. Oiek lanean izerditzen ez dute ikasi oraindik. Ama-sei urte zituzteneko, lantegi arin batera asi ziran; eta Jainkoak daki, ez badute alperrik ondatu beiñepein, onuzkero zenbat diruren jabe diran. Goizean, oietik paurrikara; arratsaldean, paurrikatik tabernara. Igande ta jaietan ez dakit non ezkututzen diran. Otorduetan bestetan ez ditut ikusten etxean. Zergatik oiek neri ez didate lagundu bear? Edo nik beti oien morroi bizi bear det?

— Bai; agindu iek. Goxoak jarriko dituk.

— Orduan dijoazela kanpora jatera. Bestela, ordaindu dezatela gure lana.

— Ago ixilik. Ago ixilik.

— Elkarrekin bazkaldu degu, eta geroztik ez det nik ezer ere artu. Eta ikusi nauzu ordu bi ta erdie-tan asi naizela lanean. Geroztik ni emen ari naiz. Oiek baiño goizago asi ta beranduago bukatu; eta orain geratzen diran lanak ere nik bakarrik egin bear. Zergatik azkeneko lan pixar auek egitera ez azaldu? Pake-pakean meriendatuko genuen, eta gero alkarrekin ukuilluko lanak egin. Alare, nik baiño obeto aterako lirake.

— Martxa ori zegok, bada, emen jarria ta...

— Ez, seme guziak berdin maite baziñuzteke.

— Jainkoagatik, Joan Joxe! Etzaidak olakorik arpegira bota! Ori aitaren eginkizuna dek, eta ez nerea.

— Barkatu, min eman badizut. Baiña atera itzazu kontuak, ea zerbait olako esateko ez daukadan arrazoirik.

Amaren biotza arrazoi arekin arrunt samindu zan, eta etzion erantzun.

Idiak askatu ta lotu ondoren, uztarriari edeak bueltan-bueltan lotu zizkion. Ondoren, baso bat sagardo edan ta aldegin zuen etxetik Joan Joxek ere, dena zegoen bezela utzita.

Amak, naigabetuta, ala zion berekiko: “Gaur arri eraso diagu”.

Pakearengatik, beiak jeitzen jakin balu, berak egingo zuen lan ori. Baiña etzekien. Ori ez baita emakumeen lana. Alare, beiak marruka asi ziranean, bota zien bazka eta bere lanetara joan zan.

Semeak, berriz, bi, tabernan egongo ziran apal ordurarte, eta bestea etzekien non sartuko zan, baserriko martxan zer ikusirik ez balute bezela.

Aita etortzen zanean izango ziran kontuak. Oitutako orduak pasata, beiak, luzetetsirik, marruka ari ziran, aita sartu zanean; eta, arriturik, emazteari ala galdetu zion:

— Zer dute bei oiek marru ta ixkanbillaka?

— Nik jana eman diet, baiña jeitzi gabeak daude oraindik.

— Joan Joxe non sartu da, bada? Edo gaixorik dago?

— Ez. Arratsalde guzian goldean aritu da. Baiña oso serio dabil. Badabilzki kezka batzuk buruan. Ura oraindik goldean ari dala, iru anaiak etorri dira. Bi, txuxenean merienda artu ta auzoko tabernara. Bestea, mendira. Ezkutatu dira irurak emendik. Idiak askatzera laguntzera joan naizenean, ala

esan dit: “Zu al zatoz, ama? Ez al daukazu etxean lanik?” “Bai; baiña betiko lana ez al diagu, bada, au?” “Eta anaiak ez al dira baserrirako jaiok?” Orduan nik orrela bizi bear det: denen morroi?” Idiak askatu ta emengo lanak bukatu diranean, ukuilluko egin bearrak utzita aldegin du norabait. Nora ez dakit.

— Olako lainñezak laster kenduko dizkiot nik orri.

— Gogorrean asten bazera, ez dezu ondo egingo. Arazo au len baiño ere okerrago geratuko litzake, eta semeak iges egingo liguke. Joan Joxe semea degu, eta ez sari gabeko morroia. Beste konponketa bat zuzenagoa eman bearko. Bestela, len gaizki dagoena okertu besterik ez degu egingo.

Amaren arrazoiak entzun zituanean, aitak ala erantzun zion:

— Bai. Ni ere ortan nago. Gazteena ortara edukitzea etzait ondo iruditzen. Arrazoi ematen dizut. Orduan beiei jan eman diezu?

— Bai, marruka ari ziran ta.

Ixil-ixilik baldea artuta, aita bera joan zan beiak jeiztera. Ala zion berekiko:

— Ez det ondo egin seme zaarrenari, baserriko martxa ikasi gabe, lanera joaten uztea. Arek geratu bear zuen onen lekuan, maiorazkoa dan ezkerok; eta onek arenean. Orain oso konponketa zaila daukagu. Zaarrena laster ezkontzeko asmoan dabil, eta baserrira bere oiñordekotza ez du utzi naiko, emengo oituraz ala tokatzen zaio ta. Baiña gazteak eutsi dio urte auetan, eta baserriak ez du galdurik egin. Izan ere, etxe au gain onetan, erritik alde samar, bide ederra etxeraiño, au baiño bizileku zoragarriagorik non arkitu? Baiña nekazaritzarako neketsu samarra, ordea; eta zaarrenak jarraitu naiko al dio?

## Aparia

**B**URUTAPEN auekin eta kopetillun lanean ari zala, etorri ziran tabernariak, apaltzeko garaitsu ortan. Aita ukuilluko lanak egiten ari zala ikusi zutenean, zaarrenak, arrituta, ala galdetu zion:

- Zu ari al zera ukuilluko lanak egiten?
- Ari bearko, semeak paseatzera joaten badira.
- Eta non da Joan Joxe?
- Zuek bezela paseatzera joana ura ere.
- Norbaiti laguntzera edo?
- Bestela ere etzeukak emen lan paltarik. Bakarrik uzten diagu ta berak bear dik arek laguntza.
- Zer buruzbiderekin dana utzita alde egin du?
- Etzekiat; baiña arri erasoren bat izango diagu.
- Mukitsua aleena! Ez al daki bere lanak egiten?
- Emezortzi urtetik gora ziak ura, eta bere eskubideak eskatzeko asmoan ibiliko dek. Emengo martxari buelta eman bearko zioagu.
- Eta orregatik utzi al ditu bere lanak bukatu gabe?

— Etzekiat ori. Baiña gu bezelaxe aritzen dek ura egun guzian jo ta jo, eta saririk gabe. Zuek andik etortzean lagunduko bazeniotere, gaitz erdi. Zuek zortzi ordurekin aske, eta ura bakarrik, goizago asi ta beranduago bukatuz. Apal ordurarte jarraitu bear lanari. Ortarako etzegok eskubiderik. Ura ere semea diagu; eta, amak esan didanez, golvean ari dala zuek etorri zerate. Idiak askatzen ere ez diozutela lagundu, ura bera bakarrarentzat lanean ari balitz bezela. Orduan, dena utzita etxetik aldegin dik, beiak ere jeitzi gabe utzirik. Bai-baizekien ori ere bakarrik egin bearko zuela, zuek lasai atsedenean zaudeten bitartean. Lana uzte onekin zerbait iritxiko duen itxaropena bazeukak arek.

Apal ordua baiño lentxeago azaldu zan Joan Joxe ere. Baiña beldurrak. Bai-baizekien eraso gaiñean zeukala, anaien aldetik beiñepein. Baiña bai gurasoak arrazoi emango ziotela ere, batez ere amak. Itxaropen orri atxikitzen zitzaion. Arentzat ere, gaiñera, etzan gaizki etorriko. Denak borondatez lanari esku bana luzatzen bazioten, asko arinduko zan amarena ere.

Exeri ziran orduko, anai zaarrenak amorruez eraso zion:

— Oraindik mukiak kentzen ez dek ikasi ta non abil aitari lanak uzteko?

— Nik bakarrik? Eta zuek nori uzten dizkiozute? Nere lana ainbeste dek zuena ere. Irea geiago gaiñera.

— Gu lanetik nekatuak etortzen gaituk.

— Ni ez nauk nekatzen. Aingeruak egiten zidatek lana, San Isidrori bezela. Zuek baiño lenago asten nauk lanean, eta neketsuagoan gaiñera, zentimorik kobratu gabe. Aita bakarra izan balitz, lanak txintxo egingo nizkin nik. Baiña ortarako ura baiño beartuagoak badituk emen. Zuek utzi dezute aita bakarrik.



— Arrazoi gaizto oiek nork erakutsi dizkik?

— Bearrak. Baiña bai besteren bizkar bizi nai izateak ere. Nik ere, beste edozeiñek bezela, nere eskubideak eskatzen dizkit.

— Nor bizi dek emen besteren egiñetik?

— I beiñepein bai.

Erantzun orrekin sumindu zan anai zaarrena; eta izketan gaztea ezin garaitu zuelako, onek arrazoi baizeukan, indarrean ixil erazteko asmoan:

— Nik erakutsiko dit ori: baserri ontan nor bizi dan besteren bizkar.

— Bai; i beiñepein bai. Ori ukatuko duenik ez dek sukalde ontan. Erantzuteko arrazoirik ez dekanean, indarrez asi nai al uke?

— Eta ni bakarrik al nau lanean ari naizena?

— Nik denengatik esan dit, baiña ik bakarrik erantzun didak.

Beste bi anaiak ere ulertu zuten aren enbidoa, baiña zaarrenak eraso zion, eta "Or konpon!" zioten biak. Baiña ama sartu zan bitarteko.

— Patxi —zaarrenaren izena ala zan—, arazo au ez dek mutur joka erabiltzekoa. Ez dit esango Joan Joxek ondo egin duanik. Baiña bere arrazoiak badizkik, eta sakonak gaiñera. Bere etorkizuna zebilkik jokoan; eta, ez baago zearo itxutua, ulert errezak dituk iretzat ere. Beste konponketa serioa-goia bear dik onek, jakiña, norbaiten bizkarrari min emango badio ere. Amasei urtetarako lanean asi intzan ezkeroztik, irabazi guzia iretzat gorde dek. Neri beiñepein ez didak zentimorik eman. Ez dit eskatu ere, ez. Onek emezortzi urte badizkik, eta baserri neketsu ontako martxa berak bakarrik zeramak; eta, berak aitortu didanez, patrika utsarekin. Onek egiña jaten errezegi ari zerate. Etzegok ukatzerik, denok ikusten diagu ta, ez diozutela ezertan lagun-

tzen. I baserrian geratzen baaiz ezkontzen aizenean, norako zegok emen ainbeste lan egin duena?

Bazirudien aitak ere amaren arrazoiak ontzat artzen zituela, itxutua ez bazegoen beiñepein. Argi asko itzezin zuen amak.

Anai zaarrenak bere bizimodu erreza utzi bearra zeukan, eta amorruez bederen burua makurtu zuen. Antz eman bai zion, etxeko oiñordekotza ez galtzekeroz —maiorazkoa zanez berari tokatzen zitzaion—, beste martxa bat artu bearke zuela. Bestela, dena gazteenaren eskuetara joango zala. Amaren arrazoiak etzuten besterik esan nai. Aitak ere ontzat artzen zituela noski.

Joan Joxe anaia zuen, eta ez morroia. Purrustadaka asten bazan, berak galduko zuen dena, oraindik etxean nor geratu erabakitzeke aitaren eskue-tan zegoen ta. Baiña oraindik etzuen ondo irentsi anaiak aurrez aurre bota zion iseka gaizto ura: arek egiñetik bizi zala.

— Ez al ekin —galdetu zion, sumindua— ukui-luko lanak egin bear zirala?

Sukaldeko giroaren berri jakin nai zuen, batez ere aitarena, zer iritzitakoa zan, berdin amak berea eman zuen ta.

— Ori ez uan esan bearrik, bazekiagu eta. Arri-tzekoena, ori jakinki eta lanera ez etortzea. Iru edo lauk errezago egingo genizkin. Iru urte auetan amak eta nik zeramakiagu baserri ontako lanaren gora-beera guzia. Seiretarako denak etxean eta ni bakarrik utzi bear. Morroirik arloteena baiño oke-rrago ari nauk. Ari zerbait ematen zaiok. Neri ere bai, baiña arrazoi gaiztoren batzuk.

— I ez al aiz, bada, etxeko semea?

— Baiña iretzako lanean.

— Mai inguru ontan beste bost ere bizi gaituk.

— Baiña i geratuko aiz denaren nagusi. Nik egingako aurrerapen guziak ik jasoko dituk. Nik, berriz, larru gorriarik atera bearko dit emendik. Ondo ordaintzen badidazute, beste urte pare batean jardungo nitek baserri ontan. Bestela nere etorkizunetan pentsatu bearra zeukat. I etxera ezkonduko aiz. Ni, patrika utsarekin, norako geratzen nauk? Edo zer nai uke: ire semeak azitzeko baserrian geratzea?

— I orduan etxean geratzeko asmoan ari intzan lanean?

— Arritzekoa al dek ori? Egi-egia diok. Lana ere nik egiten dit. Ik zer eman diok baserri oni? Ni baiño lenago jaio aizela; besterik ez.

— Ez, Joan Joxe. Alperrikako ametsak dituk oiek. Ni nauk zaarrena, eta etzeukat etxe au utzita kanpora joateko gogorik, olako bizileku zoragarririk etzegok Errenderi guzian ta.

— Orduan edorrek lana egin, bai, ta or konpon. Ni baniak.

— Oraindik mukiak zintzutzen ez dek ikasi, ta aguro artu dek zaputza.

— Ik lenago artu uan, dena erabat utzita kanpora lanera asiz.

Aitari etzioten zaarrenaren erantzun arroak onik egiten; eta, benetan serio, ala bota zion arpegira:

— Bazirudik, motell, baserri au irea dala, eta nai dekana egingo dekala onekin. Baiña oraindik pelota teillatuan zegok gero. Ez badiok emengo gora-beerari geiago begirutzen, gurasuok aukeratuko diagu etxean nor geratu. I bapo biziko intzake, etxe bizitza duan eta Joan Joxe soldata gabeko morroitzat artuta. Ori ere gure semea dek, eta ik baiño lan geiago baserrian egin duena. Beste edozeiñek aiñako esku-bidea zeukak. Etzegok ukatzerik i zaarrena aizela; maiorazkoa beraz. Baiña emen jarraitu nai badek, egin bearrak ere ugaritu egingo zaizkik. Ez aiz bes-

teren bizkar baserri ontan biziko, bizileku bezela artuz, baserriko lana utzita. Gazteak artuko likek bere oiñordekotza. I aiz maiorazkoa, baiña irabazten badek ori. Nik noski laster paurrikako lana utziko dit, eta baserrian izango nauzute. Baiña zuen laguntza bear dit. Lantegia uzteko ez dit agintzen. Ona daukak eta irabazi bikaiña. Ni ere ala ibili nauk. Aske geratzen zeraten orduan lagundu bearko didazute. Batere sesio gabe epaitzen badegu, Joan Joxek ik baiño arrazoi geiago zeukak baserrian geratzeko. Asmo ortan baabil, emengo martxa ere ik artu bearko dek. Zaarrena aizela ta ez oraindik arrokeriz ari. Geiena balio duena geratuko dek. Bestela, baserria nori emango zaion len ere esan dit. Patxi ezkondu arte geratuko al intzake etxean, Joan Joxe? Zerbait sari emango diagu, morroirik eskaxenari ematen zaiok eta.

— Gurasoengatik, baita saririk gabe ere. Baiña obeto bizi diranengatik, ez. Ori ezkontzean, nik anka egingo det emendik.

— Bejondeikela, Joan Joxe. Ire borondate onak ez dik gutxi balio. Baiña ago lasai. Sarituko augu.

Artan geratu ziran; baiña zaarrena sumindua, mukitsu arek etxeko martxari obeto begiratzeko esan ziolako. Alare, denen aurrean ez bazion arrazoi eman nai ere, bere baitan aitortzen zuen Joan Joxe morroi bat baiño okerrago zeukatela.

Semeak erretiratu ziranean, amak ala esan zion aitari:

— Gure inpernua preparatzen ari zera noski. Gazteak, baserrirako, beste irurak baiño geiago balio du. Zaarrena, gaiñera, bereala sumintzen da.

— Zuk esan gabe ere badakit ori. Baiña bestela zaarrenarekin betiko asarretuko giñake, eta ez ligu-ke egundo barkatuko.

## Lizar xaarra

**B**AZAN lizar xaar bat baserria baiño ondotoz gorago. Gerri bikaiña zeukan. Abarrez zabal. Lizarra izateko aundia. Bere garaietan orritsua. Azpian belar guria. Itzal gozoa eskeiñiko zion atsedentzera ara zijoanari.

Joan Joxeri aitak esan zionez, berak alakoa ezagutu zuen, eta aitonak ere bai. Iru edo lau gizaldiz lenagokoak ere bai; baiña, jakiña, txikiagoa.

Ainbeste urtez, bada, baserri artako gora-beera guziak ikusi zituen arek: txikitan, aldapa aietan jolasean; gaztetan, amets min; bere azpian atsedentzen ere bai; eta, azkenik, kaska zuri gerri makurka anka ankari eziñik, mundura sortzen diran guzien azkena; eta, gero, lau gizonen gainean kajatxo batean eramaten, baserria beste gazteagoko bati utzita. Izketan ez jakinki. Bestela, zer etzitan kontatuko arek?

Aterkin baten itxura zeukan, ontu aundi bat balitz bezela: goitik borobil, eta beera ta zabalago. Egundo mudarratu ta zuzendu gabea, berez zan alakoa. Etxeko xaar eta gazteak ziotenez, joandako

lareun urte aietako oroigarria zalako, ura ebakitze-  
ra etzala iñor ausartuko.

Azkenean, suak eman zion sekulako jipoia. Azpi-  
tik zartaka batzuk jaio zitzaizkion, eta kito. Baiña  
oraindik ere bizirik zegoen ura.

Antziñatik sortua zan, bada, lizar oroigarri ura.  
Noiz sortu zan illunpean dago, amaika egazti neka-  
tuen atsedenleku izana.

Prantzi aldetik zetozen mika ta eskiñozoak,  
beren pasaran, ori zeukaten bidean geltokia. Auek  
egalari kaskarrak dira, ego motxak dituztelako, eta  
berak astun samarrak. Txabuan-txabuan dijoan  
egazti guzia bezela, benetan motela ta maiz itxogin  
bear duena.

Emen izango zan noski auzoko gizona, Joxe  
Mari, eiztari amorratua, nere aita bezela; eta bein,  
eskiñozotara joanta, galanki sutu ta gutxi bota.  
Nere aita zana, berriz, denei adarra jotzeko egiña:

— Onuzkero, kaxuelkada eder bat egiteko ain-  
beste botako itun.

— Bai zera. Txabuan-txabuan etortzen dituk,  
eta tiruak gaiñetik eragiten.

Andik aurrera, ura eizera zijoala ikusten zuen  
guzietan, ala kantatuko zion, eiztariak entzuteko  
moduan:

Txabuban-txabuban,  
sartuko al zaiok abuban;  
debitik-debitik,  
sartuko al zaiok begitik.

Olakoxea zan nere aita zana.

Eskiñozoak eta mikak urtean bitan, neguari edo  
otzari iges egiñaz, egiten dute beren txangoa, neke-  
tsu ta luzea, eta bidean atsedenleku asko bear.

Irun aldetik zetozenak, aldapa ura lizarreraiño  
ezin iritxirik nekatzen ziranean, an zeukaten beren

egokierara lizarra kaskoan zai, aren gaiñean kokatu ta atsedentzeko. Onen adarretan egingo zuten, bada, beren itxogin aldia. *Krik* eta *krak* edo *kroak*, egazti zalapartatsuak dira; eta an ariko ziran, amar bat minutuko atsedena artzen zutenean. Zalapartaka egatuko ziran urrengo mendira arte. Sakon ura aidean igaroz izango zuten, olako atsedena eskeintzen zien beste zugaitz oparoren bat, puntu onean.

Gaur ez dute bearrik. Oien pasara arrunt galdu da. Ez da bat bakarrik ere azaltzen. Gaurko gazteak ez dituzte etortzen ikusiko. Izan diranik ere ez dakite, askok beiñepein.

Ez dira orain, lokarri batekin lotuak bezela, sail bat bestearen ondoren, aurrekoak atzekoak tiraka, igarotzen. Gizonaren ajolabekeriak amaika munduko edertasun irentsi ditu, geiago biurtuko etzaizkigunak.

Oraindik ere tarteka oien karrasi ta zalapartak entzuten ditugu; baiña gero ta urriago. Polliki-polliki bakantzen ari dira. Len bezelako pasara ugaririk ez beiñepein. Nere iritzian, oienak egin du.

Oso puntu atsegiñean dago lizarra. Oraindik bizi baida. Baiña oso baldartua. Gaur ez dio iñori itzalik emango.

Itxasoa ere alde xamar ikusten da andik. Udarako egun kixkalgarrietan, bazkalondoko lo xuxta xaarrak or egingo zuten, beti aize ariña dabillen lekua baita.

Illunabarretan, berriz, lan neketsu baten ondoren, bere etorkizunean ametsetan aritzeko, gazteak emen artuko zuen atsedena.

Eguzkiaren sarreran, aurrean zeukan itxas zabala, milla kolorez jantzia, zoragarrizko iduriz jartzen danean, itxasoak eta zeruak bat egiten duten mugaraiño irixten da begien bixta.

Eguzkia, berriz, urruntzen eta aitutzen, polliki-polliki bazirudien urean murgiltzen ari zala, eta

gazta baten antzera zatika jaten ari ziralda. Lenengo zati bat, gero erdia, azkenean dena gordetzen danean, itxas aldetik igotzen da alako ipar aize guri, eze ta presku bat. Eguzki kixkalgarraren ondoren, aren musua bai dala atsegiña gorputzarentzat, eta animarentzat ere zer esanik ez.

Egunez eta arratsez aldaketarik ez duten amaika erri kixkalgarrietan artuko luteke pozik ipar aize ori.

Zugaitz ostoak eta arto saillak dantzatu eraziz, arrats giro atsegin bat zer dan ez daki baserrian bizi ez danak.

Zeruko erregea ezkututzen danean, goian izar banakak azalduko dira, gaiñeko illuntasuna, ipurtargiak balira bezela, argi dizdiraz estalirik. Illargia mendi atzetik agertzen danean, aize intziri ta ezeta-sunaren artean, badirudi intza ixuritzen ari dala. Une ori baiño giro atsegin ta zoragarriagorik ez dago neretzat.

Gazteak nola ez dute ametsik egingo, oraindik beren aurrean ikusteko daukatenaren pozez, irudimenaren iruzurrez? Xaarrak ez, ordea. Igaro baidute garai ori, joanak oroitu bear.

Joan Joxek bazekien, bada, aitak esanta, inguru artan guzian ordu artako leku amesgarriagorik etzegoela.

— Gaztetan amaika aldiz egona nauk apal aurrean lizar onen azpian, illunabarrez. Aiek amets goxoak etorkizunari begira! Baiña bat bakarrik ez dit bete, etxe txuloan geratu niñun ta. Gazteak aske bizi nai likek; gizonak ikusi lezaken guzia ikusi; atsegin danak artu; amets pean etzegok ez zeruan eta ez lurrean ezkuturik. Irudimenaren lanak. Ori bai dala etxeko txoroa. Oraindik ere, etxean naizenean, etortzen nauk orren azpira, baiña itzalera, bazkalondoko loxuxta egitera. Etzaidak, ordea, orduko ametsik jaiotzen. Bete



gabeko joandakoak ausnartuz egoten nauk, aurre-  
ra begiratzeko beldurrak, triste. Alako abiaduran al  
ziak, izan ere, gizonaren bizia. Esan litekek atzera-  
ka bizi nai detala. Joan diran irureun eta lareun  
urte auetan, lizar orrek ikusi dizkik baserri ontatik  
igaro diran gizon ta etxeckoandre guziak: gaztetako  
aien biotz taupadak, norbaitekin maiteminduak,  
batzuk kezka beteak, baiña bai amets zoragarriak  
ere; berak ia nabaitu gabe, zaartzen, kaska zuri-  
tzen —orduan ametsak gaztetan bezela ez dituk  
jaiotzen—, atsedeen ezin arturik; gero, berriz, kaja  
batean artu ta beraxeagotik gainbera daramatela,  
geiago ez etortzeko... Bat joan orduko, bestea. Ori  
dek, eta izango dek, gure munduko martxa; eta  
orrela borondatez artzen duenak asmatuko dik.  
Lizar ori, berriz, urte luzeetan, ortik daramazkiten  
nagusiak ikusiz, beti txutik zegok. Nor gaituk  
orduan gu?

Oneraiño aitak.

Egun guziko nekeak bukatzean, bada, ara joan-  
go zan Joan Joxe ere. Lenengo exeri ta, orrela  
aspertzen zanean, etzango zan ortzaz gora. Txapela  
burupean, eskuak aren gainean, burua auetan  
babestua, ametsetan ariko zan illuntzen zuen arte,  
goiko illargi ta izarrei begira.

Baserria maite zuen. Baiña ura besterentzat  
geratzen zan ezkerro, etzan oraindik saiets ezur  
baten mende lotua biziko, etxe txuloren batean sar-  
tuta, gero ori beteko ez bazuen ere. Orrek, gizonari  
Jainkoak emandako doairik onenetako bat kentzen  
zion: askatasuna. Berak, lenengo beiñepein,  
mundu au ikusi nai zuen, aldarrai ibilita.

Europa, Amerika, Afrika, Asia eta gaiñerakoak  
nolakoak ziran ikusi nai zituen. Jendea nola bizi  
zan. Berdin ango aurrerapenak. Itxas zabal ori ere  
igaro.

Goian dizdizka ari diran izar oiek ikustera ere pozik joango litzake. Baiña, bizi zan arte, etzeukan araiñoکو txangoa egiterik.

Oldozpen auek buruan zebilzkiela, kargaketan zebiltzan itxas ontzi oietakoak igarotzen ziran iñoizka bere amets lekutik bixtan, motots baten antzeko ke zerrendak tximinitik jario zitzaizkiela. Etzuen ikusten —illun baizegoen ordurako— aietako baten txistu triste ta luzea nabaitu zuen, eta zorabiotu zitzaion biotza.

— Oietako batean joango nauk, nere ametsak betetzeko, baiña nere lanaren truke. Oiek bai mundua ta itxasoa ikusten dituztela. Ez, nere gurasoak bezela, jaio orduko etxeari lotuak, egunero lantoki batera, mundu au ezer ikusi gabe. Tristeia dek gizonaren orrelako bizitza. Beti neketan, eziñean, aurrak ezin azirik. Oiek azitzerako, berak baldartuak. Askotan esker txarreko semeak, eta gurasoak Erruki Etxera. Oiek ez dakite Jainkoak eman digun askatasun au bizitzen. Batetik bestera egan dabil-tzan oiek gu baiño zori obekoak dituk askoz, guk baiño mundu geiago ikusten ditek eta.

“Baiña denak ik bezela egingo balute, i ere ez intzan izango” —bururatu zitzaion bat-batean—. Amaika apaiz, praille ta monja ere joaten dituk. Eta denak ori egingo balute?

Galdera orri onela eman zion erantzuna:

— Nik, iñori kalterik egin gabe, nere bizia bizitzeko eskubiderik ez ote daukat? Zalantzarik gabe, eta ori egingo det gaiñera.

Ezagutzen zuen, itxas ontzi oietako batean ibiltzen zan kapitana. Gizon jatorra iruditzen zitzaion, sekula berarekin artu-emanik ez bazuen eduki ere. Gaztetan bere aitarekin eskolan ibilia. Gero benetako lagun maitea, berak zionez. Baiña etzuen iñoren bitartekotzarik nai. Berak itzegingo zion.

Eguberri jaietan urtero bere famelian egun batzuk zoriontsu igarotzera etortzen omen zala. Ori esan zioten aren oituren berri zekitenak. Baiña oraindik jai oiek urruti zeuden. Bitartean, ordura arte bezela, etxean bere gurasoei lagunduko zien.

Orixe zan mundu au ikusteko egokierarik onena. An mantenduko zuten. Patrikarako ere zerbait emango zioten. Etzan millonarioa, baiña bere bi esku aiek irabaziko zioten bear zuena.

Gaztea zan oraindik, eta ametsez betea. Etzuen uste artutako erabaki orrek ezeren txarrik zeukanik.

## Esna ametsetan

**I**LLUNDU zuenean, eta arrats giroa preskatu, etxera joan zan. Oraindik beiñepein ama txutik arkitu zuen. Beste guziak lotara joanagatik, arek billatzen bazekien sukalde artan zer egiña. Berak zabaldu zion atea. Arrituta bezela:

- Gabon, ama —agurtu zuen.
- Baita iri ere. Alai ator —erantzun zion amak.
- Zergatik ez, triste egoteko arrazoirik ez det eta?
- Ere eskubideak iritxi ditukenean...
- Arrazoi ez al det, bada, nik ortan?
- Orixe dek iñork ukatu ta ukatuko ez dikena.
- Orain noranaiko aske nago.
- Eta nora joateko asmoak dituk?
- Aurreak erakutsiko dit nola dantzatu atzea.
- Etzekiat, bada. Jakin al nezake garai ontan zer abillen oraindik oieratu gabe, aspaldian ara joana intzala uste nin eta?
- Arritzekoa al da? Oraindik ez da berandu.
- Ez, motell. Ez dit gaizki artzen detalako esan. Ik ori egitea arritu egin nauk.

— Goiko lizarraren azpian egon naiz, illunabarrereko preskura artzen.

— Eta bakarrik?

— Garai ontan beste norekin egon bear nuen?

— Ez ote dabilkik andregai goxoren bat ondoan?

Amak beren seme-alaben joerarekin zalantzaz beteak bizitzen dira, eta askotan dituzte olako galderak, ala nai baluteke bezela. Par egin zuen semeak.

— Oraindik beiñepein ez nijoa ortik. Beti etxe txuloan bizitzeko? Gero baliteke nere gaurko iritiz aldatzea. Baiña ez det uste. Nik ez det olako loturarik nai. Jainkoak emandako askatasunari eutsi nai diot; mundurik mundu ibili, gauza naizen arte. Gero gerokoak.

— Orduan ez dek kabi goxo bat sortzeko asmorik?

— Zertarako, aietaz beartzean iges egiten dizute ta?

— Betiko ire burua galtzeko ez dek bide txarra aukeratu.

— Neska batek zuzenduko ote ditu, bada, nere pausoak?

— Ez gutxi. Prueba egiñak gaudek.

— Nik ez det, bada, olakorik pentsatzen.

— Oraindik ez dek iñor ezagutu ta. Baiña ikusiko dek, aldamenean goxo-goxo irriparez asten zaizkikenean.

— Nere asmoak beiñepein ez dira olakoak.

— Nik ere amets goxoak egiten nizkin gazte nintzanean: dirua besterik etzuen batekin ezkondu eta, jakiña, arekin batera berebillan, neskamez inguratua, erregin bat bezela beti eztaietan bizi; mundu au ikusi... Txori asko buruan. Baiña bein ogei urtez gora pasa nintzanean, txoriak egatu itun. Beste modura asi niñun pentsatzen: bakarrik geratuko

nintzan beldurra. Eta ire aitak, arpegia gorri egiña, arekin nai al nuen eskatu zidanean, ez dakik nolako poza eta atsegiña artu zuen nere biotzak. Eta, jango bazuen, gau ta egun lanean aritzen zan oietakoa. Ni ere bai. Betiko joan itun aberats baten ametsak. Ordurako ondo ezagutzen nin, eta burua txoratzen zidaten ametsak egoaizeak eramane zizkin, geiago etorriko etziran lekura. Zoriontsu, baietz, baietz erantzun nioken; bion arte kabi gozo bat sortuko genduela. Ixtillu ta zalaparta geiegi gabe ezkondu giñun, eta non bizi geran oraindik beartsuak, baiña ondo elkartuak. Ez diagu mundu askorik ikusi. Aukeran ez bagera bizi izan ere, zoriontsuak bai ordea. Pakean bizitzeko ori dek bearrezkoena.

— Nik ez, ama. Baserri au galdu detan ezkerro, mundurik mundu ibiltzeko moduak egingo ditut. Elkarrekin etxe batean bizitze ori ez da neretzat egiña.

— Zuek gure bidean sartzen ikustea dek neretzat ametsik goxoena. Baiña egin zak amets ori. Ona dek eta ez beteko dekanik uste. Ik bide batetik joan nai badek, Jainkoak bestetik eramango au.

— Baliteke; baiña nik badakit nola ta nondik ikusi mundua. Zaartu arte, aske. Orduan, denak bezela, kito.

— Bai. Baiña, ibilian-ibilian, azkenean, neri bezela, kabi beroa sortzeko gogoa etorriko zaik. Jainkoak bata bestearentzat egin gaitzik, nai ta nai ez. Otza izan bear dik mutil zaar baten bizitza. Nai al dek apustu txiki bat egin? Ogei ta amar urteetarako ezkondu baietz! I abillen lekuan arrapatuko aute.

— Jokatuko dizut lepoa ezetz.

— Jokatua zegok. Nik galtzen badet, soiñeko eder bat egingo ditek, nik ordainduta. Bestela, berriz, ik neri. Konforme al ago?

— Bai, ama. Ori irabazia daukat, eta asi ziñezke ortarako dirua aurreratzen. Nik ez det ezkontzerik pentsatzen.

— Ondo zegok, baiña azkenean arrapatuko aute. Soiñeko eder orren zai geratzen nauk. Baserria galdu dekela ere oraindik etzegok seguru. Aitak burutapen ikaragarriak zebilzkik. Zer nolako erraiña sartzen dan ikusi bear.

— Nik uste nuen ni geratuko nintzala. Orregatik lanean kontentu ari nintzan. Baiña zaarrena ezkontzeko etxea konpontzen asi ziranean, etsi nuen, eta ni ezin ninteke anaiarentzat lanean ari.

— Ez. Ortan arrazoi dek. Aitak bereala erabaki zin aldaketa gogorrak egin bear zirala etxeko mar-txan. Erraiñaren gora-beera dek guzia. Oraindik zer ikusi aundia zegok. Etzakela etsi.

— Nik ez diot anaiari txarrik opa, eta aingeru bat ekarri dezala. Berandua da ta oiera joan bear-ko.

— Bai. Joan adi, baiña ez aztu soiñeko on bat jokatua daukagula.

Semea, baietz esan ta agurtuz, oiera joan zan, ama sukaldean utzita.

## Amaren kezkak

**J**OAN Joxek bere kezkak agertu zituenean, lasaitu zan. Denak arrazoi eman zioten gaiñera. Anaia ezkondu arte aitari laguntzeko kupirik etzeukan. Orduan, ordea, dena utzita aldegingo zuen.

Gurasoak eta anaiak ere antz eman zioten Joan Joxe lasaitu zala, eta beti bezela gogotsu ari zala lanean.

Paurrikatik etortzean geratzen ziran lanak egin arte, denak laguntzen zioten. Berak ere bazeukan orrela atsedean ordua. Etxeko martxa ondo zijoan, eta paketsuago.

Baiña aita-amak izaten zituzten eztabaida gogorak, semeak oeratzean. Ama Joan Joxeren aldeko sutsua zan, eta etzan arritzekoa. Ura ondo ezagutzen baizuen, biak bakarrik etxean bizitzen ziran-ta elkarrekin. Gaiñera, arrazoi sakonak zeuzkan ortarako.

Askatasun osoan, osasunak eta indarrak laguntzen zioten arte, mundurik mundu ibiltzeko asmoa zeukala semeak esan zionean amari, barren guziak xamurtu zitzaizkion, eta ala zion:



— Zer egin bear du emeretzi urteko, baserritik atera gabeko mutil onek, bakarrik mundu galdu ortako zurrinbullora sartzen bada? Bere burua galdu; egundaiñoko aterako ez dan zulora sartu.

Kezka gaiztoak ematen zizkion amari Joan Joxeren asmo biurri orrek, eta ala esan zion aitari:

— Seme gazteenari joaten utzi egin bear al diogu?

— Zaarrenak gelditu nai badu, zer egingo degu, maiorazkoa bera da ta?

— Ez nator zurekin ortan bat. Oiturak oitura izango dira, baiña ori ez dago ondo. Beste semeak dijoazela nai duten lekura. Berdin diru ta lan tokia-  
ren paltarik ez dute. Au, berriz, denaren bearrean arkituko da. Amasei urte ezkerro, irabazitakoak berekin dituzte aiek. Oni ez dio iñork zentimorik ere eman. Eta orain besteari utzi baserria.

— Zaarrena bera da ta...

— Bai: baiña ez baserri zalea.

— Ortan arrazoi daukazu. Naiko probak eman ditu.

— Orrek ez du baserria nai. Ori bizilekuaren billa dabil.

— Ori ere ez dizut ukatuko. Ain puntu onean dago etxe au. Dirua aukeran dabilkite. Baserri lanean oitu gabeak, berriz. Oiei nork lana egin eraziko die?

— Nik burutik ezin kendu detan kezkarik gaiztoenetako bat da ori.

— Etxeko martxa jartzen ez degu asmatu. Orain konponketa gaiztoa dauka onek. Gaztea litzake baserriaren etorkizunerako onena.

— Ortan nago, bada, ni ere. Geronekoan berandu samar etorri zan menditik, illundu ta gero. Nik bakarrik arkitu niñun sukaldean. “Zer: andregairen bat al dek?” galdetu nion, zerbait esan bear ta. “Ez

det oraindik olakorik pentsatzen. Baserria galdu detan ezkeru, mundu au zerbait ikusi nai nuke" erantzun zidan. Dirudienez, baserria galtzeak nairgabe ematen dio; eta, eskerrak orri, gaur arte ondo landua dago. Aurrera ere zergatik ez eman berari?

— Zer besterik nai nuke nik? Onekin askoz obeto konponduko giñake, bestearekin baiño. Zaarrena aurrean bialtzen badegu, ordea, betiko asarretuko zaigu. Ori ere ez litzake, bada, atsegiña izango.

— Ni beldur naiz ez ote geran gure zaartzarorako inpernua pizten ari. Arroa ta jauntxoa da zaarrena; eta, jakiña, ondo irabazten duena. Orrek ez dio baserriaren nekeari elduko. Segan ta goldean baiño ariñagoko lanetan oitua dago. Gu berex utzita, emaztearekin bapo biziko da.

— Alare, ez du, bada, utzi nai.

— Utzi zergatik? Karrikatik bertan, mendixka onen gaiñean, non bizileku atsegiñagorik? Etxeraiño bide ederra. Emen, berriz, errenta ordaindu bearrrik ez. Olako maukarik!... Baiña baserria nora joango da?

— Ez naiz, bada, ni ausartzen. Gurasoak lanean ikusten baditu, bera ere poztuko da. Dakarren erraiñak ere ez du gutxi esan nai.

— Aldamenean dabilkien ori ez al da señorita samarra?

— Ortatik ere badu, bai, berea. Baiña ezkongaietan neskatxarrik geienak olakoak dira.

— Ez dakit, bada, etxe berean ez ote geran bi fameli geratuko: zaarrak batera eta gazteak bestera.

— Arraixku ori badago. Oraindik ezer ez dakigu. Utzi zaiogun denborari.

— Orduan gu biok Erruki Etxera.

— Lasaitu zaite. Orrenbesterik ez det uste. Aurreak erakutsiko digu nola dantzatu atzea. Bizi naizen

arte ni izango bainaiz baserri onen jabe. Orain bezela pentsatu izan bagendu, etzan zaarrena lanera asiko.

— Beste zerbait ere badet benetan kezkatzen nauena, eta emen zuri esatekoa. Kristauak gera noski?

— Ez gera jator-jatorretakoak izango, baiña ortakotzat dauzkagu gure buruak.

— Emeretzi urte bete berriko mutil gaztea, orain arte baserrian bizia, eskarmentu geiago gabe, zillegi al zaigu bere erara bakarrik mundu usteldu ortara joaten uztea? Ez al da orren erantzunkizuna Jainkoaren aurrerako gure bizkar geratuko? Guraso kristau batzuentzat ez al da beldurgarria ori?

— Berak ala nai badu, zer egingo diogu? Adiña badu eta indarrean baitua ezin gentzake eduki.

— Bai. Arrazoi ematen dizut. Indarrean ezin gentzake eduki. Iges egingo liguke. Nere kontzientzia kezketan dago. Ez baidu etxetik lanera ibili nai. Zaarrenak ordaiñetan arpegira zerbait botako dion beldurrak, askatasun osoan ikusi nai du mundu au, lotura guztiak autsita, zaartzaroak botatzen duen arte. Ezkontza bizitzarik ere ez du maite, berak esan zidanez. Ikaragarritzko arraixkua mutil gazte eder au munduko zurrunbulloak ustelduta geratzeko. Bere kideko neska-mutillak bilduko zaizkio, eta nork babesturik ez.

— Kezka oiek ez dira zureak bakarrak, ez. Ni ere ala bizi naiz; eta, umil-umil Jainkoaren aurrean burua makurtuz, aitortu bearra daukat: “Nere erruz, nere erru txit aundiz”, erriko bikarioak erakutsi zigun bezela. Baiña okerra egiña dago.

— Eta ez al dago zuzentzerik?

— Asarrerik gabe ez. Euskal Erriko oiturak ankaz gora jarrita gaiñera. Ortaraiño ez nuke iritxi nai.

Biak serio-serio lotara joan ziran. Etzitzaien noski amets gozorik jaioko.

Askotan berritzen zuen elkarrizketa edo eztabaida au amak; baiña aita beti berean. Bai buru gogorrekoa zala bere senarra zion berekiko. Baiña arek ere bereari eusteko bazituen bere arrazoiak.

Etxe, barrun ta kanpo, berritu zuten, dotoretu. Mendi gaiñean zegoen aberats batzuen txaleta zirudien. Baiña zaarrenak etzuen zentimorik ere jarri. Berak merezi etzuen etxera etorriko zan, bada; eta ainbeste lan egin zuena kanpora.

Seme au ezkondu baiño lentxeago, aitak utzi zuen lantegia, garaia baiño len, lan gutxi zeukatela eta lantegitik geratzeagatik diru mordoska bat jasota. Oraindik sasoikoa, etzan Joan Joxerentzat nolainako atsedena.

Mundua ikusi nai zuela zion, baiña etxean pozik geratuko litzake gurasoekin batera. Alare, zaarrena-ri utzi bearko zion lekua.

Egundoko ospe, ots ta zalapartarekin, aundikiro ezkondu ziran, beren dantzari, txistu, txalaparta, su ziri ta guzi. Errege baten eztaietan aiñako zaratak atera zituzten. Dirua ausarki baizeukaten bi aldeak noski. Alako arrioa ekarri zuen neskak. Baiña alpe-rrikako gastua, langille soil batentzat alegia.

Amabostaldi bat igaro zuten bazterrik bazter, eztaï ondore bezela. Zurrunbullo artan asper egiñak, noizbait bildu ziran etxera.

Arrera gozo ta ona egin zieten baserrikoak. Baiña amak begi zorrotzak omen zeuzkala, ta berekiko ala omen zion: "Emakume onek ez dik kalerako ere balio, eta au baserrirako ekarri? Gurasuok leku onean geratuko gaituk. Lenago ere egin dit nik nerea. Baiña aitaren burugogorkeriak biok pagatu bearko dizkiagu".

Goitik beeraiño neurtu zuen. Len ere bazekien nolakoa zan, baiña etzala emakume motxa. Ainbes-tekoa bai ote zan ura? Oiñetara begiratu zionean,

an zegoen iruzurra: amar bat zentimetroko takoiak omen zeuzkala. “Jakiña, ni ere luzatuko niñuke orrela. Etxeko lanetan ibiltzeko txokoratu bearko dizkik. Eskuko azkazalak, ezpaiñak eta betazalpeak ere gorri-gorri egiñak. Ukuillurako bai aproposa!”

Bazidurien amak inbiri pixarren bat bai ote zion. Ordurarte bera zan etxekoandre bakarra, ta orain kontra egingo ziola. Emakume berria sartu ta elkarrekin ondo konpontzeko alderdi kaxkarra.

Bere erraiña oso gaizki epaitu zuen: “Egunaren erdia bere burua dotoretzeko bearko dik onek. Orain bat geiago mantendu ta enbaruzarako; ta lanerako ni bakarra. Oraintxe asiko dek gure inpernua. Azkazalak pintatuak dauzkala, nork agindu bear zioz erropak edo ontziak garbitzeko? Bestela, zuzenean ziaz au dotoretzera”.

Etxekoandre xaarra joandako oitura xaarrei atxikia bizi zan. Etxean alabarik ez, berriz. Etzekien gizaldi berriak moda berriak ekartzen dituenik, eta etzuen asmatu. Bere takoi luze aiek eta eztaietako apaingarriak bereala bota zituen, eta gorputz ta anima lanari lotu zitzaion. Poztu ziran gurasoak.

Anaiak, ordea, nolako martxa artuko zuen ez jakinki. Bazekiten lana etzuela utziko. Aitak etzuen nai gaiñera. Orrela gazteak etxetik mantenduko ziran, eta kasturako gizonaren saria. Baiña ordu askeetan zerbait egingo al zuen. Baita beste biak ere, baserrian bizitzezkeroz, beartuak zeuden.

Ezkontza onek alderdi bat zuen ona, baiña bestea txarra. Amarentzat etzan oso gaizki etorriko erraiña, langille ta etxekoia atera baizan. Baiña aita geratuko zan lanpean bakarrik. Ordurarteko langilleak iges egingo zuen; ta, ura izan balitz ezkon berria etxerako, bi aldeak konponduko ziran. Alare etziran asarre, erraiña oso langille ta piña atera zitzaielako, eta pakean bizitzeko etzuen gutxi esan nai.

Bein etxeko martxa artu zutenean, Joan Joxek ala esan zien:

— Neri emandako itza bete bearko dezute noski?

Ama tristetu zan, eta ala galdetu zion:

— Orduan laster joateko asmoan aiz?

— Bai, ama. Etxera geratuko nintzalakoan, ni kontentu nengoen. Baiña orain zerok aitortuko didazute nik baserri ontan ez daukadala etorkizunik. Emeretzi urte bete berriak ditut, eta nitzaz pentsatzen asi bearko det. Nik iru urte auetan egingdakoa or geratuko da.

— Gu ez gaituk iñor ori iri galerazteko. Ere buruaren jabe aiz.

Anaiak etzuten itzik atera. Naiko lana egin zuen. Baiña koiñatak bai. Berekoia izaki ura ere. Laster antz eman zion gazte jator ta langillea zala, eta maitasuna artu zion.

— Orduan bazoaz, Joan Joxe?

— Zuk igerriko diozu etxe au bete-betea dagoela.

— Ez dizut ori ukatuko. Baiña orain asitako baratza oiek nork zainduko ditu? Ortik diru asko dator etxera.

— Gizona ta kuiñadoak or dauzkazu. Oiek beren ordu askeetan asko lezateke.

— Bai. Zu ere adiñera etorri zera, eta zere buruari begiratu bear diozu. Nolabait konponduko gera. Zoriontsu izan, bada, zoazen lekura zoazela. Ori opa dizut. Zu etzera iñon ere lotsagarri geratuko.

— Eskerrik asko, koiñata. Ondo ezagutzen ote nauzu?

— Arraixku txarrean sartuko zera. Baiña ez bazera okertzen, ziur nago.

# Agurra

**A**PARITAN denak agurtu zituen, urrengo goizean aterako zala ta. Lan billa zijoan, baiña baziteken berriz etortzea.

Batzuei ajola gutxi. Berak alpertzat jo zituen, zijoala nai zuen lekura. Alare, denak ondo bizi zedilla opa zioten; baiña etzedilla berriz etorri. Ainbeste urtean bakarrik fameliaren mantenuaren erdia irabazia eskertzeko asmorik etzeukaten, eskupeko on bana emanta.

Aita, ordea, benetan serio ta triste geratu zan, bera lasai bizi zalako, bere zabarkeriz etxeko mar-txa ondo antolatu etzuelako kezka bete. Eskarmentu gabeko gazte ura arraixku txarrean geratzen baizan. Bera ta beste iru semeren onagatik gazte-na zapaldu baizuen, eta denetan onena gaiñera.

Bai-baizekien baserrian ura bezelako langillerik etzala geratuko. Baiña bere naigabea biotzean gorde zuen. Alare, kezkarik txarrena semearen etorkizunak ematen zion: eskarmentu geiago gabeko umea munduko naspil ortan. Ordurarteko zintzotasuna galduko ote zuen beldurrak etzion pakean

uzten. Baserri lanean amaren ondotik atera gabeko gaztetxo maitagarri arek nolako joera artu bear zuen, bakarrik geratzen zanean?

Baiña ama ta koiñataren begietan malkoak ikusi zituen. Emakumeak izaki. Orduan dena ortan geratu zan.

Goizean, berriz, anai berekoiak beren lantegira joan ziran, etxean ezer egin gabe, etxeko lan guzia aitaren eskuetan utzita. Oni erori zitzaion loteria. Kulparik geiena berak zeukan noski, ta bakarrik egin bearko zituen baserriko lanak.

Joan Joxe lan billa joango zan kanpora, itxas ontziko kapitan batekin itzegitera, bere ametsen atzetik. Aita ukuilluan ari zala, joan zitzaion agurtzera:

— Aita, banoa. Berriz ikusi arte.

— Ba al oa? —esan zion onek, naigabetua—. Zaartzaro bikaiña etorri zaidak. Alare, neronek dizkit erruak, emengo martxari erteera zuzenagoa jarri ez niolako. Iretzat kejarik beiñepein etzeukat.

— Seme zaarrenak lagunduko dizu.

— Bai. Bazeukat orren itxaropena. Bere emazteak zirikatuko baitu. Baiña beste biak ez ditek kolperik joko. Oiek ere laster ezkontzeko asmoan zebiltzak, eta dijoazela nai duten lekura. Mantentzeko bi alper gutxiago. Etxean ere pakea utziko zigutek. Bizi ditezela berak egiñetik. Orduan, agur, Joan Joxe; eta bete ditezela ire ametsak. Nereak beiñepein ez dituk bete. Nai dekanean azaldu. Badakik non bizi geran. Gutxiago merezi duenen bati onuzkero ateak zabaldu zaizkiok.

— Illuntzerako anbat etorriko naiz. Artuko nauen ere ez dakit. Zer eraman bearko detan ain gutxi. Eguberriak igaro arte ez dira noski itxasoratuko.

— Nere sema aizela jakitean, bear badu beiñepein, artuko au.



Aita agurtuta, sukaldera joan zan, ama ta koiñata agurtzera. Biak erdi negarrez jarri ziran. Joan Joxeren begietan ere azaldu ziran malkoak.

— Ez da orrenbesteraíño —esan zien—. Urkamendira ez naramate, ta nere ustez urtean bixitarren bat baiño geiago egiteko moduak izango ditut. Etxeko martxa ez dago beiñepein gaizki ta...

Erteeran, malkoak zerizkiola, berebiziko aolkuak eman zizkion amak. Aiek denak buruan jasotzen ere etzan oso erreza.

— Eziñean baaiz, ator berriz, eta lagunduko diagu.

— Elitzake ori neretzat atsegiña izango: besteei salatutako pekatu berean erortzea. Ez badet osasunik galtzen, ez emen nere kezketan bizi. Andik edo emendik aterako det bizimodua.

— Ezkonduta joango baintzan, gaitz erdi. Bakarrik mundu ortako zurrunbullora, baserritik atera gabeko umea, eskarmentu geiago gabe, eta emeretzi urterekin, nik ez dit ezagutzen baiña. Baserritik atera gabeko emakumea bainaiz. Baiña, diotenez, beldurgarria izan bear dik gaurko jendearen bizitza, deabru sareaz beteta.

— Deabrurik gaiztoena nerekin daramat, nere griñak esnatzean, alegia. Orain arte ez det ezer ikusi, eta oiek lo daude. Gero izango dira kontuak. Alare, itxas ontzian lan da lan, ez ote naiz ni ere beste asko aiña izango? Baiña ni ezkonduko naizen itxaropenik ez eduki oraindik beiñepein. Gauza naizen arte, mundua eta mundukoak ikusi nai ditut.

— Bai. Bestek bizi diran lekuan i ere aterako aiz. Baiña nola zebiltzak? Kaleko txakur zikin oiek bezela. Ez aizela ezkonduko? Ori ikusiko diagu. Norbaitek goxo-goxo artuko au, ta ireak egin dik. Badakik nolako apustua daukagun egiña.

— Bai. Ez daukat aztua, Zuk diozun arraixku oiek guziak badaramazkit, aragizkoa naiz ta. Baiña ez nuke nai.

— Nere partetik ez intzan, ez, joango emendik. Nora oa orain?

— Galdezka-galdezka Erromaraiño iritxi omen liteke. Itxas ontzi bateko kapitanari egingo diot beinpein nere lenengo eskea.

— Itxaropen geiegi daramak. Gazteleraz ere ezer gutxi dakik, eta munduko zurrunbullo orrek beldurra ematen zidak, egunen batean berri gaiztoren batzuk ez ote ditugun ikasiko.

— Nik ez daukat, bada, beste ertenbiderik. Baserri ontan lekua eduki banu, nere anaiak bezela, anbat ez nuen olako asmorik artuko, iñork lantoki bat ezin billatu duen garaietan bizi gera ta.

Amak eta koiñatak musu banarekin egin zioten agurra: eta, betiko galdu balute bezela, saminduak geratu ziran. Etxetik atera gabeko gazte batek zer egin bear zuen bakarrik gizarte galdu ortan?

— Semeak joera ori artu duenean, emengo etorkizunez etsia eta emengo bizimoduz aspertua egongo zan —zion triste amak.

Koiñatak, naigabetu samarra, ala erantzun zion amari:

— Beste iru anaiak baiño geiago balio zuen onek baserrirako.

— Amaika alegin egiña naiz ni au etxean geratu erazteko. Baiña aitak beti ezezkoa ematen zidan.

— Orain, bada, onen utsuna berak bete bearko du; eta, jakiña, lanik geiena berari tokatuko zaio.

— Bai, zoritxarrez. Urte batzuk onak, orain pasa bear zituenak. Alare, eskerrak zuri, gorputz ta anima baserri lanari eldu diozunean.

— Nik dakit zenbat diru sartzen dan baratza auetatik.

— Gizon gordiña dago oraindik aita. Baiña semearen itxaropenik ez daukagu. Gazteena joan da, eta arek ez du geiago etxe ontan lanik egingo. Patxik geixeago saiatu bearko du.

Joan Joxe, ametsetan, lizar xaarrari agur egiñaz, joan zan bere bidean.

## Kapitanaren etxean

**E**GUBERRIAK ziran, eta bazekien amabost bat egunerako, itxasoz itxaso kargaketan ibiltzen zan kapitan bat urtero-urtero bere sendira etortzen zala, bere emaztearen eta alabaren ondoan jai oiek igarotzera, bere lagun batek esan zionez.

Berak etzuen ezaguna, baiña aitaren adiskide maitea izana, garai batean beiñepein. Gero, bizi bearrak bat batera ta bestea bestera berezi bazituen ere, oraindik artu-emanak tarteka izaten zituzten geroztik ere. Bazekien non bizi zan. Ari egin bear zion lanaren eskea. Baiña artuko zuen edo ez ez jakinki. Agian etxera etorri bearko zuen. Txuxenean ara joan zan, bada.

Amarrak inguru artan iritxi zan etxe artara, ez aundia, baiña polita ta dotorea, oso leku erosoan jasoa. Zirudienez, etzan kapitan ori miserian bizi, berea izango zuen noski ta.

Ikuspegi ederra aurrean. Erria, ia bertan, gainbeera artzen zuen bistan-bistan, baiña urrun samar itxasoa zeukala.

Etxea baiño goraxeago piñu ta aritz basoak. Gaintxo batean zegoen. Torretxo bat zeukan sarre-rako ate gaiñean. Kapilla zirudien sarrera, berriz, arkoan arri sillarez egiña. Au baiño goraxeago bi leio saieteraren antzekoak. Arriz egiña zala zirudien, baiña ez. Kuadroka-kuadroka margotua zegoen.

Etxeak jaso edo konpondu berria zirudien, bere inguru guzian burnizko eta sarats lerro baten eskerak ixten zuela. Burnizko sare onen gaiñetik, lantza bezela, punta zorrotzak.

Burnizko ate batek ixten zuen baratzarako sarrera. Onen bi inguruetan, ormigoiz egindako ontzietan, zugaitz eze ta orritsuak, mutur txorrotzak, il-errietan bezela, osto biziko zugaitzak. Kanpoko atetik etxeraiñokoa legar txeez egindako bidea. Beste gaiñerako guzia, baratza utzi samarra.

Nik azaldu detanaren antzekoa zan, bada, kapitanearen etxea. Emaztea amazapi bat urteko alabarekin bizi zan.

Etzetik eskubi aldera, berriz, zumar aundi bat, neguaren zigorrak soildua. Abendua izan arren, egoak aldizka egiten duen giro gozo ta epela zegoen, eta oe-sare edo amaka batean erdi etzana, pipakada aundi bat erreaz, arkitu zuen kapitana, kapusai aundi bat soiñean zeukala, laster joan bearke zuela ta txango arek zeuzkan arraixkuak aztertzen.

Arek ikusten zuen mutilla nola zetorren, atea zabaldu ta etxean deitu gabe, ixil-ixilik beragana. Baiña bertatik begira-begira egon zitzaion, kea zeriola, ondoraiño urbildu arte.

— Egun on, jauna —agurtu zuen Joan Joxek.

Uste zuen egundoko gizona izango zala. Kapitana izatezkeroz ala bearke zuela iruditzen zitzaion. Baiña ura sendo samarra, baiña txikia zan.

Erantzun baiño len, pipa eskuan artuz eta gazte ura burutik oiñetaraiño neurtuz, itxura oneko gaztea iruditu zitzaion noski.

— Baita iri ere, gazte. Baiña *jauna* alperrikako itz ori gorde ezak sakelean. Guk, itxas gizonok, elkarrekin gordiñago itzegiten diagu.

Beste uste gabekoa emen Joan Joxerentzat: trumoi baten abotsa edukiko zuela uste zuen, eta amaika emakumek bazeukaten lodiagoa.

— Ez dago gaizki. Guk ere etxean ez degu olako izkuntzarik ibiltzen. Baiña zuek goragoko maillakokak izango ziñatela uste nuen. Ori da guzia.

— Beti ere besteengana begirune pixar bat edukitzea bearrezkoa dek. Baiña guk izenez deitzen ziogu elkarri. Irea nolakoa dek?

— Joan Joxe.

— Joan Joxe? Izen polita dek ori, ta asko ibilia.

— Eta zurea nolakoa da?

— Nerea, Anbrosio.

— Izen ortakorik ez det noski iñor ezagutzen. Kapitana etzera, bada, zu?

— Bai. Ala deitzen zidatek. Baiña lana galanki egin ta arraixku gaiztoak igaroaz. Alare, gutxi irabazi ta ezin bizirik nabillen oietakoa. Ez nauk, ordea, ni sableak gerritik arrastaka dabilzkitenak bezelakoa. Lan gutxi egin eta ezeren arraixkurik gabe oparo bizi dituk oiek.

— Ez du gaizki bizi zeran itxurarik, palazio batean etzanda luze, pipa erreaz. Ez da gaur orrela edozein bizi.

— Bai. Ori ere ala dek. Baiña ordu gorriak igaro ta gero. Urrengo gure txangoak ere nolako arraixkuak dauzkan ausnartzen ari nauk, al dezakedan aiñean aietatik iges egiteko. Beste kapitan oiei norbait iltzen bazaie, etziek iñork kargurik artuko. Neri

bai, ordea. Nere mende dijoazen guzien erantzunkizuna nik zeramat; eta gutxiena uste dekenean sartuko aiz arraixkuan edozein lekutan.

Tarteka alako eztul txiki bat egiten zuen kapitanak.

“Gizon au gaixo zegok” zion berekiko Joan Joxek. Ondoren, berriz:

— Nor joan liteke itxasora zurekin batera?

— Asmo oiekin eske al ator?

— Bai, mundu au zerbait ikusi nai nuke ta.

— Mundua etzekit, baiña itxasoa ta bere inguruko kaiak ikusiko dituk. Besterik ez. Barrurago ez gaituk sartuko. Alare, bizitzak zurrunbullorik geiena oietan zebillek, eta lurreko enda guziak orrera biltzen dituk. Akelarre bat dek kai aundi oietako bizimodua.

— Orixe nai nuke, bada, nik. Aspertzean geratuko nintzake.

— Baikorra aiz benetan. Ekaitz biurriren batek arrapatzen bagaitu eta tiburoien janari ia neurri gabe ko putzu aundi ortara botatzen baau, ireak egin dik.

— Olako arraixkuak legorrean ere obeto dauzka gu. Zu ere aspaldian or zabiltza noski. Baiña etzaituzte tiburoi oiek jan.

— Bejondeikela, motell. Gaztea aiz, baiña arrazoizkoa. Denean zegok arraixkua. Baiña mundurik mundu ibili nai badek beiñepein, nik pozik artuko iñuket. Bear dit langille gazte bat marrokiar baten lekurako. Orain denbora asko ez dala biali egin nin, lapurra, alperra, mozkorra, lotsagabea ta okasio jartzaillea zalako. Batez ere, nere alaba bakarrarekin txakurra bezela ibili nai zuelako. Oraindik emen zebillek inguruz inguru. Bein baiño geiagotan aurrean biali dit. Edozeiñek, orren berri ez dakienak, esango likek aita-alabak dirala. Nere alaba bakarrak Lutxi dik izena. Dotorea dek, baiña etzeukat marrokiar

ustel orrentzat. Alabak ez dik begien aurrean ikusi nai ere, eta esan nioken ez kasorik egiteko. Ezta aintzakotz artu ere. Bestela, lekaima sartu eraziko nuela. “Ez, aita. Ez orren kezketan bizi. Mutil nazkagarriagorik etzait oraindik nere begien aurrean jarri” esan zidaken. I, berriz, oraindik, gazte, mutil ederra aiz.

Arrituta zegoen mutilla kapitanaren itz jarioa entzuten. Arek zer ikusi zeukan alabaren atzetik norbait bazebillela jakin edo ez? Ura lan billa etorri zan; ez alabaren eske. Lenengo aldiz itzegiten zuten, ta etxeko gora-beera guziak jakin erazten ari etzitzaiou, bada? Edo, lanera etorrita, lanarekin alaba ere eman nai zion?

Arrazoi gabe noski, baiña susmur txarra artu zion arazo orri. An txakurra nor ote zan: marrokiaarra edo neska? Agian biak. Kapitanari ala erantzun zion:

— Ortan ez nere beldurrik eduki. Ez det ezkon-  
tzerik pentsatzen.

— Aixa diok ori, oraindik bizarririk ere etzaik jaio ta, ortara irauteko.

— Emeretzi urte bete berriak ditut.

— Ez daukak sasoi txarra. Ez dek orduan emakumeetarako eraspenik?

— Orain arte ez beiñepein. Ez det nere askatasunik galdu nai.

— Lutxi nere alaba ikustean, ez dek ori esango.

— Bai, kapitan jauna. Bizi zindezke lasai. Zure alabaren atzetik ez dizut enbarazu aundirik emango.

— Iri ez nitek galeraziko. I besterik aiz: euskalduna ta osasuntsua; ez, ura bezela, errea.

Lan billa etorria ia damutu zitzaion. Zer ote zuen, bada, aren alabak, besteak etzutenik? Nola-koa ote zan?

— Eskerrik asko lore sorta orrengatik.



Anbrosiok par egin zuen gaztearen ateraldiengatik.

— Nongoa augu? —galdetu zion.

— Errenderikoa.

— Ezagun asko zeuzkat nik an, batzuk nere gazetetan benetako lagunak izanak gaiñera. Batez ere Olako.

— Aren semerik gazteena naiz, bada, ni.

— Bejondeikela, motell. Pozten nauk. Ondo al zebillek?

— Oraindik gordiña dago ura. Osasun bikaiñekoa. Denbora baiño lenago utzi du lana. Etxeko martxa guzia bere bizkar artu du arek.

— Lagun maiteak giñun gazetetan. Bein bizi bearrak berezi gaitziken, eta geroztik ez diagu artu-emanik. Bera ere gizaki bikaiña dek ura; eta, ikusten detanez, semea etzaiok atzetik geratu. Arekintxe itz aspertu bat egiteko bazeukat gogoia. Et ik zer nai uke?

— Len ere esan dizut: zure ontzian lan egin. Neretzat lekuri baldin badaukazu beiñepein, zure langille sartu.

— Arrazoi dek eskatu didakela. Baiña beti izan dit ortarako buru aundi au motela. Gero, marrokiar zikin orrekin ain naastua nabillek, itxasora joateko beldurrak, etxean bi emakume bakarrik utzita. Itxasoa ere arraixku aundiko lana dek.

— Len ere esan dizut arraixkua denean dagoela.

— Aitarekin asarretuko intzan da...

— Ez alakorik. Gurasoak asko maite ditut. Aiek ere bai ni.

Kontatu zion nolako egoeran geratu zan, eta mundu au zerbait ikusiz xox batzuk irabazi nai zituela.

— Eta zer dakik egiten?

— Nik ezer gutxi. Baiña borondaterik onena dakart.

— Ori dek bearrezkoena.

— Goldean, laian, beiak jezten, eta batez ere gurasoen menpeko bizitzen.

— Azkeneko arrazoi ori benetan atsegiña zaidak. Lantegi guzietan bearrezkoena ori dek. Baiña itxasoan golde ta segarako lekurik etzegok.

— Badakit nik ere ori. Baiña zure mutil bezela zerbait egingo nuke: zuri bazkari ta apariak serbitu, oiñetakoak garbitu, jantziak berdin... Ainbeste lan izango degu, gizonezkoak bakarrik bizi geran lekuan.

— Aizak: ortarako ere bear dit bat. Baiña bein da berriz ez nauk esaten aspertuko: arraixku txarreko ibillerak dituk oiek. Amerika alde ortan uste gabean ekaitz ikaragarriak sortzen zaizkiguk gero.

— Ori, ara goazen denontzat berdin izango da noski. Onuzkero urte mordoska bat badaramazu itxasoan zabiltzala; baiña oraindik sasoiko ta osasuntsua emen ikusten zaitugu, ekaitz guziei iges eginta.

— I bezelaxe, emeretzi urterekin asi niñun, eta berrogei zeramazkit. Oso berandu ezkondu niñun. Baiña ai! Nere osasunak urte auetan egundoko jipoia artu dik. Pipiak joa nabillek.

— Alare, ez diozu, bada, lanari utzi. Jakiña, zuk ere urte batzuk geiagorekin erretira ohea artu naiko dezu ta.

— Orrenbeste urtean ordaindu ta gero, denon eskaria orixe dek. Baiña alabatxoa ezkondu arte ez nitek geratu nai.

— Senargaia ez dabilki, bada, inguruz inguru? Ezkondu marrokiar orrekin. Zaarra dala? Zuk ere, zedorri zaartuagatik, andre gaztea artuko zenduen.

— Bai. Ni baiño ogei urtez gazteagoa izango dek noski. Baiña etzaidak marrokiar ori aipatu, sumindu egiten nauk eta. Zergatik ez irekin?

— Ordurako txalak umea egingo du.

— Gutxiena uste danean, maitasunak berea egi-  
ten dik gero. Badakik tantaka itote batek arririk  
gogorrena txulatzen duela.

— Bai. Amak eta nik apustu txiki bat egiña dau-  
kagu: ogei ta amar urteetarako ezkondu baietz.  
Galtzailleak soiñeko eder bat egin bear dio irabazle-  
ari. Apustu ori irabazia daukat. Nik ez det oraindik  
olakorik pentsatzen, eta urak ez du nere biotza txu-  
latuko. Ortan seguru bazagozke.

— Nere ate guziei maratilla jartzen dieken ezke-  
ro, ator nerekin. Ire jatortasunak irabazi dik nere  
biotza; eta, agindu ditzen bezela, nere mutil geratu-  
ko aiz. Bear dit bat, lengoa bialdu nuen ezkerro.  
Etxeko lan gogor askori iges egingo diok orrela.  
Baiña apustua amak irabaziko dik.

— Ez det uste. Eta ontzi oietan lan gaiztorik iza-  
ten al da?

— Bete ta ustutzeak bestek egingo zizkiguk.  
Baiña lan gaizto askoak izaten dizkiagu; denen bea-  
rrean arkituko geran ordurik gaiztoenak ere. Dene-  
tara jota, bederatzi izango gaituk; eta bakoitzak  
bere lekuan praka bete lan edukiko dik. Askotan  
gaixo ere geratzen dituk. Aren ordeko egiñaz gaiñe-  
ra, ari serbitu bearko ziotek. Ekaitza danean,  
berriz, igerriko diok, salbatuko bagera, ditugunak  
jo bearrean arkitzen gerala.

— Eta noiz aterako gera?

— Urte Berriak pasa ta lenengo astelenean. Eta,  
nere mutil izango aizen ezkerro, ator datorren aste-  
artean. Egun batzuk emen igaroko dituk. Nere  
emaztea ta alaba ondo ezagutzea nai nitek. Goxo-  
-goxo zainduko aute gaiñera. Jantzi asko ez ekarri.  
Otzari gogor egitekoak bai, otz ta bero ikaragarriak  
igarro bearko dizkiagu ta.

Kapitanak berak lagundu zion ateraiño.

Gure mutilla iruzurtua geratu zan. Oiek egundo-ko gizontzarrak izaten zirala omen zeukan buruan sartua. Ura, berriz, etzitzaion belarriraiño irixten. Kaska txuritu xamarra. Ordurako, aurretik soildua. Atzetik, garrondoan beera, emakume baten antzera zintzilik utzia zeukan illea.

Gilbor koxkorra aurrera. Baiña gaixo itxura aundia zeukan. Begiondoak aunditu ta ugeldu samarrak. Ari serbitu ezik, gaixozai ere egin bearko zuela iruditzen zitzaion Joan Joxeri. Erretxin samarra eta aldarte gaiztoak ez ote zituen izango? Begi azpiko poltsa aiek ala erakusten zuten.

Trumoi baten abotsa uste zuen izaten zutela oiek, eta edozein emakumek arek baiño lodiagoa. Katamarrua zirudien aren abotsak. Benetan iruzurtua geratu zan, bada, gure gaztea.

Berak eta Jainkoak jakingo zuten nolako bizimodua eramango zuen. Bere aitak, adin berekoa, arek alako lau balio zuen edozer lanetarako. Ura bereala berotzen zana zan noski. Ontzian etzuen lan geiegirik izango. Berak lagundu zion, bada, kanpoko ateraiño.

— Esan bezela, ator asteartean. Egun batzuk elkarrekin igaroko dizkiagu. Emen oso ondo zainduko aute emakumeak.

— Oraintxe asi dira nere ametsak betetzen.

— Bukatzerako aspertuko aiz.

— Eta zure langille guziak berritan orrela artzen al dituzu?

— Ez. I, nere lagun maite baten semea aizelako. Oraindik gaztea gaiñera. Nere mutil artuko aut. Semetzat ere pozik aukeratuko iñuket. Itxasora joan baiño len ezagutu naiko aute. Ik ere bai aiek.

Alaxe, atean agurtu zuen, eta Joan Joxek etxerako asmoak artu zituen.

## Marrokiarra

**E**SNA ametsetan baserri aldera zijoala, gizon bat atera zitzaion aurrera. Bereala antz eman zion ura etzala euskaldun endakoa. Bein baiño geiagotan moroak ikusi izan zituen, eta aieta-ko baten antza artu zion. Ortxe berrogei bat urte inguruko gizona, eta Euskal Errikoa izateko beltze-gia. Potxolo txiki sendo samar, ezin egon oietakoa.

Ura etxeko morroi bezela eduki zuela uste zuen, itxas ontzian nonbaitik berekin ekarria. Itzetik ortzera ala galdetu zion:

— Nondik sartu aiz i orrera?

— Besteak bezela, atea zabalduta. I al aiz, bada, emengo atezaia? Ire baimenik gabe sartu naizelako zapuztu al aiz? Iñor ez dit ikusi. Beste lekutan oitua nagoen bezela, txintxarririk jo gabe joan nauk aurrera.

— Ez nauk ni iñongo atezaia. Baiña benetan arri-tzen nauk nola utzi diteken. Ni, ateondora urbildu orduko, aurrean bialtzen niotek, batez ere kapitanak.

— Orduan i aiz kapitanak madarikatzen duen moro ura.

— Nitzaz zerbait esan al dik?

— Bai. Sumindua eta beldurrak bizi dek.

— Etxe onen zaitzaille nagok, egia; baiña kanpo aldetik. Burni sarez aurrera sartzen etzidatek uzten. Ortik barrura sartzen asi ezkerro, laster nizkikek zakur aundi oiek gaiñean. Oiek zaunkaka asten diranean, azaltzen dek leiora, eta bere arpegia erakusteko aitzakia dik ori.

— Orduan i zakur emearengana etorriko aiz; eta, sartu ez adin, beste aundi ori zeukatek aren zaitzaille.

— Kontuz! Ez nazakela ni ere txakurtzat artu!

— Askotan, emea etxe barrutik zaunkaka asi orduko, inguruka dabiltzanak audika ta burruka somatu izan dizkit.

— Ez gaitzakela gu lau ankeko oiekin berdindu.

— Barkatu. Esan diton bezela, oien ixkanbillak askotan ikusi izan dizkit; eta ik emen daramaken martxak orren antz aundia zeukak.

— Oraindik ez nauk ezagutzen eta isekaz ari al aiz?

— Barkatu, baiñan ni txakur kontuan ari niñun. Bi emakume omen dituk, kapitanak etxean esan didanez. Noren atzetik: zaarraren edo gaztearenetik?

— Alaba nai nitek nik. Bestea legortua, amondua zegok.

— Alajainkia! Ik berrogei izango dituk gutxieneko. Besteak, amazpi bete berriak, neri esan didatenez.

— Maitasuna etzegok, ordea, zaar-gaztea izatean.

— Zerbait izango dek. Ez dit uste arek maiteko aunik. Ez litekek bestela prÂsa zakur ura axiatuko.

— Gaztea ederra ta maitagarria dek. Agureak axiatzen zidatek; ez orrek,

— Jakiña, zakurrari. Biak eme baten atzetik zabilzate, ta ez aiz ero makala, ura leiora azaldu zai baago.

— Orrekin min ematen didak. Gordiñegi mintzo aiz. Len ere esan dit.

— Ori baiño gordinkeri gaiztoagoak ez ote dituk esan ta egiten gero?

— Eta ik nolako asmoak ekarri dituk onera?

— Ez adilla, motell, espatsuegi ibili. Ez nabillek ik dioken aingeru orren billa. Oraindik ez dit ikusi ere, i ainbeste txoratzten auen ori. Bere aita kaskailu orrekin izan dizkit nere artu-emanak, eta lana eskatu ziot. Ik galdu dekan lantegia nai nitek.

— Ez dik orduan alaba ikusten ere utzi?

— Oraingoz ez neukaken bearrik ere. Baiña bere semetzat pozik artuko niñukela esan zidak. Ez ori bakarra. Sei bat egun, itxasora baiño len, oien artean pasatzera natorrek, aitonaren aldetik.

— Urdea aleena! Neska txoratzeko gazte baten atzetik al dabil?

— Baiña lasaitu inteke. Ez dit olako loturarik nai. Mundu au ikusi; ori dek nere ametsa. Neregatik jarri inteke bertako morroi.

— Agurea bizi dan arte, etzeukat nik or zer egiñik.

— I izango aiz orduan lantegitik botatako marrokiarra?

— Bai; alaxe nauk. Itxasora joan nai uke orduan.

— Txandaka itxasora ta baratzara. Sortu giñan etxean etzegok guretzat lekurik, eta beste atean deitu bearko.

— Eta nitzaz itzegin al dik?

— Esan ez dit, bada? Deabruzat artzen aute. Soka batetik pozik urkatuko iñuteke. Ni, berriz, bere semetzat artu, eta ezagutu baiño lenago.

— Oraindik nor nork urkatuko duen erakutsiko ziot nik orri. Agure egoskorra aleena! Eta ik sinistu egin al diok?

— Zemai gaiztoa dek, motell, ori. Zer sinistu?

— Orrek semetzat artu nai aula.

— Sinistuko banio, ez niñuke geiago etorriko. Alde batera, olako asmorik etzeukat. Bestera, berriz, oraindik ez dit ezagutzen. Ikusi ere ez. Nik zer zekit or zer gertatzen dan?

— Urde orrek, bere alabarekin asi nintzalako biali nioken. Erregiña balitz bezela, kristal artean gordea zeukak.

— Esan didanez, pekatu geiago ere badituk. Baiña neregatik jarrai ezaioke.

— Eskerrik asko. Nora oa orain?

— Etxera. Itxasorako zer bear detan esan zidatek, eta oiek eroatera. Biar etorriko nauk astelena arte, lanera aterako geran eguna. Bitartean etxe ontan biziko nauk. Kapitanak egin nai ziek bere emazte ta alabari nere agerpena. Dirudienez, ni emengotzat artu nai. Ori serio ziek.

— Ez dek suerte makala!

— Ondo asitakoa ala bukatuko balitz...

— Orixe gertatu zaidak neri ere!

Agurtu ta marrokiarra bertan utzirik, aurrera joan zan mutilla.



## Ama-alabak

— **O**RI al da marrokiarra? Ea gu biok oraindik aari jokoren bat izaten degun. Ori ez dek kapitanak uste duen bezelakoa. Billaua ta maltzurra benetan. Orren ezkutuko asmoak nola-koak ote dira? —zion bere artean Joan Joxek.

Baserrira joan ta bear zituen bezelako soiñekoak erosten amak lagundu zion; eta urrengo egunean etorri zan kapitanaren etxera.

Beti bezela, lasai-lasai bere pipa erreaz eta oe sare artan arkitu zuen. Baiña zutitu ta mutillarengana zuzenean etorri zan; eta oni esku eman ez agurtu zuen:

— Ongi etorria, Joan Joxe.

— Ongi arkitua, Ambrosio.

Elkarrekin etxe sarrerako ateraiño joan da txin-tzarria jo zuten. Baiña atea zabalik zegoen. Bera sartu zan aurrera mutillarekin. Ama-alabak batera azaldu ziran gero.

Biak alai-alai agurtu zuten:

— Ongi etorria, Joan Joxe. Etxe ontan ez degu aspaldian olako gazterik ikusi.

Biak esku emanez artu zuten. Mutilla moztua, zer esan ta pentsatu etzekiela, geratu zan. Kapitanak atera zuen estura artatik.

— Aingeru bat emen dakartzuet.

— Etzera noski ala izango, baiña aspaldian mutil gazterik ez degu ikusi emen.

— Ez deabru ta ez aingeru, erdikoa naiz.

— Ori da. Askoz obe.

— Baiña zer dezu lotsatua edo arritua egoteko?

— Biak batera noski.

— Jakin al genezake zergatik? Orren estrañutzat al gauzkazu?

— Ez da orregatik. Kapitanak esan didanez, ama-alabak omen zeratela, eta nik ezin det ezagutu ama edo alaba nor dan emen.

— Alaba ni naiz.

— Orduan zu zera Lutxi?

— Uraxe berbera. Gurasoen erdian orren zaarra al dirudit?

— Ez da orregatik. Zuk dituzun urteetarako dotore zaude. Baiña amak zure aizpa dirudi. Nik ez jakitera, begiratu batean ez nizkioke ogei ta iru edo lautik gora joko.

— Ez da noski dena egia izango, baiña eskerrik asko lore sorta orrengatik. Len ere esan dizut, Ambrosio —esan zion emazteak—: etxe ontan olako gazte bat ikusteko bazala ordu.

— Atoz, Joan Joxe; atoz nerekin —esan zion alabak, eta berekin eraman zuen.

Bazirudien neskari pena ematen ziola itxasora ajola gabeko jende orrekin biali bearra, eta ala esan zion:

— Ez al daukazu beste lan tokirik? Beti aita non galduko dan beldurrak, edo berriz noiz ikusiko,

kezka txarretan egoten gera gu, ama-alabok, ia urte guzian itxasoan dabil-ta aita.

— Saiatu ezkerro noski, lantegi obeak billatuko nituzke, baiña urte batzuetan beiñepein mundu onen berri ikasi nai nuke. Aspertzean geratuko naiz.

— Bai; itxasoan, tiburoiren baten sabelean.

— Zure aita ere or dabil, bada, ta oraindik ez dute jan.

— Beldur orrekin nolako larriak pasatzen ditugun! Baiña ori bada zure asmoa, zoaz. Jainkoak lagunduko al dizu!

— Jainkoakiko sinismen ori galtzeko arraixkuan ez bagera jartzen...

— Ori da beste arraixkua. Ondo zaindu bearko zaitugu, “nere semetzat aukeratutako mutil gazte bat dakartzuet eta” esan digu aitak.

Mutillak par egin zuen:

— Oraindik banaizela besterik ez dakizute ta.

Erakutsi zion bere logela.

— Pardel ortan zer dakartzu?

— Itxasoan bearko detan erropa.

— Markatu gabe noski?

— Ez nekien ala egin bear ziranik ere.

— Ekatzu. Guk markatuko ditugu.

— Eskerrik asko. Denak orrela tratatzen al dituzute?

— Zergatik ez? Gaiñera, aitarekin etzoaz eta bere semetzat etzaitu nai? Ez kezkatu. Maitatzen utzi zaitte eta asmatuko dezu. Urteak dira etzala emen zu bezelako mutil gazterik sartuko. Denak aitaren lagunak: zaarrak.

Damutu zitzaion noski Joan Joxeri etxe artara sartua. Amak eman balizkio alabak eman zizkion

arrazoiak, ulertuko zituen. Bere gizona olakoa baitzan. Baiña amazapi urteko neska? Zeren billa zebiltzan aiek? Ambrosio ibiliko zan or tartean zirika.

Bi emakumeak elkarren leian ari ziran mutillaren eder nola egin ezin asmatu. Bizimodu emeezia zan ura arentzat. Etzegoen artara oitua. Latzago ezia zeukaten.

Bein baiño geiagotan oroitzen zitzaion bere mendiko lizarraren azpiko askatasuna. Bakarrik eta ametsetan. Emen, berriz, bi emakumek baitua zeukaten. Pausorik ezin zuen eman, aietakoren bat aurrean ikusi gabe.

Aiei iges egiteko, baratza lanerako tresnak eskatu zizkion kapitanari. Etzuen, ezer egin gabe, besteren bizkar bizi nai.

— Emakume oiek izutu egiten al aute? Neri berdin gertatzen zaidak.

Bereala ekarri zizkion. Baiña, bada ez bada, etzan bera laguntzera etorri. Pipa erreaz txuxenean atsedenera joan zan.

Egun batzuk, igandera arte, lasai antxe pasa zituen. Igandean bazkari eder bat egin ta astelenean agurtu ziran. Etxetik erteeran, malko garratzak ikusi zituen emakumeen begietan. Baiña bazekien etzirala beragatik ixuriak.

Zaarrak eta gazteak musu bana eman zioten, eta urrundu ziran, etxean beti bezelako utsuna utzirik.

Eskerrak eramandako erropak markatu zizkionten. Bestela, gure mutilla laster geratuko zan larru gorririk.

Ainbeste losintxa eta begirunek etzioten onik egin. Oraindik gaztea zan, baiña emakumeen malkoak eta musuak berdintsuak zirala berekiko esaten zuen.

Ez dakit kapitanak ikusi zuen. Erdi lausotua zegoen noski ura. Baiña Joan Joxek bai. Bazter bate-tik begira zeukaten marrokiarra. Geroztik zenbat aldiz etzuen somatuko ontziko langilleekin izketan?

Borondate gabeko ta aiurri auleko gizona zirudien arek. Baiña ez geiegi piatu arekin. Zenbait zakurrek bezela, kozk egingo zizun. Gizajo itxuran, artza berbera noski.

Gorroto ikaragarria zion kapitanari; eta, Joan Joxeren iritzian, onen atzetik zebillen ura. Aita, ura zan gaiztoa. Al bazuen beiñepein tartetik kendu, alabarena egiña zeukala. Mutil gazte eder ura tartean sartu zitzaion, ta orain berari ere ala artuko zion.

— Ez al dezu zure etsai ori ikusi?

— Zein etsai, ordea?

— Marrokiar kaxkar ori.

— Nola dakik ura zala?

— Zuen etxera etorri nintzanean, kargu artu zidan arek, txintxarririk jo gabe sartu nintzalako. “Emengo atezaia al aiz, bada, i?” galdetu nion. Orduan berak amorrus kontu zidan zeraman bizi-modua.

— Txoro gixaixo bat besterik ez dek ori.

— Nik ez nuke beste ainbeste esango. Gixaixo baten itxuran deabru bat da ori. Nola uzten dituzu ama-alabak laguntza geiago gabe?

— Dauzkaten bi zakur aundi aiek laster egingo ditek orrekikoa. Guardiazibillen koartela ere besteun metro baiño urrerrago zeukatek. Urrutizkiñez abisu txiki bat bialtzea aski ditek.

Ordukoz ori ala geratu zan.

## Mundurik mundu

**I**ZKETAN-izketan, biak iritxi ziran kaiaraiño. Zeramazkiten trasteak ontziraiño sartu. Joan Joxeren lo egiteko lekua gela txiki bat, bere giltza ta guzi. Etzion beste erdi galdutakoekin lo egiten utziko.

Ondoren, jakitea komeni zitzaizkion aolku batzuk eman zizkion:

— Ik gelatik ateratzerakoan, ez bein ere giltzatu gabe utzi, esku zikiñekoak badituk eta. Irabazten duten guzia lau egunean txautzen ditek. Kaiera ertetzen diranean, irabazi guziak akituta geratuko dituk. Orduan, egokieran ikusten duten guzia arraixkuan zegok. Laster bostekoa luzatuko ziotek. Ez orduan irea dala-ta eskatzera joan. Gorrotoan artuko iñuteke. Puska geiegi ta maizegi eskuz aldatzen dituk emen. Larru gorririk ez badek geratu nai, erne ibili. Mingaiñak ere batzuek deabruarenak dizkitek. Biraoa biraoaren gaiñean entzun bearko dek. Lenengo nazkatuko aute, baiña bereala jarriko zaizkik belarriak. Batzuek benetako larria emango ditek. Kristauontzat maitagarri diranak kakaztuko baidituzte, sinisten dutenak eta ez dutenak nazkatzera iño, mendiko abereak baiño ere ajolagabeago-

ak dituk eta. Baiña etzakela oitura gaizto ori artu. Kristau bezela azitakoen mingaiñak garbiagoak bear ditek. Elkarrekin txakurrak bezela bizi diranak ere badituk. Gazte guria aizela ta atzetik asiko zaizkik. Ulertzen didak noski zertaz mintzo naizen?

— Baietz uste det.

— Ondo ezagutu baiño len etzak iñorekin konfiantzarik artu. Bestela, larrutuko aute. Poliki-poliki antz emango diek nor nor diran. Lenengo egunak baliteke txarrak izatea. Goitika ariko aiz agian. Guri ere oraindik bere jipoia ematen ziguk, eta benetako larriak nabaituko dituk. Baiña gaztea aizen ezker, bereala jarriko aiz. Erne ibili, bada, euskaldunak ez diranak ere badituk tartean ta. Erri au nai badek ikusi, joan inteke lasai. Ortarako aske-askea aiz. Olako ordurako etorri.

Kapitana ontzian geratu zan, lengo ta oraingo agiri guziak zuzendu ta garbian jarri bitarte, eta biarko martxa moldatu. Ontzi ta bertako langilleen erantzunkizun guzia bere esku geratzen baitzan.

Nagusi izango zuenaren aolku zuzenak entzun zituenean, errira atera zan, ango jendearen ixkanbilla ikustera. Baiña zalaparta gutxi nabari zan. Ordurako berandu samarra, ta otza zegoen gaiñera kaian. Ardangela ta zineak gaiñezka zeuden; ori bai. Baiña berak uste zuen baiño jende gutxiago karrketan.

Kalez kale ikusi-mukusin ibili ondoren aspertu zanean, karrika uts aiek utzi ta kapitanak esandako ordurako bere lekuan zegoen.

Nagusiak banaka-banaka artu zituen denak, esku emanek, ongi etorrika. Etzan iñor ere palta. Esan ere bai, ontzia, burnizko mineralez zamatua, Londresko asmoan aterako zala biaramonean.

Kapitana serbitu ta apari legea egin ondoren, atsedentzera joan zan.

Bere oldozpenak izango zituen. Asi zan, bai, ta laster jarriko zan. Etzuen uste besteak baiño aulagoa izango zanik.

Mundu ori nolakoa zan ikusteko oraintxe izango zuen aukera. Ea lizarraren azpian egindako ametsak ondo ateratzen zitzaizkion.

Beste langilleak bi sailletan berezi ziran; eta, mutillak entzun zuenez, lanerako izan ezik, etziran egundo batera bilduko: euskaldunak elkarrekin, eta marrokiarrak berdin, ez baiziran piagarriak.

Apalondoan, beren lanak bukatu ondoren, otza egon arren, alako itxaso barea zegoen eta denbora pasa, oitu bezela, maian geratu ziran musean.

— Aizak: kapitanak gazte bikaiña ekarri ziguk.

— Bai; baiña ondo asko gordeko dik beretzat.

— Poliki-poliki zabalduko dek.

— Bai; baiña ernea zirudik.

— Gaztea dek, ordea, ta gutxi ikusia. Baiña nekezaria ta piakaitza. Kristau lege ori ondo sartua edukiko dik orrek. Arrapa zak ori —zioten marrokiarrak.

Euskaldunak, berriz, bada-ezbadako kristauak bat edo bi, baiña argurio zikin ura utzita, auek ere jokoan ari ziran, batean oiuka asarre, bestean adiskide, jokoaren martxara alegia, erretirako ordua etorri arte tximini batetik bezela kea zeriotea eta zurrutean. Ortan marrokiarrak zurragoak ziran.

Gure ontzia, sabela burniz betearekin eta urean mozkor baten antzera balantzaka, martxan noiz jarriko zuten zai.

Lenengo aldiz mutilla itxasoan lo egiten zuela.

Egunsentia nabarmendu zanean, tutu luze batzuk jo; eta erteera, jakiña, libre utzia zeukan.

Labeak piztu ondoren, berriro tutu luze bat jota, ontzia geldi-geldi bazijoan kaia utzi arte.



Bakoitza bere lekuan: lemazain eta sukaldezaia, telegrafista eta beste gaiñerakoak. Orrela ibiltzeko, denetatik bear.

Kaietik atera zanean, ontziak abiadura biziagoa artu zuen, eta asi zan urruntzen-urruntzen, eta legorra bistatik galtzen, Londres aldera.

Joan Joxek bazeukan, bada, zeri begiratua, begiak ezin aserik. Mundu ura ikustera etzan, bada, atera?

Kaietik atera orduko asi zitzaion urdaila naasten. "Nere gosaria laster ziek itxasora" zion berekiko, larri zala igerri zionean, ontziaren ertz batera urbilduz. Ori esan zueneko, an joan zan urera sabelean zeukan guzia, Baiña an zebiltzan arraien-tzat etzan gaizki etorri. Laster bildu ziran. Bai zoramen ez irentsi ere.

Zaarragoko mariñel batzuek ere bazebiltzan larri-larri keiñuka.

Inguru aiek ikusteari utzi zion ordukoz beiñepein. Berekin zeraman naiko nekea: bota nai ta ezin.

Egun batzuetan, goitikako larririk etzitziaion palta. Baiña laster oitu zan, eta andik aurrera legorrean bezin lasai zijoan Joan Joxe.

— Zer moduz abil? —galdetu zion kapitanak, alai txistuka ta kantari somatu zuenean.

— Oso ondo ta kontentu. Zuk igerritako larriak pasa zaizkit. Oraindik agian ordu gaiztoagoak etorriko zaizkigu.

— Emen bakoitzari bere lekua emana zegok, iri bezela. Iretzako dena berdintsu joango dek. Baiña norbait gaixotzen danean, aren lanak egiteko denok esku bana luzatu bearko diagu. Ekaitzak arrapatzen bagaitu, berdin.

— Eta lenengo txango ontan, entzun detanez, Londresa al goaz?

— Beste iñongo kaian sartu gabe, txuxenean. Londres munduan dan uribururik aipatu ta zaarretako bat dek. Ingelesak gudari gogorak dituk. Orko itxas ontziak gaiztoenetakoak. Amaika bider oien iges ibili bearko diagu.

— Ez dago gaizki. Zuk esan didazun bezela, askotan entzun det izen ori. Aundi ta aurreratuenetako bat omen dala.

— Ortik asi bear al dek mundua ikusten?

— Orain ere ez al naiz ala ari?

— Ondo diok. Au dena mundua dek. Baiña Londres zaarretakoa. Kondaira arrigarria zeukak Inglaterrak, etorkizunari begiratuta egiña. Ingelesak ortan azkarrak izan dituk. Uri aundi ortan ez dek jolaslekurik palta. Zingirak bikaiñak ere bazeuzkak. Txara ta baso ederrak berdin. Ez, zenbait lekutan bezela, karrika estuak eta etxea etxearen gaiñean; ez baratz, ez lore, dena berdintsu egiña. Gaurko aurrerapenarentzat oso aldrebesak. Karrika itxuak, jendea lasai pasiatzeko ere ia lekurik gabe. Baiña gu kontrabandistak gaituk. Olako kai ederrik ez diagu ikusiko. Askotan mendi arteketan, gordean ta ixillean egingo dizkiagu deskargarik geienak, eta gudako ontzien iges. Zanbatekoren batzuk ere sutuko zizkigutek agian. Arrapatu ezkerro, berriz, ni urkamendira. Besteak ere gaizki ibiliko ituke. I ez noski. Ontzia ere kenduko ligutekek. Baiña orain arte ez gaitzitek arrapatu.

— Orduan gure bizimodua zoragarria izango da, zuk diozunez.

— Arraixkuen aldekoa baldin baaiz, bai. Baiña igerriko diok guda ontzi oien iges mendi zokoetan, askotan ur gutxi dagoen lekuetan sartuta, arrapatuko gaituzten beldurrak gaudenean. Ontzia bakarririk utzi ta ezkutatu ere bai inguruko basoan.

Eguzkia gora igoa zan. Alare, aize ormatua zeterren itxas gaiñetik, txistuka, amuizak sartuz eta arpegiak ebakiz. Negua baizan, eta Ingalterra alde ori oso leku otza omen da.

Tamesis ango ibai entzunean gora sartu zan burniz zamaturako ontzia. Gure gazteak ezker-eskubi bazeukan zeri begiratu.

Ibai zabala, ur sakona ta geldia, ainbeste paurriketatik zeterren zikinkeria irentsiagatik garbia.

Bere bazterrak, denak ethez, paurrikaz ta txara ta basoz inguratuak, Londres bera bezela. Udarako baziteken atsegin samarra izatea; baiña orduan otza zegoen. Orma ari baizuen.

Polliki-polliki, baiña etenik gabe igo zuen ibaia, eta kaian sartu baiño len tutu luze batzuk jo zituen. Kaietik atera zan ontzi batek zuzendu zuen aren sarrera, ustuko zuten lekuraiño eramanez.

Au arresian lotu ta langilleak ateratzerakoan, onela esan zion kapitanak Joan Joxeri:

— Aske geratzen aiz, eta ik nai dekena ikusi. Alare, ez adilla emengo langilleetara bildu, ez badek ere burua galdu ta ondatua ikusi nai. Oiek, txakurrak bezela, betiko lekuetara ziazik. Tabakoa erosteko ere txanponik gabe geratuko dituk, eta larrutuko iñuteke.

Baiña kapitana bakarrik nora zijoan? Aolku onak eman zizkion. Oraindik inozente samarra zan, baiña bazekien ainbeste.

Beraz, mundukoak orrela zebiltzan, gizon jatorizat zeuzkatenak gaiñera; eta bizitzeko bear-bearezko diruak or txautuko zituzten.

Egunetan itxasoan ibili ta kai auetakoren batera sartzean, irabazitako diru pizarrak ordu batzuetan ondatzen zituzten, mutil zaarrak batez ere. Or konpon! Oiek beren buruak bakarrak galduko zituzten.

Orregatik, kapitanak, bera oien antzera ibiliko bazan ere, mutilla arraixku aietatik berexteko alegiñak egin nai zituen.

Egun batzuetan Londres geiena ikusi zuen, baiña bakarrik. Alare, etzan bein batean ere nora etzekiela geratu. Kalez kale ura ala ikusirik, euli txuriren batzuk urbildu zitzaizkion. Baiña izkuntza ura ezagutzen etzuen aitzakitan, iges egiten zien. Bere lagunak, berriz, or ibiliko ziran diruak aitu arte, urrengo saria noiz jasoko itxaroten eta madarikatzen.

Illuntzerako ontzira bilduko zan, urrengo egunean ere beste alderdi bat ikusteko asmoan. Aundia baida Londres.

Ango aurrerapenekin, egun gutxitan ustutu ta bete zuten ontzia.

Kapitanak esan zionez, urrengo txangoa oso luzea ta ederra omen zutela, mundu au ikustera atera zan batentzat: Ego Afrikara, eta armak zeramazkiten.

Sartu ziranean bezela, geldi-geldi atera ziran Londresko kaltetik; eta, gorakoan bezela, bazeukan beerakoan ere zer ikusia.

Itxas zabalera atera ta ordu batzuk igaro zituztenean, etzuten ura besterik ikusten inguru guzian, baiña geldi-geldia.

— Nola ez ote dira auek urean galtzen? — zion berekiko mutillak.

Baiña ekaitz gaizto batek eramanta ezik, etzegen alako arraixkurik. Kapitanak eta lemazaiñak bazekiten nondik nora zijoazen. Ordurako aurrerapenak baizituzten.

Ontzian zeramaten, antziña-antziñatik itxas gizonak beren txangoan zuzentzen zituen brujula edo itxas orratza, erlojuaren antzeko bat. Arek beti iparra erakusten du, eta lutelesti edo jeografiaren

berri dakienak ez dauka itxasoan galtzerik, ekaitz gaiztoaren batek arrapatu ta ez badu ondatzen.

Ori gabe ere, gaurko aurrerapenekin ezin litezke galdu. Antziña artan bai. Jeografiaren berri oso gutxi zekiten. Ez radar eta ez irrati, ondo gizon ausartak ziran aiek. Orduko ontzi kaskar aiekin ekaitz guziak garaituta, emendik Kanada alderaiño euskaldun arrantzaleak nola joaten ziran? Gaur ere galtzen omen dira. Orduan etzan batere arritzekoa, an legorrik bazanik ere etzekitela.

Itxas zabalera erten ziranean, etzuten legorrik ikusten. Ontziaren lau aldeetara eta azpian, ura. Gaiñean, berriz, zerua; eta inguruko muga guzia, goiak eta beak bat egiten zutela, itxita. Goian eguzkia laiñoz estalia. Lemazaiñak etzeukan, bada, ez aurrean eta ez atzean, nora zijoan jakiteko ikusmirarik, iparra erakusten zion orratz ximple ura besterik.

Egunez eguzkiarekin bazuten argia. Arratsean, ozkarbi bazegoen, illargi, baiña au ez beti, eta izarrak.

Gure gaztea, bere egin bearrak betetzean, ontzi gaiñean begi-belarri arriturik joaten zan:

— Zenbateraiñokoa ote da mundu au? Badirudi urak ez daukala neurririk. Ez baita legorrik agertzen.

Lizarraren azpitik ikusten zituen eguzkiaren sarrerak zoragarriak iruditzen zitzaizkion. Orain, itxasoan galdua zebillen ontan, ontziaren gaiñetik ikusten zuena agertzeko ezin zuen itzik somatu.

Ontzia bazijoan bere martxan, ura ebaki ta bi aldeetara zabalduz. Bere otsa besterik etzuten entzuten. Itxaso geldu ta paketsua baizebillen. Ikusi ere ez zeru urdiña ta ura besterik, eta atzetik jarraika zetozkieten tiburoiren batzuk, bada ez bada, ontzitik erortzen zan mokadu goxoren bat arrapatuko ote zuten.

Eguzkia urrun poliki-poliki ezkutatzera zijoan. Ontzia, berriz, intxaur azal galdutakoa, uraren

mende bakar-bakarrik, illunpean geratuko zan, bere barruan bederatzi gizon zeramazkiela. Gora ta zabalera neurririk ez. Azpian, berriz, ia milla metroko itxasoa edo ur putzua, beti ibilian.

Gaua zetorren; illuna gaiñera. Eguzkia urrun geldi-geldi, ia antzik ematen etzitzaiola. ari zan beera ta beera itxasoan sartzen. Joan aiñean bere inguru guzia dizdizka jartzen zuela, sartaldean ezkutatu zan, ontziaren eskubitara. Goizean, berriz, ezkerretara azaldu zitzaien. Ez naiz batere arritzen lengo zaarrak mundua geldirik eta eguzkia zebillela esatea.

Illargiaren mende geratu zan, bada, itxasoa, alako zoragarrizko itxura bat artzen zuela. Ontzia, bidea galdu gabe, bazijoan bere martxan.

Goizean, berriz, sortaldetik, itxasoz azpitik igaro balitz bezela, beste aldetik azalduko zan eguzkia.

Lenengo, argi txinta baten antzera itxasotik ertenda bezela, eta geldi-geldi azitzen-azitzen, zoragarrizko kolorez jantziko zuen itxasoa. Gero ta aundiagotzen joango zan. Alako batean, itxaspetik atera balitz bezela. mutur txiki bat azalduko zitzaion lenengo, benetan argi ta dizdizlaria, urruti nonbait. Jainkoak jakingo zuen non.

Atera zanean, bola gorri baten itxura artu zuen, atzo ezkerro illunpean utzi zituenei agur egiñez.

Jaio zan, bada, egun berria, ia neurri gabeko itxasoan illunpean zebillena argitara azalduz. Utsun ikaragarri artan puntu txiki bat; eta bere barruan, len esan deguna, bederatzi gizon adimena zutenak —oraindik geienak lotan egongo ziran—, aunditasun ta edertasun guzien gaiñetik alegia, itxasoaren indarrak bere onerako batuz, berak nai zutena egiteko.

Itxuraz ezer ez dan gizon orrek bazekien indar ori dena, erreka xiorrak errotara bezela, bere onera-

ko biltzen. Gizonaren almenak ez dauka indar txikia; onerako ta txarrerako, bietakoa.

Baiña nor da gizona, beeko putzu ori asarretzen bazaio? Nora joango da? Galdua geratuko litzake. Alare, bera da errege; eta bein da berriz, asarre edo adiskide, putzu orrek bere bizkarrean ibili bearke du gizona. Eta eguzkiak, nai edo ez, argi egin bearke dio, eta mundu au berotu, ortik datorren zituarekin itxasoan galdua dabillen ar koxkor ori bizi dedin. Ar txiki orren buruak ez du gutxi balio. Gizona bakarra da, gizona errespetatzen ez duena.

Au dena erromes goazenentzat jarritako lekua degu, zorientsu bizi gaitezen. Saritzeko nolakoa ote dauka moldatua?

Munduan ez bazegoen bezela egoten zan Joan Jose begira. Dena zitzaion aundi; dena eder. Ikargarria zala mundua, baiña bai zoragarria ere. Etzigula Jainkoak nolanaiko etxea eman. Baiña aurki gizonarengatik etzuen berdin pentsatuko.

Eunetik larogei ta emeretzik ez dakite bizi geran bola aundi au nolakoa dan. Badirudi zeru-lurrak ez dutela neurrik. Baiña ori dena betetzen duena ere bada norbait. Arek bai ez daukala neurrik.

Txango luze artan ikusten zituen berak bezela zebiltzanak itxasoan, beren tximiniko ke zerrenda aizeak urruneraiño zeramala. Arratsean, berriz, argi puntu bat, zeruko izar baten antzera. An ere joango ziran bakarren batzuk. Baiña garai artan geienak loari emanak.

Kapitana erne zebillen. An azaldu zan, bere katalejo ta guzi.

— Beste ontziren bat ikusi al dezu?

— Bai; urrun oso, eta gudako ontzia. Gu oartu gaituk, baiña bai bera ere noski. Txuxen ta abaillan guregana zetorrek. Baiña ez izutu, orrek arrapatzeko beldurragatik. Lasai sartuko gaituk kaiera.

— Kontrabandoan al gabiltz, bada?

— Ez. Gu legez gabiltzak. Ango jaurlearitzaren izenean zekarkigu, emengoak eskatuta. Baiña guregana datorren orrentzat, etsaiak.

Barrura joan ta ala esan zion lemazaiñari:

— Emaiok martxa guzia. Orain illebeta batzuk gaizki ibili giñun. Gudal ontzi ura bera izango dek noski. Bere indar guziarekin gure aldera zetorrek.

Ordurako Joan Joxek begiz ere ikusten zuen, kataleporik gabe. Baiña alperrik etorriko zan, kaia bistan zeukaten eta.

— Emendik erteeran ere, orrek lanak emango dizkigu.

— Bai; baiña emendik ez diagu armarik eramango.

Atlantiko aldetik Afrika guziari buelta emanta jarraika zetorkion ontziari atzea utziz, Ego Afrikara iritxi ziran, beltzen lurrera alegia. Baiña indarkeriz zuriak agintzen zuten.

Joan Joxek itxasoaren berri zer bait ikasi zuen: mundu guzian berdintsua izango zala. Zoragarria dala benetan sartu zaio buruan. Baiña pakean dagoenean bakarrik dauka ikusia. Ekaitz gaiztoren batek arrapatzean ez du berdin pentsatuko. Ikara-garria dala esango digu orduan.

Urrun geratu zan itxas ontzia. Kaiera sartzera-koan ikusi zuten Joanesburgo Ego Afrikako uriburu eta kaia; an sartu bearko zuten. Urrundik kaia bixtan zeukatela, geldi-geldi urbilduz, sartu ziran, beti bezela orma aundi bati loturik itxas ontzia.

Europako kairik onenaren inbiririk etzeukan arek. Emengoen aurrerapen guziak bazeuzkan. Ingelesen mendekoa izaki ura ere, eta aien lana.

Langilleak arrapazka atera ziran, irabazitako sos pizarrak txautzera noski, itxasoko txangoa luze egi-ten baizitzaien. Txakur amorratuak bezela egoten



ziran beren zikinkerietan murgiltzeko. Baita mozkor ederrak arrapatu ere.

Baiña kapitana etzan atera. Lentxeagotik Joan Joxeri aitortza txiki bat egin zion:

— Sendatzerik ez daukan gaitz gaizto bat zeukat aspaldian emen arrapatua. Etzaidak neri lur ontan ibiltzea komeni. Larritu egiten nauk. Baiña bizi nairik nabillek ni ere, eta ez nauk errira aterako.

Txartel bat eman zion diruarekin batera, sendagilleak agindutako sendagaia ango botika batetik ekartzeko. Pastilla batzuk ziran. Lenago ere zebillen bidean artzen zituala oartua zegoen gaztea.

Ingelesez itzegiten da an, eta arek etzekien. Alare, mutillak txartela erakutsi zion an zebillen bati. Biak elkarrekin farmazi batera joan ta arek erosi zizkion. Arritzekoa al zan ala zebillen agure bati gaixotasun ori etortzea? Baiña ontziko euskaldun batek gero aitortu zionez, bai, egia zala gaixo zegoela; baiña orregatik kalean lasai ibili zitekela. Zurien eta beltzen burruka zebillela, ordea; eta beltzak ondo zekitela armak eraman zituela, eta etsairen batek bere merezia emango zion beldurra zeukala.

Eskura eman zizkion eta berriro errira joan zan. Munduko alderdirik zoragarrienetako batzuk ikusten ari zan, Jainkoak egin da guri emanak. Baiña bai gizonak egindako txarrak ere ugari, batez ere beren zikinkeri ta elkar iltzeak.

Denen aurrean ondradu ta zuzen agertzen ziranak, ezkutuan lapur ta berekoikeriz beteak ikusten zituen, pekatuaren ajola aundi gabe. Jesusek fari-seoei esana etzetorkion gaizki:

— Illobi zurituak kanpotik, eta barrutik ximauzrez beteak!

Kalez kale zebillela, gizon bat urbildu zitzaion, eta ingelesez mintzatu. Baiña gure gazteak etzuen ulertu.

Besteak, ordea, arpegian edo nolabait antz eman zion mutil ura euskalduna ote zan, eta euskeraz itzegin zion. Poztu zan Joan Joxe. Bai atsegiñez erantzun ere.

— Emen ere bizi al dira euskaldunak? —galdetu zion.

— Bai, motell. Ez gaituk asko, baiña munduan zear ederki zabalduak.

Arek erakutsi zizkion ango bazter guziak. Oiar-tzuarra omen zan gizon ura. Justiziaren igesi joana, ango batekin ezkondua zegoela.

— Leku zoragarria dek au, baiña zuzentasun gutxi. Beltzak txabol zikiñetan bizi dituk; eta zuriak, kanpotik etorriak alegia, errege bezela.

Ango berri ederki erakutsi zion beiñepein arek, kalerik kale, biak euskeraz.

Ego Afrikatik naigabetua atera zan, bada. Oiar-tzuarrak kontatu bezela, beltzen lekua zan ura, eta zuriak agintzen zuten indarrez. Auek lekurik one-nak beren gain zeuzkaten. Besteak, berriz, miseri gorrian bizi ziran. Ume beltz batek baiño geiagoak eskupekoa eskatu zioten. Baita pozik eman ere.

Irakiten ari dan eltze bati ez badiozu tapa garaiz kentzen, lertu egingo da eta ondamen gaiztoak eka-ri lezazke. Gure biotzak ere olaxe daude, griña biur-riz gaiñezka. Gizonak arrazoia dauka irrika oien itxu aurreko bezela, nondik joan bear duten bidea erakusteko jarria. Batzuetan aula dagoela, bestee-tan berriz saldu, garaitu egiten zaizkio. Azkenean eltzea bezela lertzen da, eta olako biotz batek nola-ko kalteak ez ditu egiten?

Askatasuna degu Jainkoak emandako doairik ederrenetako bat. Zuzen erabiltzen jakin ezkeru, ai zer nolako pakea munduan! Baiña gaizki ibiltzen badegu, errukarriak gu.

Ortan ere ez du arrazoiak bere eginkizuna betetzen. Saldu egiten da. Askeak egin gaitulako, nolako astakeriak ez ditugu egiten, griña itxu oiek gurea lotzen digutenean! Besterena lotzen asten gera, ta kito. Joan da munduko pakea. Ortatik datoz indarkeri ta guda gaizto guziak, Jainkoak emandako doai ederrak, elkar maitatzeko bearrean, gorrotatzeko dabilzkigu ta.

Joan Joxerentzat Jainkoak bizilekutzat emandako etxea zoragarria zan. Baita guretzat ere. Baiña gizonaren berekoikeriak eransten dion adabaki ori beldurgarria da; eta munduko berri jakin nai duenak, ori ere ikusi egin bear. Saldu egiten baizaigu arrazoiak. Urte pare bat igaro baiño len, bere larruan ederki probatuko du Joan Joxek ori.

## Gudatea

**E**GO Afrikatik atera ta bidean jarri ziraneko, irratiz entzun zuten Europako azken guda odoltsu ura asi zala.

Orra mundukoen berekoikeriak lurreko edertasunari eransten zion adabaki okerra, eriotza ta miseria zekarrena.

Españako elkar iltzea ere alemanak irabazi zuten. Orrekin zerbait arrotu ziran. Aspaldian zebiltzan, bada, ika-mika. Guda atzeratzeagatik, askotan amor eman zioten alemanari bere inguruko laterriak. Ura zapaldu bearrean, etsaia indartzen eta arrotzen.

Guda nai zuen eta leporaiño armatu. Besteak etzuten nai ta etziran armatu. Alemanak sutu zuen, bada, prantzesaren lanak laster egingo zituelakoan.

Lenengo erasotzen duenak badu bere bentaja. Ori, berriz, leporaiño armatua zegoen alemanarentzat izan zan.

Aurreko guda ere berak asi zuen. Prantziari eraso zion. Baiña Alemaniarekin zeukan muga ondo babestua eta etzan ortik jotzera ausartu, eta Beljikiari eskatu zion bidea.

Onek baietz esan zion, baiña armarik gabe pasatzekotan. Bestela ezetz. Bide ori indarrez ireki zuen, baiña egundoko jipoia artu ta gero. Bitartean, lagunak ere preparatu egin ziran.

Poliki-poliki indarrak aituz, bazetozen Paris alde-ra. Beren zepeliñetan zeukaten itxaropena, andik Paris erraustuko zutela. Baiña aundiegiak ziran, eta motelak. Azpitik arrapatzen errezak. Denak ez bazituen galduko, erretiran joan ziran. Oraindik jarraitu zuen, baiña galdua zeukaten guda.

Pariserako bidean sekulako eraso egin zuten. Berdun-en. Bi aldeetan izan zan egundoko sarraskia egiña. Ura artu ezker bereala Parisen zirala uste baizuten alemanak. Besteak beste, lareun milla gudari Babieratarrak, katolikoak, or galdu omen zuten bizia.

Bidea itxita, alemanak eziñean geratu ziran, bada. Bertako enperadore Kaiserrek, bere mende-koak ez bazuten ilko, Olandara iges egin zuen.

Gudate artan kabo xixtrin bat zanak sutu zuen bigarrena. Lenengoa odoltsua ta erruki gabea bazan, etzan bigarrena atzetik geratu. Kabo xixtrin ori poliki-poliki Alemaniako buru izateraiño iritxi zan. Askoren iritziz eroa omen zala. Ori ez dakit, baiña bai benetako gaiztoa.

Alemaniko enda aidatu zuen erriaren aurrean. Munduaren jabe izateko bera zegoela aukeratua, eta ezin zitekela, zegoen bezela, mundura zabaldu. Ortarako, zeuzkan loturak eten bear zituztela. Indarkeri pean artu bai zuten bere lenengo garailleak.

Artu zituztenen ordaiñak emateko eskeiñi ortan babestu zan, bada, beren zabalkunde guzia. Bai asmatu ere. Urte gutxitan irabazi zuen alemanen borondatea, gero larrutik pagatuko bazuten ere. Jainkotzat zeukaten, eta erri askatzaille bezela.

Alemania benetan lotua utzi bazuten ere, laster autsi zituen emandako eragozpen guziak, eta leporai-

ño armatu zan. Len eragozpen estu oiek jarritako irabazleak, ezin zioten galerazi. Ez baizeuden batuak.

Len esan degun Hitlerren leloa etzan besterik: aleman enda zala nagusia eta munduan agintzeko aukeratua. Bitartean, sartutako arantzak atera ta besteari sartu. Erokeri bat alegia, bai, baiña bai erriaren atsegiñekoa.

*Guerra relámpago* deitu zioten ingelesak, gero ez bazan ala gertatu ere; eta, alemanak irabaztezerokoz, ala bearko zuen, azkenerako ia mundu guzia aurka jarri zitzaion ta.

Amaika billera egin zituzten, baiña dena alpe-rririk. Guda nai zuten eta ala etorri zan. “Batek ez badu nai, etzegok okasiorik” askotan entzuna daukat. Ori ez da egi osoa. Orduan ez beiñepein. Batzuk gudaren etsai amorratuak ziran. Besteak, ordea, eraso egin zien, eta auek eutsi egin bear.

Poloniari eraso zion lenengo, eta mundu guzia daldaraka geratu zan. Erri osoak, gizon-emakume zaar ta gazte, erruki izpirik gabe txikitzen zituen aidetik.

Txarak erretzen ari balitz bezela, Poloni gaixoa denbora gutxian pasa zuen alderik alde. Uste zuen, orrekin izututa, mundu guziak atzera egingo zuela. Baiña alemanaren filosofiaren berri bazekiten, eta lenago denak iltzen ilko ziran, aren eskuetan geratu baiño.

Urrengo erasoia Beljikari eman zion, biderik utzi nai etziolako. Olanda eta biak batera zapaldu zituen, Prantziko gaztelu edo *Linea Machinot* Sedango erria atzera utzita igaro zanean.

Urrengo erasoan, Prantzia alderik alde moztu zuen, oni laguntzera etorritako ingelesak, irureun milla gudari, legorrez ertenbiderik gabe utzirik inguratuak. Prantzesak alegiñak jo zituzten. Kate ori mozteko etzuten indarririk izan. Irureun milla

gudari aiek urez atera bear izan zituzten Inghlaterra-ra. Etzan talde txikia, baiña bai lortu ere. Billau asko zegoela Prantzian eta, au galdutzat utzirik, beren aberria zaindu bear zutela lenengo.

Paris bereala erori zan. Endaiaraiño sartu ziran alemanak, eta etziran aurrerago joan, España bere-na zutelako. Alare, ia Prantziaren erdia aske geratu zan Petain-en mende, Hitlerrek ala nai zuelako.

Inghlatterari arro-arro pakea eskeñi zion, baiña bera garaile bezela. Berak nai zuen bezelako pakea alegia.

Erantzuna alamoduzkoa artu zuen: azkeneko gauza zan gudaria bere aberriaren alde erori arte, Inghlatterak bere askatasunari eutsiko ziola.

Sumindua, errea, amorratua geratu zan Hitler; eta aidetik erreko zuela, pakea eskatzen zuen arte, zemai egin zion. Iritxiko ote zuen?

Napoleonek ere egin zituen alegiñak, baiña eziñean geratu zan. “Bi aberrien arteko itxaso ori ordu beteko nere mende geratuko balitz, laster litzake Inghlaterra nerea” —omen zion triste, eziñaren aurrean, Prantzitik ara begira. Baiña tarte ori igarotzeko indarrrik ez.

Hitlerren eskeiñi oparoa aintzakotz artu etzuelako, aidez txikitu ta kiskaltzeko agindu zuen. Orrela, beren paurrika ta Londres erreta, atzeko jendeak izutu ta pakea eskatuko zuela. Baiña onek ere tarte ori igarotzeko indarrrik ez.

Asi zuten eraso ori, egazkin saillak, sabelak beteta, Inghlaterra guzian eriotza ta ondamena ereiñez. Baiña bera ere jipoi ederra artzen ari zan. Uste baiño indar geiago arkitu zuen. Arratsero sei-zazpi egazkin galtzen omen zituela, berritu al zezaketen baiño geiago.

Amorruz, baiña bat ere gabe geratu etzedin, Inghlatterari pakean utzita, beste aldera eraman

zuen guda gaizto ura. Alemanak galdu zuen, bada, Inglaterrako eraso.

Beste eraso gaizto bat itxasoan ari zan. Urpekoak lan ondagarria ari zuten. Au Joan Joxeren ontziarentzat ere arraixku txarrekoa zan.

Inglatera goseak eta miseriz makurtuko zuela koan, janari ta armaz beteak zetozen ontzi asko zijoan urpera.

Bearrak, ordea, begi gorriak omen ditu, eta Inglaterrak *radar* asmatu edo moldatu zuen; eta Alemaniko urpekoak, arro ari ziranak, asko urpera joan ziran. Orduan, geratzen zitzaizkion gaiñerakoak ez galtzekeroz, beren kaietara erretiratu bear izan zituen, itxaso etsaiari libre utziz.

Bi eraso auek irabaztearekin, ortxe garaitu zitzaion Inglatera. Bear zuen guzia Estados Unidos-tik ekartzeko etzeukan eragozpenik.

Gure kapitanak orduan bere ontziko langille guziekin batzar txiki bat egin zuen, nolako arraixkua zuten adieraziz: deskuidatzen baziran, andik aurrera, abisorik eman gabe, urpekoak sututzeko arraixku txarrean gelditzen zirala. Ea zer iruditzen zitzaien.

Iñor etzuen arraixku orrek ikaratu; eta, bat ere berezi gabe, Inglaterrari laguntzekotan geratu ziran.

Baiña lenengo, arraixku ortan sartzerako, Eguberriak gaiñean zirala-ta, beren sendietan igarotzeko asmoak artu zituen kapitanak, beren nagusien aginduz.

Guda gaizto ura zebillela artu zuen kapitanaren eskutitza emazteak: Jainkoak nai bazuen beiñepain, Eguberriak etxean igarotzeko asmoak zituela.

Guda biurri ura beroenean zegoela, eta Inglatera urez ta aidez sekulako jipoia artzen ari zala, tarte ortatik igaro bear zuen. Ausartuko al zan? Egunero ontzi asko zijoazen urpera ta.



Arraixku gaiztoa zegoen, bada, bi etsairen arte-  
tik igaro bear zuen ta. Arjentinatik Bilbaora etor-  
tzea bera ere... Berak zionez, Bilbaorako bidean,  
gariz zamatua, Inglaterrara sartuko zan lenengo.

Alde batetik etziran ingelesak lo egongo. Beste-  
tik, alemanen urpekoak or ibiliko ziran. Zuzen Bil-  
bao aldera bazijoazen, anbat etzuten toporik egingo.  
Baiña Inglaterrara urbiltzen baziran, arraixku txar-  
reko lana.

Aringarri bat bazeukan: Españako ikurriña zera-  
mala; eta, itxuraz beiñepein, bien erdiko edo neu-  
tral bezela azaltzen zala. Baiña denak zekiten Fran-  
co etzala Hitlerren aurtxo bat besterik, Roosevelt-ek  
zionez; eta arek, jakiña, bere aitari lagunduko ziola.

Bere emazteari ausarditsuegia iruditu zitzaion,  
eta etzeukala bera eta bere langilleak zertan arraix-  
katurik. Emazteak naigabez baiña ala idatzi zion:

“Zoratzen geunden zu Eguberrietan etorriko  
ziñalakoan. Baiña obe dezu txango ori beste batera-  
ko utzi, bide oiek aidez ta urez itxiak dauzkazu ta.  
Benetan arraixku txarreko etorrera. Eguneroko  
berriak entzunda, igerriko zenion zenbat ontzi doa-  
zen urpera. Beldur giñan zuek ere ez ote ziñaten  
tarte ortan sartuak izango. Baiña benetan pozten  
gera eskutitz orren bitartez bizi zeratela ikasi degu-  
nean. Goraintziak biotz-biotzez, nere ta Lutxiren  
aldetik, zuri ta Joan Joxeri”.

Kapitanak artu zuen eskutitz ori; eta bere mutil  
zeukanarekin etzeukan ezkaturik eta ala esan zion:

— Nere emazte ta alaba Lutxik goraintziak bial-  
tzen dizkitek iretzako, eta gu noiz joango geran zai  
daudela.

— Idazten badiezu, ordaiñez bederen biali nere-  
ak ere. Neri ez baididate on besterik egin.

— Eguberrietarako an izango giñala esan nie-  
ken, eta arraixku txarreko bidea dagoela ta mese-

dez atzeratzeko eskatzen zidatek. Bazekik, bada, arek nere berri: bein itza eman ezkerro, ez dedala atzerarik egingo.

— Ontziak eramaten bagaitu, gu ere joan egingo gera. Urte bete etxeokoak ikusi gabe, luze egiten zait neri ere.

— Orduan, langille guziak ala nai dezuten ezkerro, joan egingo gaituk.

— Ni baiño geiago ikusi ta ikasia zera zu. Ez dizut ez bai ta ezetzik esango. Kapitan zeran ezkerro, zure eginkizuna da.

— Berriro ere lengoa esango dit: joan egingo gaituk.

— Bidean uzten badigute, ori.

— Bai. Arraixku txarrekoa dala bazeramat naiko beldurra. Kontatzen diguten ainbeste ontzi urpera badoa, itxaso ortan ez dek atsegin egongo.

## Etsai artean

**N**EGARRA ta odol ixurtze ikaragarria ari zuen gudak Europa alde guzian.

Alemanak jardun ziran lenengo Ingalterra txikitu ta txikitu. Au, berriz, al zuen bezela ta al zuenarekin, erasoari eusten. Baiña alemana aultzen ari zan. Bitartean, Ipar Amerikako laguntzarekin etsaia indartzen. Kukuak oker jo zion. Ingalterrak eraso irabazi zuen. Orain ordaiñak ematen ari zitzaion. Baiña itxasoan ikaragarrizko txikizioa egiten ari zan alemana.

Etxean etzuten, bada, aita etortzera ausartuko zanik uste.

Eragozpen guzien gaiñetik joatea erabaki zuen, bada, inpernu artan ez bazuten ondoratzen, naiz emazteak atzeratzea nai izan.

Londresen izan zanean, Eguberrietarako ontzia bete gari ekarriko ziela itza emana zeukan. Ingalterran, berriz, pozik artuko zutela alako zama, gudan zebiltzala gaiñera. Ia bost milla toneladatik gorago ko gari pilla etzala gaizki etorriko.

Ontzia bete baiño len etzegoen seguru, ta Inglaterrako kontsul batekin itzezin zuen Arjentinan, nola Eguberrietarako gari zama bat Londresera eramateko itza emana zeukan.

Zebiltzan estuasunean etzitzaiela gaizki etorriko. Baiña Londres sartzea eziña izango zuela. Alemaniko urpekoak inguru ura zaindua edukiko zutela; baiña atzeragoko beste edozein kaietan sartzeko etzuela alako arraixkurik izango. Berak aurretik abiso txiki bat bialiko zuela zer garaitsutan azalduko zan; baiña urpeko oiek oraindik indar aundia zeukatela.

Oso ondo iruditu zitzaion. Ontzia leporaiño gariz bete zioten. Inglaterran ustu ta andik Bilbaora zebatsu denbora bearko zuen kontuak aterata, jarri zan bidean ausarditsu.

Langille batzuk, len baietza emanak, beldurtu ta atzera egin nai zuten. Baiña kapitanak ala esan zien:

— Nai duena gera dedilla. Baiña bakarrik aterako banaiz ere, bidean galdu edo Eguberriak etxean igaroko dizkit.

Kapitanaren ausardiak berotu zituen beldurrak zeudenak ere, eta goiz batean Arjentina agurtuz atera ziran.

Europako uretara arte lasai zetozen. Etzeukaten alako arraixkurik. Baiña bein Ingalterra ingurura urbildu ziranean, begi-belarri erne zetozen langille guziak, non edo non urpeko oietakoren bat azalduko.

Kapitana bera ere erne zebillen, jakiña. Baiña ontzitik eunen bat metrora, ugiñen gaiñean, azaldu ta gorde zebillen txapel aundi bat iruditu zitzaion Joan Joxeri.

— Zerbait ikusi al dek? —galdetu zioten.

— Bai. Ara non dabillen igari txapela dirudien ura —beatzarekin erakutsi zion kapitanari.

— Itxaso arro ta naspil ontan nor ibili litekek?

Kapitanak katalejoak artu ta noizbait ikusi zuen; eta, zearo etsia, ala zion:

— Urdeak aleenak! Arrapatu gaitzitek! Gureak egin dik! Urpekoa zetorrek or. Arrazoi zin nere emazteak. Errezatzen dakienak egin dezala. Aurki gaituk ur otz auetan arraien janari. Eun metro baiño urrerago zeukagu urpekoa.

— Ez det uste galduko geranik —erantzun zion telegrafistak—. Ez dute Españako bandera dakarrenik urpera botatzeko agindurik.

Ortxe, berrogei ta amarren bat metrora, geldigeldi, buru aundi baten antzekoa gainera atera zan. Ordurako ezagutu zuten etsaiak zetorren ontzia nongoa zan. Bestela, lenagotik sutuko zioten bada ez bada, armatuak etorri zitezke ta. Altabozarekin ala galdetu zien:

— Nora zoazte?

— Txuxenean Bilbaora —erantzun zioten.

— Eta zer daramazute?

— Arjentinako garia.

— Artu ezkerrera eta ustu ori Prantziko olako kaian.

— Oraintxe porrot eginda geratuko gaituk. Etzigutek xentimorik ordainduko.

Etzegoen kontra egiterik. Ixil-ixilik, arek erakutsitako bidea artu zuten, Baiña beren ustez biziak salbatu zituzten. Eunen bat metro atzetik jarraika zetorkien urpekoa.

Inglaterrako radarrak artu zuen, ordea, ori; eta bereala an azaldu ziran bi egazkin, tximistak egiñez.

Urpekoa presaka asi zan ezkutatu nairik. Bai urpera sartu ere, baiña goikoak non zebillen ikusi ta gero. Bota zizkioten ortarako egindako bonbak, eta erdiz-erdi asmatu zuten. Koipe mantxa batzuk

azaldu ziran gaiñera, ta kito. Azken juizioko deia artu arte an geratuko ziran.

Ontziak buelta eman da Inglaterrako bidea artu zuen.

— Esan gentzakek gaur jaio generala —zion zorientso kapitanak—. Azkenean gurearekin aterako gaituk.

Egazkiñak abaillan ezkutatu ziran andik.

— Eskerrak oiei. Bestela, jipoi ederra emango ziguteken.

Bide galtze pixar bat egin zuten, baiña etzien ajolik, berenarekin atera ziranean.

Zijoazela, beste egazkin bat azaldu zitzaien. Katalejoarekin begiratu zion kapitanak. Baita eza-gutu ere.

— Ez beldurtu. Au laguna diagu —esan zien.

Norako bidea artzen zuten ikustera aterea izango zan noski ura; eta, kaian sartu ziran arte, etzitu-  
tuen bixtatik galdu.

Garia ustu, ikatzez bete ta zorientso, lasai-lasai, sartu ziran Bilbaoko kaiera, Eguberri alai batzuk igarotzeko asmoan. Kaska gogorra zan orratik kapitana. Joan Joxe ere etzan asarre.

Bereak gutxiena uste zutenean azaldu zan kapitana, bere umore onarekin, txistuka, ezer gertatu ez balitz bezela. Erotzat jo zuten noski bere emazte eta alabak, baiña maitasunez artu, arraixku oiek igaro ta osasuntsu sartu zanean.

— Arraixku oien artetik nola ausartu zera?

— Maitasuna itxua da, ta ez du arraixkurik ikusten. Zuek ere, gu etorriarekin, ez al dituzute Eguberri atsegiñagoak igaroko? Orregatik egin det au. Urte guzian berex eta jai auek ere ala bear al ditugu? Ni azaltzen ez naizen Eguberri aietan ez da atsegin izango.

— Ori ala da noski, eta eskertzen dizugu guri diguzun maitasuna. Baiña or nonbait urpera erori baziñate?

— Arraixku ori joan zan. Zertan gogoratu? Atsegiñez ospa ditzagun jai auek, Jainkoak eskeintzen dizkigun bitartean. Nork daki ez ote ditugun azkeneoak izango? Baiña ark nai dezala beste asko atzetik edukitzea.

## Eguberriak

**K**RISTAU errietan Eguberriak zer esan nai duten askok dakigu. Erdi asarre dabiltzanak adiskidetzen dira. Egun oietan, urrun bizi diran seme-alabak ere, al badute beiñepein, beren gurasoen erdian igaro nai izaten dituzte Eguberri jaiak. Kapitanaren etxean ere etzan gutxiago izango.

Gabon aparitan gure Anbrosiok etzuen beste izketarik: Joan Joxe gora ta Joan Joxe beera. Emazteak ere laguntzen zion. Alabaren biotzean arekiko maitasuna itsatsi nai zuten.

Egundoko goratarrea egin zion, bada, mutil mazalari, bere emazte ta alabaren aurrean. Au, berriz, naiko siniskaitz.

Kapitanak zionez, ura bezelako mutillik etzegoen Euskal Errian. Berak jakingo zuen zergatik ari zan ainbesteraiño.

— Obe, obe orduan, aita, bat atsegin zaizuna billatu dezunean. Ikusiko degu datozen Eguberrietan orrela mintzatzan zeran.

— Gaixo samar egondu nintzan, eta zuek ere ez niñuzuten obeto zainduko. Nere purrustadak pazien-



tzi osoan eraman zituen. Nere eskari guzietan txintxo asko an nuen aldamenean.

— Zure purrustada guziak pazientzi osoan eraman bazituen, mutil ori ez da nolanaikoa. Santutzat aldareetan ere jarri liteke —erantzun zion alabak.

— Eguzkitara atera ta maitasunez besotik artuz, ara-onera egurasten ibiltzen niñun; eta ni zoriontsu.

Aingeru baten maillaraiño jaso zuen Joan Joxe. Esan bezela, bere alaba bakarrarentzat nai zuen uraxe. Orregatik mintzatu zan ala. Neskari biotzera sartu nai zion mutillaren maitasuna.

— Baiña, aita! Kargatu ta tira, beti gauza bera-ekin ari zera. Nik ez diot ezer kentzen mutil orri. Gazte sasoiko ta osasuntsua dirudi. Gorputz ederrekoa. Edozein neskatxaren begiak aseko litukena. Gazte ortaz orixe bakarrik dakit. Ni ez naiz barrurago sartu. Ori, berriz, axalekoa da.

— Nik bai, ordea, Lutxi.

— Zuk bezela gurean egun batzuk igaro ta beti kanpoan dabillen batekin, gaurko egunean nor ezkonduko da, noiz edo noiz berri txarren bat entzungo degun beldurrak urduri bizi gera ta? Mutil ederra dala ez dizut ukatuko. Len ere esan dizut. Ori da ikusten detana. Baiña bere oitura ta griñen berri nik ezer ere ez dakit. Agian zu bezelako egoskorren bat izan liteke.

— Egoskorra naizela bazekiñat. Baiña gizonak aiurri sendoa bear din eduki, bere eskubidea zaintzeko. Ori senar batean ez den akatsa. Emakumeak ere, bere goxotasun guzien aurrean, jantzi bear dizkin iñoizka galtzak.

— Ori da. Zu egoskor zaudenean ama ala jarriko balitz, zer gertatuko litzake?

— Utziogun orri. Ire atzetik noiznai emen degun marrokiar orrek alako amar balio din mutil orrek.

— Oraintxe ulertzen dizut, aita, zergatik ari zeran orrela.

— Marrokiar orren beldurragatik usteko den?

— Ni orrekin maiteminduko ote naizen beldurak edo kezketan beñepein.

— Baldinbetan, Lutxi, ogei ta bi urteren alde kentzen din, da belarriraiño etzain irixten. Orren lagun parregarria ez al den aukeratuko!

— Aita, eman neri epea, ezagutu arte. Edozeiñentzat aiñako mutilla bada ori. Baiña bere griñen berri ez dakit. Orduan ere, arek ez badu nai, alpe-rrik gabiltz.

Ia otordu guzietan sortzen zuten eztabaida au. Beste gaiñerakoan, oso artu-eman gutxi zeukan kapitanak bere emazte ta alabarekin. Zumar aundi aren azpian egongo zan giro onetan, bere pipa errez, ukuilluan dagoen idi zaarra bezela ausnarrean.

## Joan Joxe

**G**AZTEAK etekin ohea aterako zien Eguberriei. Alde batera gaztea zan, eta etxetik kanpo urte bete artan ibilia. Gurasoak ere bizi zituen. Kapitanaren egoskorkeriei eskerrak, etxean bereen artean igaroko zituen jai aiek. Baziteken anai zaa-renak enbidoren batzuk egitea. Baiña ura bakarrik izango zan. Besteak, batez ere gurasoak, alde aterako zitzaizkion.

Atean jo zuenean, txakurra zaunkaka. Baiña lenengo deian etzitzaion iñor azaldu. Arritzekoa zan ori. Berriro deitu zuen; eta, txakur zaunkak aizkautua, koiñata atera zitzaion.

— Jainkoak arratsalde on, Karmen.

— Baita zuri ere, Joan Joxe. Mutil bikaiña zatoz. Atoz, atoz barrura.

Eta, oitu bezela, etzan musurik palta.

— Ez al daukazute lapurren beldurrik edo?

— Txakurrak laster nabaitu zaitu orratik. Izan ere, senarra ta bi kuiñadoak lanetik oraindik ez dira etorri. Aita, berriz, azokara joana da. Ama ta ni besterik ez gaude etxean; eta, biar plazara eramate-

ko, biok ganbaran gauzak aukeratzen ari giñan. Zerbait artuko zenduke noski?

— Ez, Karmen, ez. Ezin ariko gera beti jaten. Ama ere ganbaran izango da.

— Bai, bai. Kinke txar baten argira biarko berexketa egiten.

— Lanik ez galerazteko, ara joango naiz ni ere.

Amak oraindik belarri erneak zeuzkan; eta, ganbarako zurubi estuan gora norbait nabaitu zuenean, antz eman zion seme gazteena izango zala. Bai asmatu ere. Besarkada batean lotu ziran ama-semeak.

— Emen geratzekotan etorriko intzan noski?

— Eguberri ta Urteberriak igaro artean bai.

Ama-erraiñak, kinke aul baten argira, an ari ziran. Osto txiki artean jarriak zeuzkaten urtebi ta beste gorde-sagar geiago. Ukuiturik bazegoan, etxerako. Besteak, berriz, saltzeko.

Mizpira mordoska bat ere bazeukaten, osto txikitán ura ere. Ustel biguñ goxo askoak, banakabanaka berexiak, saski txiki bat bete.

Ori gure etxekoandreen oitura, ea orrela xox batzuk artzen ote dituzten.

Intxaur ta urrak ere bazeuzkaten gordeak. Gabonetan aterako zituzten apaltzerakoan. Oitura oiek danak galdu ziran betiko.

Amak ala eraso zion:

— Beltza etorri aiz, motell. Itxuraz beiñepein, osasun bikaiña dakark, ez gizen ta ez argal.

— Urte guzian eztul txar bat ere ez det eduki.

— Eguberriak gurekin pasatzeko asmoan etorriko intzan noski. Leku paltarik etzegok, gela berri bat bazeukagu ta.

— Ametitzen banauzute, pozik. Len ere esan dizut asmo ortan etorri naizela.

— Ori esatea ere!...

Aitak eta anaiak ere, denak ondo artu zuten, beso zabalik.

Etzan etxekoentzat aztu. Denentzat zerbait oroi-garri ekarri zuen. Bere ustez, bakoitzari gogozkoena. Batez ere aitari, benetako grazia egin zion. Tarteka pipatik erretzeko oitura zeukan, eta billatu zuen estraiñoena ekarri zion Ego Afrika alde ortatik.

— Eskerrik asko, motell. Oroitzea ere ez dek gutxi egin. Auek xox batzuk balioko dizkitek noski.

— Urte guzian ia beste kasturik ez det egiten ta...

Joan zanean etzegoen illobatxo bat ere arkitu zuen. Seaskan zeukaten oraindik, jaio berri samarra.

Lenengo agurrak egin ondoren, aita etorri zanean, barrutiak ikustera joan ziran.

— Utzi dezaiegun emakumeei aparia jartzen, naiko lana bazeukatek eta.

— Norbaitek lana egiten du emen —esan zuen semeak.

— Nik geiena noski. Urrengo, ire koiñatak. Pintatu ta takoi luzeetan ikusi genduenean, gaizki epaitu genin. Semetxo eder bat ere badik, jaio berri samarra.

— Ikusi det seaskan.

— Bere aita lanera zebillek. Baiña ordu askeetan lotzen zaiok emen ere lanari, bere emazteak zirikatzen baitu.

— Eta beste bi anaiak non dabilta?

— Biak egun berean ezkondu itun, eta etxe ontako pakea. I bakarra ago ezkongai. Noiz arte? Ori erorren gain zegok.

— Ez dakit. Nere nagusiak alaba bakarra dauka, eta dotorea, bere ama bezelaxe. Aizpak dirudite biak. Kapitana, berriz, zakartua ta ondatua dago,

nere iritzian. Zearo errea, emakume abots katarra-  
tu batekin. Benetan gaixo dabil, lotarako ere pastil-  
llak artzen ditu ta. Ederki zaindua daukate bi ema-  
kumeen artean. Baiña “nere semea” deitzen dit  
neri. Bere asmoak ibiliko ditu. Agian sendatzerik ez  
daukan gaitzak josia dago, eta osasun billa ibiliko  
dira. Nik, beiñepein, ez det ezkontzerik pentsatzen.  
Ez daukat oraindik olako asmorik. Mundu guzia  
ikusiz, bakarrik zaartu nai nuke. Etzait lotuta bizi-  
tzeko gogorik egiten.

— Ori, Joan Joxe, zailla dek betetzen. Gutxiena  
uste dekan orduan geratuko aiz lotua. Maitasuna  
olakoxea dek.

Amabostaldi bat zoragarria igaro zuen bereen  
artean. Ibillera guziak kontatu arazi zizkieten. Bai  
arretaz entzun ere. Baserri artan Euskal Erritik  
atera gabeko jendea bizi baizan.

— Olakoa bada mundu ori, baserria utzi ta  
baniak ni ere —esan zion aitak.

— Oraindik ona besterik ez det ikusi. Ea txarra-  
goak ere gertatzen zaizkidan. Mundu au ederra da,  
baiña bertako biztanleekin erne.

Lizar xaarrari ere egin zion bere agurra. Ordura  
arte, egindako ametsak ondo bete ziran. Baiña  
negua zan ta triste zegoen gaixoa, larru gorririk,  
besoak gora jaso, udazkenak kendu zizkion apain-  
garriak eskatuz. Bera ibili zan leku aiek zoragarriak  
ziran. Alare, lizarpe artan bezelako pakerik etzuen  
iñon ere arkitu. Indarkeria denean. Etzuen bere  
azpian ametsetan aritzen lanik izan, negua zalako.

Bazekien itxas ontzia zamatua zegoela, eta artu  
zuen nagusiaren deia: joateko azkeneko egunak  
aien artean pasatzera.

Kapitanaren asmoak nolakoak ziran bazekien,  
eta ama-alabeenak ere bai noski. Baiña ezin ukatu.  
Bestela, anbat zakartuko zitzaion. Ezagutzen zute-

nak ziotenez, aldarterik gaiztoenetakoak izaten omen zituela.

Naigabez utzi zuen bere gurasoen aldamera. Beste leku geiago ere ederrak eta atsegiñak baziran mundu zabalean. Baiña bere urterik alaiena igaro zituen baserri txulo ura bezelakorik etzuen arkitu.

Batere lotsik gabe, eta iñork arpegira arrazoi txar bat botatzeko beldurrik gabe, ainbeste ta geiago egin zuen arek baserriaren etorkizunerako. Ta berritu ta dotoretua arkitu zuen etxea.

Oraindik mundu geiago ikusi bear zuen. Asperzen zanean, geratuko zan. Baiña noiz? Baziteken, bere gurasoak bezela, kabi goxo bat sortzea. Oraindik beiñepein gaztea zan; eta, munduko zurrunbullo ori geiago ikusi nairik, itxasorako bidea artu zuen.

Kapitanaren asmoak, berriz, nolakoak ziran bazekien: bere alaba bakarria eman nai ziola. Mutillaren pintasunak txundituta utzi baizuen. Baiña ortarako otza zegoen Joan Joxe. Marrokiarrak beldur gaiztoa sortzen zion gaiñera.

— Mutil eder, gozo ta langilleagorik ez degu Euskal Erri guzian arkituko —esaten zion alabari, artaz mintzatzen asten zanean.

Baiña alabak etzion noski den-dena sinistuko.

## Baitua

**I**GAZ bezela, astelenean aterako ziran; eta aurreko asteartean etorri zan mutilla egun ale aiek kapitanaren etxean pasatzera.

Lengo urtean bezela, kapitana bere oe sarean eta erdi etzana pipa errez arkitu zuen. Joandakoak ausnartuz eta aurten nondik barrena ibili bearko zuen ere bai, kontuak ateratzen agian.

— Jainkoak egun on, Ambrosio —agurtu zuen mutillak—. Ori da gizonaren patxara.

— Baita iri ere, seme. Egun ale auek atsegiñez ez igarotzezkeroz, urte guzian gure lan egiteak ez dik asko balio. Larriak laster etorriko zaizkiguk. Amets gaiztoak egin dizkit egun auetan: denak lapurrak arrapatu gaituztela eta ik bakarrak egin dekala iges.

— Eta zuk ere ametsetan sinisten al dezu?

— Ez. Ori sinistuko banu, ez niñuke itxasora aterako. Baiña olakoa dek egin detan ametsa. Zer nai uke esatea?

— Eta nola iges egin bearko nuke, igari ere ez dakit eta?

— Alako estuasunean bearrak indar aundia dik, motell.



— Igaz ez genduen, bada, alakorik izan. Urte atsegiña igaro genduen.

— Memoria galdu al zaik edo? Egazkin ingeles aiek ez baziran azaldu, non geundenen gu orain? Alare, bazirudik gudaren arraixkuak gutxitzen ari dirala. Sekulako jipoia artzen ari dituk alemanak. Radar edo asmakizun orren iges, azeriak beren txulora bezela joan dituk bizirik geratu diranak.

— Ordaiñak artzen asi dira orduan.

— Oraindik asi besterik ez dituk egin. Etxekoak zer moduz arkitu dituk?

— Nik uste nuen baiño obeto. Koiñata ezkondu zanean, baserrirako piñegia zala-ta, gurasoak gaizki esaka somatu nituen. Baiña, zorionez, etzuten asmatu. Urrea balio duen emakumea omen da.

— Ezkontzen diranak ortan asmatzen badute, etorri litezken estuasunetan lagun piñagorik ez ditek arkituko lurrean.

— Ori da esatea. Zu, berriz, aien iges zabiltza, zumarpe ontan bakar-bakarrik.

— Aizak: arrazoi pixar bat badaukak ortan. Baiña egun guzian ez aute begien aurretik galtzen, da nik ere askatasuna maite dit.

— Garbi esango dizut: baitua zauzkatela iruditzen zait.

— Olako zerbait badek, baiña maitagarriak dituk.

— Ori ez dizut ukatuko.

Zutitu zan, bada, kapitana, ta:

— Goazemak etxera. Gure bi atsoak etortzeko aizela bazekitek eta maitasunez artu naiko aute.

Kapitanak etzuen arrazoiaren paltarik: arrera ondo preparatua zeukaten. Orrekin zeren billa ote zebiltzan? Sartzen ikusi zuteneko, bi emakumeak irriparrez urbildu zitzaizkion.

— Ongi etorria gure etxera, Joan Joxe.

Eta elkarren leian musuka artu zuten. Ori etzan arritzekoa. Gorritu zan pixar bat Joan Joxeren arpegia.

— Ongi arkituak —erantzun zien—. Ni azukre koxkor bat ote naiz, bada?

— Guretzat, ala baziña bezela. Aitari egiñak guretzat artzen ditugu.

Eta algaraz par egin zuten.

— Eta orrek dan baiño geiago kontatzen badizute? Alare, ori da nere egitekoa. Ez nintzan, bada, ortara joan?

— Bai. Ori dala zure lana ez dizugu ukatuko. Baiña alde ederra dago askotan egin bearrak betetzetik betetzera.

Jauntxo bat bezela zaindu zuten ama-alabak. Ori nai zuen, berriz, kapitanak. Baiña benetan baitua zeukaten. Zebillen leku guzietan, beti bietan bat azaltzen zitzaion aurrera; eta ondo begiratu bear, ama edo alaba, bietan nor zan.

— Alde ederra dagoela bialitako marrokiar artatik onenera.

— Bai. Gorputzez ere besterik da au: euskalduna, gaztea. Lotsatua dabil. Egiten diogun guzia eskertzen digu. Dena geiegia iruditzen zaio. Ura, berriz, ezerk etzuen asetzen. Zenbat urte dituzu? —galdetu zion amak.

— Ogei urte oraindik betetzeko.

— Arek, berriz, berrogeitik gora.

Kapitanak, berriz, onela esan zion:

— Joan Joxe, ondo geundeken gu emen. Baiña joan egin bear diagu gure itxas ontzi ortara. Esan litekek an bizitzen generala. Arratsalde ontan lagunak bixitatuko dizkiagu. Gure itxas ontzi ori egunetan

zamatua zeukagu. Biar goizean aterako gaituk. Azkeneko bixita izan litekek.

— Ez olakorik esan. Ezta pentsatu ere! —erantzun zioten ama-alabak—. Beti olako beazun tantaren batzuk ixuritzen dizkiguzu gure zorion eta atsegiñak mikazteko. Zuek daukazuten osasunarekin gaiñera!

— Dana dala, barkatu. Baiña litekena da, nonai gabiltzala ere. Eta itxasoan, berriz, zer esanik ez, inpernuko guda orrekin.

Naigabe pixar bat somatu zuen andik ateratzekoan Joan Joxek. Zergatik ote zan ori? Sartzen ari ote zitzaion zerbait? Eta etzuen olakorik nai. Bestela, nola beteko zituen mundu au ikusteko egin zituen ametsak?

Mundu ontako kai guzietan sartuagatik, erdizka ezagutuko zuen, barrurago ez bazan joaten. Etzijoan alare oraindik gaizki. Kai aundi oietako eragiña beldurgarria zan. Munduko enda guziak orrera biltzen baiziran. Inongo jenderik txarren, maltzur ta billauenak kai aundi oietan bizi ziran.

— Oraingoan, emengo guda onen iges, lenengo ibilaldian Afrika inguru orri emango ziogu buelta txiki bat. Ontzi onen jabeak ala agindu ziguk. Alare, Ameriketa inguru oiek ikusi gabe ez gaituk geratuko. Oraindik, beiñepein, Asia alde ortara ez gaituk joango.

— Bejondeizula! Orrela munduari buelta eman-go diogu.

— Ez. Len esan ditzen Asia alde ori ikusi gabe ez; eta arrigarrienak oiek dituk.

Atera ziran etxetik, eta geratzen ziranen begietan malkoak ikusi zituzten, batez ere amaren begietan. Onek etzuen itxasoko lan ori oso maitea.

— Zergatik ez ote du uzten lantegi ori, eta lego-orean billatu ohea?

# Kapitanaren aitormenak

**B**EREBILLAN jetxi zituzten beren trasteak, eta ontzira sartu. Langille batzuk ere an zeuden ordurako.

Parrandaz aspertuak etzeuden, baiña patrikak uts. Ekarri zituzten xox pizarrak aspaldi txautu zituzten, eta ontziko martxari begiratu bear.

Aiekin itz batzuk egin ondoren, zeramaten guzia bere lekuan utzita, kapitanak bere mutillarekin errira joan zan, aspaldian agurtu gabeko adiskideak bazituela an ta aiek ikustera.

Asko zituen. Bere gazte denbora aien artean igaro baizuen. Banaka-banaka denak agurtuz, eta bakoitzarekin bere itzalditxo egiñik, bereala igaro zitzaien arratsaldea, eta illuntzerako ontzira. Ara sartzerakoan, ala esan zion mutillari:

— Adiskide asko zeuzkat munduan zear, eta erri ontan zer esanik ez. Batzuei agur egin ziet, baiña ez denei. Beste kaltetara joaten naizenean ere, saiatzen nauk agurtzen an ere. Baiña ez denak. Batzuk urruti samar bizi diranak dituk, eta ortarako denbora gutxi. Emen bati agur egitea ez bazait aztu

ere, urruti bizi dek eta, aurtengoz beiñepein, ala bearko dik. Urrengo etorreran itzegingo diagu.

— Izan ere, ainbeste izango dituzu ta...

— Bai. Baiña bat garai batean nerekin asko ibilia.

— Orain ez daukazu astirik noski.

— Ez. Egun osoa bearko nitek.

— Eta non bizi da ori?

— Emendik urruti: ire etxean. Len ere esan dit: ire aita dek ori. Elkarrekin urte batzuetan lanean jardunak, parranda ederrak egiñak ere bai. Alare, Euskal Erriko mendirik geienak zapaldu genizkin. Lareun metroz gorakorik ez dek izango, gu aren tontorrera igo ta aren gaiñean gosaldu, bazkaldu edo azkaldu gabekorik. Olakoxeak giñun gu gaztetan. Nik orduan ez neukaken oraingo gilbor aundi au. Ez katarroz jositako emakume abots aul au ere. Ez nauk gizon aundia, baiña bai indartsua. Batek baiño geiagok bazekitek orren berri. Orain goazen leku ortan arrapatu nuen gaitz batek ontaratu niokeen. Askok usteko ditek zikinkerietan errea nagoe-la. Baiña ori ez da egia. Kaiera irixten geranean, ni adiskideak ikustera joaten nauk. Ez, beste langille oiek bezela, zikinkerietan beren xox pixarrak txautzera. Iri ere aolku bera ematen dit: abil beti garbi. Aita, orain ire ama dan orrekin joaten uan. Neska gazte bikaiña eta ibilkaria. Ez uan mendi oietan ura gure atzetik geratuko. Enioken egundo entzun: "Nekatu naiz. Ez al degu gaurko naikoa?" Ez, jauna. Noranaiko beti prest. Beti konten eta alai. Etzekit orain nola egongo dan. Makiña bat urte joan dituk geroztiik.

— Ez. Ama, dauzkan urteetarako, zaulia ta bikaiña dago.

— Itxasoa bezin ederra dek mendia, mundu au ezagutzeko. Nik ere banin beste bat nere andregaia, ez oiek baiño motelagoa. Ura maite nuen aiña ezin

nezake beste bat maite. Baiña uste gabeko gaitz batek arrapatu ta eramán zidáken betiko mundu ontatik. Ainbesteraíño sentitu nin aren eriotza, etzekit dena utzi ta nola ez nintzan konbentu batean sartu. Ez dit uste asko galduko nuenik. Ire aita ezkondu uan, eta baserriko lan neketsuari lotu zitzaíoken. Alare, etzin bere lantegia utzi. Oraindik ara ibiliko dek?

— Ez. Geratu zan. Bestela, nik oraindik base-  
rrian jardun bearko nuen.

— Oraindik gaztea dek, bada, ura.

— Bai. Baiña lan eskasia; eta, ura uzteagatik, diru puska bat jaso zuen ta...

— Nik, orduan, mundu oni legorra ikusi niola ta itxas zabal ta kai alde auek ikusteko erabakia artu nin. Nolakoak ziran oiek, astindu bat eman. Berdin nere lantegian etzegoken pulamentu aundirik. Uste gabeán nere andregai maitagarri ura galduak zapaldua utzi nióken; eta, beste aideak agurtuz, nere naigabeak aztutzeko atera niñun itxasora. I orain bezela, langille sartu niñun; eta, urte batzuen buruan, eskola puska bat banuela ta ontzi onen jabeak bertako kapitán izendatu nióteken. Orduan, il zitzaidanaren aizparekin ezkondu niñun. Amabi bat urte zizkin onek, ura il zanean. Emeretzi urteren aldea zeukagu senar-emazteak. Gu mendira joaten ikusita, berari uzten etziotelako amaika naigabe igaró.

— Berdintsu nator ni ere. Baiña zuk bezelako askatasunik ez det eduki Euskal Erriko mendiak zapaltzeko. Jai eta aste, baserriko lanari lotua bizi izan naiz, ama ez besteak lanera zebiltzan eta.

— Bai. Batzuk suerte ohea izaten dítek. Fameli batean ere, nolako gurasoak izaten dítuén, asko esan nai dík.

— Nerea, beiñepein, etzan berealakoan oróitu baserria etzala nere lekua, iru anai baneuzkan aurretik eta.

— Ire aita eta ni ain lagun maiteak izanik, banaketan elkar ikusi diagu. Bazkari edo aparti oparoren batekin ospatu ere bai. Baiña aspaldi ontan aztua bizi niñun. Orain, i nerekin asi aizen ontan, orduko ibillera guziak oroitzen zaizkidak, eta beartua negoken noski arekin itz aspertu bat egitera. Etxera etorri giñanean, asmo ori zebilleken nere buruan. Baiña sutondoko atsegiñean sartu orduko, zearo aztu egin zitzaidaken. Itxasoko berdiña baiño naia-go dit orain mendiko aldapa. Baiña, izan ere, egun gutxirako etortzen gaituk, eta emakume oiek etzigutek etxetik ateratzen uzten.

Joan Joxe entzun da entzun bazegoen ere, ez lasai, bereala antz eman zion kapitanak nolako buruzbideak zebilzkien, eta bere aitarekin zertaz itz egingo zuen ere bai. Baiña berak nai zuenean eta nai zuenarekin izango zan.

Alabak buruauste aundiak ematen zizkion bere aitari. Edo, bestela, marrokiar aren beldurrak zebillen, neskaren biotza irabaziko zuelakoan, edo jaiotzetik ondare gaitzen bat zeukan, ezin sendatu zana, eta mutillak osasuna eramango zuen itxaropenetan ibiliko zan orrela. Ala erantzun zion mutillak:

— Noren mende lanean asi nintzan esan nionean, oroitu zan, bai, aita.

— Urte mordoska batean lagun maiteak giñun ura ta ni. Baiña gure bizimoduan aldaketa egin genduenean, ura batera ta ni bestera joan giñun. Aurrean ikusi ezean, berriz, bizi bearrak eraginda, lengo ibillera ta gaztetako lagun maite guzietaz aztu egiten gaituk. Pozik ikertxo bat egingo niokek, bada, arixe, elkarrekin meriendatuz itz aspertu bat egiteko gure gaztetako ibillera ta jolasak gogoratu. Bein joandakoak berritzen asten geranean, zaartu geran itxura omen dek baiña.

— Datorren urterako utzi bearko dezu, bada, orduan ere aztutzen ez bazera.

— Bai. Ala utzi bearko. Aurten Eguberriak arte nekez bilduko gaituk etxera.

— Bai. Arrazoi dezu. Ordurako amaika atzera-aurrera ibiliko ditugu.

— Bai. Baiña bata bestearen ondoren egunak abaillan ziazik; eta, bein urte batzuk pasa ezkeron, nai baiño lenago. Eguberri jai auetan, beiñepein, atsedentzen jarri orduko, ama-alabak itxasorako zer bear detan galdezka. Urrengoak ere bereala etorriko dituk. Joan ere berdin. Gure mundu ontatik besterako martxa ezin geratua dek, motell, eta arraixku txarreko lanean gabiltzak.

— Oraindik joandako Eguberri miñak ezin uxaturik ari naiz, eta datozenetan pentsatzen dagoeneko?

— Izan ere, gure langilleen birao artean urtea igarota, egun batzuk etxeko maiteekin lanaren kezkarik gabe pasatzea ain goxoa dek. Berriro oien artera sartu bearrak neri ozkia ematen zidak.

Orduan ori ortan geratu zan. Adiskide zaarra zuelako jarri zuen aitzakia. Ori ere baziteken; baiña erdizka noski. Bere buru aundi artan bazebilkien beste asmoren bat, bein baiño geiagotan aipatu ziona, erdi misterioz zirikatuz, baiña ulertzeko moduan. Arazo ori aitarekin konpondu naiko zuen.

Mutilla, ordea, oraindik oso askea zan, eta ala jarraitu naiko zuen. Utzi ari pakean, besteren konponketarik etzuela ontzat artuko ta.

Ontzira sartu ziranean, legea betetzeko bederenik, denak beren ongi etorria eman zioten, eta menpeko jarri zitzaizkion, batzuk arekin oso konten ez bazeuden ere. Egoskor samarra zan mendekoekin. Aldarte gaiztoak ere izaten zituen. Etzan orduan atsegin aren aldamenean.

Baiña etziran urte guziraiko baituak geratuko. Ontzia sartzen zan kaietan, beren erteerak egingo zituzten. Mozkor galantak arrapatu ere bai. Baiña



kapitanak ala arrapatzen zuenari, bere purrustada egin gabe etzion utziko. Aiei, ordea, belarri batetik sartu ta bestetik ateratzen zitzairen.

Illebetetan betiko lagun berak besterik etzituzten ikusiko. Kanpora ateratzean, zer egingo zuten? Irabazi ala kastatu, bai, ta kito.

Joan Joxerengatik ezin zitekean beste ainbeste esan. Ura oraindik gaztea zan, eta kapitanak ondo zaintzen zuen.

Joan dan urtekoak berak ziran, bada, aurtengoak ere. Etzan iñor atera, sartu ain gutxi, mantenua beiñepein seguru zeukaten ta.

Bederatzi ziran guzitara: bost euskaldun kapitanaekin; eta lau, moro edo marrokiarrak. Euskaldunak etzeukaten konfiantza geiegirik aiekin.

## Madagaskar aldera

**A**RRATSA kaian igarota, tutu luze batzuk jo zituen goizean, oitura dan ezkerro; eta, loturak askatuz, poliki-poliki jarri ziran martxan, urruntzen-urruntzen. Agur egin zioten kaiari, eta galdu zuten lurra bixtatik.

Urruti samarrera zijoan, baiña giro zoragarria zegoen. Egun batzuk igaro zituzten, baiña zoriontsuak.

Mediterraneo ta Jibraltarko itxas estua ezkerre-  
ra utzita, Ipar Afrikari buelta emanez, sartu ziran  
noizbait Dakarrera. Arraixku txarreko sarrera, guda  
igaro berria baizan andik.

Kai bikaiña, baiña jende estraiñua. Moro oieta-  
koak geienak. Ez, ordea, beltzak. Arabetar ta moro  
bitarteko naspilla bat.

Nonai ikusten ziran moroen elizak. Ango apaizak,  
berriz, dorre aietatik erriari otoitzerako deika. Mina-  
rete uste det dorre aiek dutela izena. Kargu ori zute-  
nak andik aritzen ziran, bada, erdi kantari, oiuka.

Kai eder arek eta erriak berak ezagun zuten  
europarren lanak zirala. Bertako jendea oraindik

atzeratua bizi zan. Nonai ikusten ziran emakumeak arrastaka, karga karraio.

Joan Joxe an ere jetxi zan erri aundi ura ikustera. Baiña etzuen ango izkuntzarik ulertzen. Prantzesez itzegiten omen zutela orduan beiñepein.

Ondo bizi zan jende asko zebillen. Europarrak izango ziran geienak noski. Bai arlote asko zebiltzanak ere. Alde ona zegoen batetik bestera. Gero matxiñadak izaten omen dira.

Etxera zetorrenerako, oroigarri batzuk erosi zituen. Alare, beretzat ango arrigarrienak, dorre aien gainetik oiuka aritzen ziranak ziran, otoitzera-ko deika, erdi kantari, zebreak benetan.

Beren Jainkoan kristau askok baiño sinismen beroagoa zeukaten, eta eguneroko otoitzari eraspen geiago.

An ustu aldi bat eman zioten ontziari, Beste zer edo zerekin beteta atera ziran andik berriro.

Ez dakit kapitanak ikusi zuen, baiña Joan Joxek bai, aren alabaren atzetik zebillen marrokia-rra, ontzian lanean zebiltzan bere lagun izanekin izketan. Gerora ere askotan ikusiko zuen ura.

Afrika osoari buelta emanik, egoan dagoen ugarte zoragarri batera sartu ziran. Madagaskar zeukan izena. Prantziaren mende bezela zegoen. Alare, an munduko endarik geienak biziko ziran, eta bai abere ta egazti klase ugari ere. Zoragarria omen zala ugarte ura.

An ere gure kapitanak bazituen bere adiskideak, baiña emendik joandakoak, len askotan izana baizan.

Aietako baten berebillan ibili ziran ara-onera kapitana ta Joan Joxe. Gazteak etzuen egundo alako ugarte lilluragarririk ikusi. Beste iñork ere ez noski. An etzegoen klaserik etzan andik kanpora arkituko.

— Bai urte bat pozik igaroko nukela nik emen. Jainkoak eman diguna ondatu besterik ez du gizonak egiten —zion gazteak.

— Urte bete? Au ondo ikustezkeroz bear dek ori. Alare ez uste ondo azterkuko dekanik. Oan lekura oala, emen gauza estraiñu asko azalduko zaik. Igali mota ugari, eta txara eta basoak, mundua egin zanean bezelakoak. Beste lekutan, batez ere European, galdutako asko bizi dituk emen. Beste iñon ez dek olako aukerarik arkituko, an ere len izango itun baiña.

— Auxe leku zoragarria! Baiña utzi ta joan egin bear! —zion naigabez Joan Joxek—. Berriz bein ere ez gera etorriko noski!

— Aizak: ez al daukak ori ire esku?

— Emen geratuta egingo det zure mutil?

— Eztai ondore bezela ator onera.

— Ordurako txalak umea egingo du.

— Ez dek, bada, egundo aukera oberik arkituko.

Joan Joxek, kapitanaren naiak igerriz, ala erantzun zion zer atera erazi:

— Andregairik ez daukat, edukitzeko gogorik ere ez, lekutan geratuko da nere eztai ondorea.

— Orixe baiño lan errezagorik...

— Ni bezela itxasoan dabillenik ez du iñork nai.

— Gure etxean, berriz, pozik artuko iñuteke.

— Bai. Urrutiko ametsak. Oraindik umea naiz ortan pentsatzeko. Nork daki gaiñera egundo ezkonduko naizen ere? Agian urte ontan tiburoien jaki geratuko gera. Eta nere andregaiak ere aberatsa bearko du txango ori egiteko, eta gero emen ille-bete batzuk igarotzeko. Nik ontzi ontan irabazten detanarekin, ez det diru putzu aundirik egingo.

— Ortan arrazoi ematen dit. Kapitan naizen onek ere sari eskasa zeukat. Baiña jan ere emendik egiten diagu. Ez dek milloi baten bearrik. Ontzi

ontan ekarriko ziñuzteket. Jakiña, arako ta onuntzako txangoak beti ontzi zamatuarekin egin bear.

— Ezkonberri gaixoari ai zer nolako tratua eman-go genioken, txakurra baiño goseago bizi diran beste langille auen artean.

— Laster jarriko uke.

— Emaztea baliteke; baiña txakurrak... Ai, kapitán! Badakit nora zoazen zu orain ere. Erosi egin nai al nauzu, erosi?

— Ez, Joan Joxe, ez. Erosi gabe ere, iretzako aiña badek ura.

— Ez dizut ezetzik esango. Maitagarri ta dotorea da. Ni, ordea, oraindik ez nijoa ortik. Inguruka dabil-len txakur zaar arek eramango dizu. Ez du etsiko, eta azkenean alabaren biotza irabazi egingo du.

— Joan Joxe, ago ixilik. Ia ikaragarria esan nin oraintxe. Oroitze utsak ere daldaraka jartzen niok. Olakoren bat gertatu baiño lenago, besteren baten maitasunarekin bete nai nitek aren biotza.

— Entzun zadazu, Anbrosio: zalantza gaizto bat daukat biotzaren ondoraiño sartua.

— Eta nolakoa dek zalantza ori?

— Marrokiarra zure atzetik dabilela, eta ez alabaren eske.

— Ori esateko zertan igertzen diok?

— Bein baiño geiagotan itzezin det nik arekin, eta bere betiko leloa auxe da: “Ez dek orrekin luzaroan iraungo. Deabru guzien jenioa zeukat, eta neri egindako iseken ordaiña eman nai niokek”. “Alaba irabazteko martxa ederra dek ori” erantzun nion. “Aita nastutzeagatik nabillek ni orrela”.

— Ori esan zuela egia al dek? —kapitanak.

— Bai, Anbrosio, bai. Eta Dakarren zure langilleekin izketan ari zala somatu nuen. Tiburoia bezela, ontzi oni jarraika dabil ori.

— Ik ez baidan gogora erazi, etzitzaidaken egundo olakorik bururatuko.

— Madagaskarko edertasunak kontatzen asi gera, ta orra nun bukatzen degun.

Biak ixilik geratu ziran. Pixkana-pixkanaka, gero ta argiago zijoan aurrera kapitana, amua botatzen iaioa, zeren billa zebillen igertzen erreza. Nabarmenegi agertzen zituen bere asmoak. Baiña marrokia-rrarenganako mutillaren zalantzak etzituen aintzaketz artu ere.

Gazteak, berriz, geiago edo obeto ezagutu gabe etzuen amu ori irentsiko. Iñoxente-iñoxente etzan tratu ortan naastuko. Orregatik bere gurasoekin itzegiteko kapitanaren ardura.

Aiek egindako ezkontzarik etzuen onartuko. Gogozkoa bazitzaion, zergatik ez? Baiña bere borondatez. Seguru bazekien etxeratzen ziranean eraso ori gaiñera zetorkiola bi aldeetatik.

Alabak kezka gaiztoak ematen zizkion Anbrosiori.

Kapitanaren zirikadak ontzat artzen etzituelako, aren bereganako onginaia oztuko zala? Or konpon. Bera zan bere buruaren jabe, eta eskeiñi guzi oien gaiñetik ala jardungo zuen.

Berebillan eraman zituen txoperrari eskerrak, txango ederra egin zuten. Etxerako mutillari oroigarri batzuk eman zizkion. Baiña au, txoperra, gaztearen alde zegoen: ezkontzeko arazo ori bakoitzaren egin bearra zala, ta ez gurasoena.

Berriro ontzira bildu ziran. Baiña Joan Joxe nai-gabetua. Antxe ugartean bai pozik egun batzuk pasako lituzkela.

Ordurako ontzia zamatua zeukaten, eta kapitanaren zai zeuden ateratzeko. Unetxo bat ere galdu gabe erten ziran. Anbrosiori ez omen zitzaiola komeni Afrika alde ori.

Madagaskar ugarte zoragarri ura agurtuz, bada, atera ziran. An bertan bizitzeko ere etzan txarra. Baiña osasunerako etzuen ona izan bear, ez.

Gaizki pentsatzen ari zan mutilla. Ainbeste ale-  
gin! Etzuen egokierarik galtzen kapitanak arazo ori  
berritu gabe. Neskaren alde andik-emendik beti  
zirika.

Itxura onak zituen, baiña ez ote zan gaixo egon-  
go? Ura besterik etzuen ezkeru, mutil osasuntsu  
batekin ezkondu ta ondorengoak sanoak izan zite-  
zen, orren atzetik zebilela beraren aita.

Pixka baterako aztu zan arazo ori, eta eguneroko  
lanari eldu zioten. Baiña igertzen zion gazteak, kapi-  
tanaren eskaria aintzakotzaz artzen etzuelako, kope-  
tillun jarri zitzaiola, eta lengo berritxukeriak ixildu  
zirala. Bakoitzak bere astoari egiten omen dio arre.

Geroztik, elkarrekin ibili ziran arte, etzuen aipa-  
tu eta egoskor samar geratu zitzaion.

An artutako zama Dakarren ustu zuten. Gero,  
emen zamatuta, Erdi Ameriketara joan ziran. Txan-  
go polita.

Oraingoan ere ikusi zuen marrokiar ura lagune-  
kin izketan.

## Kontrabandoa

**I**TXAS ontzia zamatu ta erteerakoan, ala esan zion langille batek ixilka belarrira Joan Joxeri:

— Zerekin goazen jakiten badute, gorriak ikustekoak zeuzkagu bidean.

— Urrez zamatuak al giazik, bada?

— Ez dek urrea, baiña gaurko egunerako zenbait aberritan maitegoa. Amerika Erdi ortara joango gaituk noski. Nere ustez, laterri txiki oiek, motell, irakiten zeudek. Polbora ontziak dituk. Indarkeripetik burua jaso nairik, su ematea aski lertzeko. Gazteleraz itzegiten dan erri auek, geienak gogorkeriz indarrez zapalduak bizi dituk, erriko jendearen iritziaren aurka geienetan. Asko edo gutxi, gerrillak ari dituk lanean. Oiek armak nai dizkitek, eta ontzi onen irabazirik aundiena ortatik zetorrek. Baiña bai arraixkua ere. Arrapatuko bagiñuzte, denok aga batetik bukatuko genikek mundu au.

— Orduan orain ere armaz kargatuak giazik. Baiña arritzekoa dek ori: Afrikatik arma karraio, eun urtez atzeratuak bizi dituk eta. Ondo ixilik zeukak ori kapitanak. Zer uste du: besteak aiñean nik ere ez detala erantzungo?



— Baiña guk dakarzkigun arma auek, zaarrak, joan dan guda zikin ortan ibilitakoak, txatarretara bota bearrean, saldu aberri oietan gudan dabilzantzat. Dena ona dek kontrabandoan; gaiñera, ango agintarien aurka dabilzantzat. Aiek arrapatzen bagaituzte, lepoa moztuko zigutek, bi aldiz pentsatzen egon gabe gaiñera. Alde batera ez ditek arrazoiaren paltarik. Bestera, berriz... Etzekit nola epaitu. Zergatik mendekoei etziotek askatasun geiago uzten? Jazarmena ta arraixku txarra alde guzietatik ere. Bitartean, etzigutek pake aundirik utziko.

— Legez badabil, ik dioken bezela, gutxi irabaziko ditek eta...

— Ori dek. Mundu guzia zebillek orrela, errian bertakoak ere. Nork zekik guk zer daramakigun? Eta gure zama au artzen dutenak, ez ote dute garestiago kontrabandoan salduko? Guk, legez eramanta baiño geiago irabaziko diagu. Guri artzen digutenak ere bai. Kontuak atera itzik azkenerako noraiño igoko dan kontrabando onen balioa. Ez diagu lagun urkorik maite. Diruagatik, berriro ere Jesukristo eramango genikek gurutzera.

— Olako arraixkuan lanean jardunta, ez dek, bada, gure soldata asko igotzen.

— Ori beste kontua dek. Emen gabiltzan geienok mutil zaarrak gaituk, eta illa non erori ez daukagunak. Emen bizilekua ta mantenua bazeuzkagu.

— Azkenean, olakoren batean eroriko gaituk.

— Ez nikek ezetzik esango. Gure ontzi au benetan kontrabandotik bizi dek. Askotan esaten diagu. Biziko bagera baita egin bearra. Ortan jarraitu bearra zeukagu. Olako zama bat bere lekura eramatearekin, aurtengo txango eskas guziak ordainduko dizkiagu. Larri asko ibili izan gaituk bein baiño geiagotan. Baiña suerteak lagundu ziguk. Orain goazen leku ori, bada, arraixku txarrekoa dek.

— Arraixkua denontzat dan ezkeru, sariak ere ala bear likek. Etzebilek gure kapitana gu bezin eskaxean.

— Ago ixilik. Kapitanak ori entzuten badik, laster aiz kanpoan. Emen ez ditek eskubide ta zuzentasunik maite.

— Biali? Ez nitek ezer askorik galduko.

— Ez diagu kaian ustuko. Ura ederki zaitua edukiko ditek. Beste arkaitz tarteren batera sartuko gaituk. Iru edo lau leku badizkiagu ortarako. Oso iaioa dek gure makinista, eta kapitanak asko maite duena.

— Or konpon. Nik etzeukat zer ikusirik.

— Saria jasotzean ez; baiña arraixkuan bai.

— Ez nin uste gure kapitana orren kontzientzi beltzeko gizona zanik: bera aberasteagatik, langilleak arraixkuan jarri.

— Kapitana ere, gu bezelaxe, langillea dek. Ontzi onek badik bere nagusia. Arek agintzen diona egin bear. Xentimorik geiago kobratu gabe etorriko dek gaiñera. Baita au ustutzeru ere gerrillan dabillen gazte jendea. Bertako agintariak oartuko balira, ai zer nolako sarraskia. Berak agintzen jarriko balira, ez ituke bota nai dituztenak baiño askoz obeak izango.

— Or konpon. Nik esanta ez ditek jakingo. Baiña gazte oiek ere ez dituk orren txoro etorriko. Izango dizkitek zuzendari jatorrak. Baita alde z aurretik beren neurriak artzeko moduak.

— Bai, noski. Itxu-itxuan ez dituk ibiliko. Olako ustegabekorik ez ditek naiko. Jaurlaritzaren aurka dabiltzanak dituk, eta izango dizkitek beren ixpiak. Agian baita erriko nagusien artean ere. Ori arraixku txarreko lana dek.

— Eta zillegi al diagu agintarien aurka dabiltzanei laguntzea?

— Ai, motell! Dirua poz ikaragarria dek. Gu langille batzuk gaituk, lanetik bizi geranak. Agintzen digutenak or konpon beren kontzientziarekin. Neretzat bizia dek lenengo; gero gerokoak.

— Nik ez nitek ori orren errez baieztuko. Baiña ala izan dek beti. Ondo egin edo gaizki begiratu gabe, irabazira. Arrapatzen bagaituzte, guk pagatu bearko diagu. Aiek segurutik ari dituk irabazten.

— Diru puska bat bota bearko litekek, kontrabandoa galduz gaiñera ontziaren jabe egin nai balute.

— Utziogun alperrikako berriketari pakean, eta gure Jainkoak suerte on bat emango al ziguk!

— Asko eskatzea ere badek ori: zuzen ez dabilleenari laguntza.

— Zergatik ukatu bear ziguk laguntza?

— Gaizkian gabiltzan auei ere bai?

Joan Joxe ordurako jakiñaren gaiñean zebillen, kapitanak berak esanta, misterioz kontatu zionari ez bazion esan ere, ekaitzari ezik, agintarien indarkeriari iges egin bearko ziotela. Etziran auek onenak izango.

## Kezkak

**E**GUNAK ziran etzuela itzezin aurrez aurre kapitanarekin, berak serbitzen bazion ere, len bezela. Lagun baten antzera, patxaran, mutillak ematen zizkion erantzunak etzioten onik egiten; eta gaztea, berriz, serio ikusten zuen.

— Serio abil, Joan Joxe —galdetu zion egun batzuen buruan.

— Leku txiki ta itxi ontan zerka alaitu gaitzake? Bakoitzak zer egiñak ezin beterik gabiltza. Besteak, berriz, noiz kaia arrapatuko, txakurrak bezela buruzpera beren zikinkerietara murgiltzeko. Emen ez dago gure baserrietan bezelako askatasunik. Zearo baituak gabiltz.

— Orduan mendira min abil?

— Ori denoi gertatzen zaiguna da noski, batez ere gazteak geranoi. Askatasun geiago nai alegia. Baiña beste zalantza batzuk badaramazkit buruan: armaketan omen gabiltz.

— Ori egia dek, eta ez al nin, bada, esan? Orrek beldurtzen al au?

— Ezta pentsatu ere. Arraixkua maite det. Ez nintzake bestela gaztea izango.

— Etzekit, bada. Len ere garbi esan nin nik ori, eta ortik zetorrek gure irabazi pixarra. Bestela, ontzia legorrera atera ta kito. Beste lantegi batera joatea obe, ontan porrot egingo genikek eta.

— Kontrabandoa geienak egingo dute nolako edo alakoa. Baiña armarik ez nuen uste. Berdin-berdin zait. Nere aita bere gaztetako ibillerak kontatzen asten danean, kontrabandoa gora ta beera, ez du etenik. Baiña beste zure adiskide ori noiznai ikustekak bai; kezka ematen dit. Orrek anbat jakingo du zer daramakigun.

— Nor dek ori?

— Nor izango da? Zure etxe inguruan dabillen ori. Usai ona artzen dio orrek ontzi oni. Ordu gutxi igaro ditugu Dakarren ontzitik kanpora. Baiña uste gabe an topatu det zure maitagarri ori. Nerekiko ala nion, arek an zer zeukan ezin ulerturik: "Kapitanaren etxe inguruka ibiltzen dan txakurra, alajainkia, Dakarren, ontzi ontan lan egiten duten, len bere lagun ziran marrokiar oiekin". Topo egin nuen eta izketatu giñan:

— Gu sartzen geran kai guzietan ikusten aut i.

— Emen ez dek arritzekoa, marrokiarra nauk neroni ere ta.

— Ori bazekit. Ez uan esan bearrik. Baiña i ez ote abil gero kapitanaren atzetik? Zalantza ori zebil lek nere buruan.

— Tisiko dagoen gizon batengatik neri etzidak ajolik.

— Neri, berriz, etzaidak iruditzen alabaren atzetik abillenic. I ez aiz orren zuzena.

— Ik badakik, nik ere bai, eskubide osoa daukadala alabarekin maitemindu ta aren borondatea irabazten saiatzeko.

— Emen ibilita, berriz, ez dek olakorik iritxiko. Ik ez dek alaba maite; baiña bai ire indar guziare-

kin kapitana gorrotatu. Ori galdu nairik abil. Bere pertsona edo bere maite ta interesetan kalte egin, ondatu, zauritu ezkerro, iri ez dik ajolik alabagatik. Ik aita galdu nai dek. Ontzitik bota, ura naigabetu. Ire egiñal guziak ortara ziazik. Egokiera billa abil noski. Ori dek nere iritzia.

— Nai dekan bezela pentsatu. Len ere esan dit: errea ta tisiko dagoen aiton orrengatik ez didala ajolik. Nik alaba maite dit.

— I ez aiz orren buru gabea. Orixe baiño maltzur ta billaugotzat aukat.

— Ikusi ta ikasia baiño aurrerago ez adilla sartu, Joan Joxe.

— Ik jakingo dek zer daramakigun, nora goazen ere bai, ire lagunak esanta.

— Bai; ta orregatik zer?

— Ik salatzen badek, ez dek erreza izango ontzi au bere lekura eramaten. Larri gaiztoak pasa bear-ko dizkigu bidean. Eta orrekin emengo langilleak ere arraixkuan uzten gaituk.

— Ni emen ikusteak beldurra ematen dik orduan iri?

— Egia aitortzezkeroz, bai.

— Kai ontan, nik bezela ikusi duten begi asko zeudek, ispitzan dabiltzanak eta ortatik bizi diranak.

— Agur, bada, ta etzeukat irekin konfiantzarik.

Orixe da marrokiarrak eta biok egin genduen izketaldia. Ondoren, esku eman nion eta zuzenean ontzira sartu nintzan, eta ura bere lagunekin izketan geratu.

## Salaketa

**O**NTZIA kaietik atera ta kapitana serbitzera joan zanean, berriz ere bere beldur ta kezkak aitortu zizkion Joan Joxek. Baiña arek:

— Marrokiarrak antz aundia ditek bata bestea-  
rekin. Nik emen lanean ari diranak nor diran  
ezin dizkit ezagutu. Denak berdiñak iruditzen zaiz-  
kidak. Aren antzekoren bat izango dek.

— Ez, Ambrosio, ez. Gaztea naiz eta nere begiak  
ez daude oraindik orren lausotuak.

— Orduan garbi ezagutu dek?

— Jakiña, berarekin izketan aritu naiz ta.

— Pozten nauk. Naiago dit, nere etxe inguruan  
baiño, emen ikustea.

— Biak dira txarrak.

— Susmur gaiztoa artzen diok orduan orri?

— Bai-baidaki zerekin ta nora goazen.

— Esan ditek kontrabandoan gabiltzala, eta  
orrek beldurrak aidean jarri au. Ortik zetorrek,  
bada, len ere esan dit, gure irabazi pixarra. Ori gixa-  
gaixo bat besterik ez dek. Askotan esan dit noski ori.

— Gorputz ta anima, duen pixarra billaua du orrek iñondik ere. Baiña zuk esan dezun gizajotik gutxi. Nik, gutxieneko, iru aldiz itzegin det orrekin. Orren itzak aldrebes ulertu bear dira. Maite zaitula dionean, gorrotatzen zaitula esan nai du. Eta nere itz auek ondo jaso: gorroto ikaragarria dizula orrek zuri. Berearekin ez bada aterako ere, salatu gabe ez gaitu utziko.

— Lasaitu adi. Emen badabil, neretzat pozgarria dek ori. Etxekoak pakean bizi dirala alegia.

— Ez nator beldurragatik salatzerara. Zu jakiñaren gaiñean jarri nai ziñudan. Emendik aurrerako guzia orain zure gain geratzen da.

— Eskerrik asko eta bejondeikela. Ondo egiña zegok ori.

Mutilla joan zanean, atzetik begira egon zitzaion kapitana.

— Ez intzake polizi txarra izango. Baiña arrazoi dekan edo ez laster ikasiko diagu. Beldurrak abil, ta ori txarra.

Biaje atsegiña zeramaten. Itxas aldi bikaiña, ezeren eragozpenik gabe. Baiña kapitana gau ta egun erne. Bai-baizekien, arrapatzen bazuten, ia zigor guzia bere bizkarrera eroriko zala. Ezeren aztarrenik etzan ordurarte. Alare, illundu baiño lentxeago, guda ontzi ingeles bat ikusi zuten urrun katalejoarekin begiratuta. Beren ontziari jarraiz zetorren ura. Etzagutu zuen itxura.

— Eman akiok ontziari lezaken guzia, ingelesak gaiñean dizkiagu ta.

Argiak itzalita urrundu ziran egiñaletan. Eskerrek illunari, iges egin zioten. Gutxi gora bera bazekien etsaiak nora joango ziran.

— Ederretik salbatu gaituk —zion kapitanak—. Guda dabillen leku ontan arrapatuko bagiñuzte,



denak garbituko gaitziken. Arrazoi izango dek noski, Joan Joxe. Orrek bazekien zerbait.

Berriro kontrabandoa zeramaten naziora urbildu ziranean, guda ontzi txiki bat, *guardacostas* deitzen dioten oietakoa alegia, ikusi zuten beren aldera zetorrela. Ango uretatik baizijoazen. Baiña aietatik atera zanean, guda ontzi txiki arek an etzeukan zer ikusirik. Alare, ondo zaindu zituen barrura etzitezzen berriro biurtu. Beste nazioko uretara sartu ziranean, jarraitzaillea ere gorde zan.

Orduan bestea, bazterrik bazter, lanbro pixar bat bazegoen gaiñera, lasai sartu zan ustu bear zuten lekura, eta arkaitz tarte batean ezkutatu. Etzuen, ez, ura lenengo aldia izango. An ustu zuten zama.

Jainkoak bestek ez daki zenbateko gazte saila etorri zan ustutzeraz. Berak egindako txalupa txikietan, bereala ontzitik atera ta eraman zituzten angu zuloren batzuetara, gero bear zutenean eramateko. Jende asko izan arren, egun batzuetako lana izan zuten.

Txalupa aiek ere noski txara artan edukiko zituzten gordeta.

Arraixku txarreko lekua zan ura; baiña lemazain marrokiarrak txuxen atzeraka-atzeraka atera zuen. Buelta emateko ez baizeukan lekurik. Utsegiterik txikiena aski zuen bertan lotua geratzeko. Gero, zabalera erten zanean, konten ziran kapitana ta beste gaiñerakoak.

— Ez dakit berriz onera etorriko geran —zion kapitanak—. Tarte estua baita. Azpira ez dago beldurrik, baiña bazterrik ez jotzeko erne ibili bear.

Eta, salatuak izan ziran ezkerro, urrengorako etsaiak anbat billatuko zuen lekua. Ondo atera ziran beiñepein, eskerrak lemazaiñari.

Ezeren pekatu rik egin ez balute bezela, ango kai nagusira sartu ziran, algodoiz ontzia zamatzeko. Lenago ere eramaten baizuten.

Sartu arte etzion iñork galerazi. Baiña betetzeko lekuan lotu zutenean, an bertako ertzain batzuk zer ote zekarten ikustera etorri ziran. Baiña ontziaren barrua uts-utsa arkitu zuten.

— Ontzi onek sekulako arma pilla dakarrela salatu digute. Non ustu dezute?

Kapitanarekin zituzten kontuak, eta or konpon zitezela. Utsik arrapatu zutenean, etzeukaten ezer egiterik.

— Gu Dakartik gatoz, eta inguru artan gudan dabilta. Bertarako ere, armak ez litzaizkieke gaizki etorriko.

Ez dakit sinistu zioten, baiña etzituzten pekatuan arrapatu.

Algodoiz zamatuak atera ziran, bada, kai eder artatik. Bidean ala zion Joan Joxeri kapitanak:

— Etzekit ez ote dekan arrazoi izango. Urde ori arrapatzen badet, zutoi ontatik zintzilik urkatuko dit, eta itxasora bota, tiburoien janari. Dijoala orduan, nai badu, salatzeraz.

— Erne bazabiltzake. Bera ere ez da txarra izango ortarako.

— Beldur gaiztoa artu diok orri.

— Etzera oartzen etxean daukagula guk etsaia?

— Etxean? Zer esan nai didak orrekin?

— Emengo lau marrokiar langille oiekin artu-eman aundiak dabilzki orrek.

— Alajainkia! Ni ere erne ibiltzen nauk, baiña ez dit olakorik somatu.

— Nik bai, ordea. Zuek, izan ere, txuxenean ez dakit nora ezkututzen zeraten. Aiek orduan alkar-

ganatzen dira. Ni, berriz, atzera-aurrera karrikan ibiltzen naiz. Baiña bai ikusi ere. Gaur ez.

— An eta emen? Aidez al zebillek, bada?

Etzion noski den-dena sinisten, baiña bera ere kezkatu samar geratu zan.

## Ekaitza

**A**MERIKETA alde ortan badaki iñoizka ekaitz beldurgarriak sortzen. Noiznai entzuten ditugu ango enbataren purrustadak egiten dituzten egundoko ondamendiak.

Legorrean ere etxeak bota. Barruti alde osoak urak estali. Erriak ere bai irentsi, beren bizi lagun ta guzi. Lur jausi ikaragarriak. Ainbeste illak. Itoak, berriz, millakak.

Ori legorrean egiten badu, zer ez du egingo itxasoan? Errukarriak arek bere mende arrapatzen dituen arrantzaleak, intxaur azal baten barruan.

Emen ere egiten ditu bere zakarkeriak, ara-onera dabiltzan ontzi aundi oiek ondoratzeraiño; amarrak autsi ta kaietik itxasora eramateraiño. Oso gaizki ibiltzen dira.

Alde artan, ordea, ekaitz arrigarriak egiten omen dituela gaude entzunak; eta, itxas zabalean arrapatzen dituenak ontzi aundiak izan arren, ixillu gaiztoak dauzkate ikustekoak.

Oietako batek arrapatu zuen, bada, gure ontzia erdiz-erdi, algodoiz zamatua zijoala, itxas zabalean,

inguruko kaietatik urruti. Baziteken ori mesedegarri izatea. Benetan dantzatuko zuen, baiña itxas bazterreko arkaitza jota txikitzeko beldur gutxiago.

Beren itxaropen bakarra ontzian zegoen, itxasoaren zakarkeriak lertu gabe eusteko moduan zegoez. Beste gaiñerakoan, gizonak ezin zezakean ezer egin. Laguntzaren itxaropenik ere etzeukaten.

Kapitanak bazeraman bere irratia. Andik entzun zuenak zer pentsatua eman zion beren neurriak artzeko. Baiña balioko al zuten?

Bazterrik ikusten etzitzaien putzu zulo ura arrotzen bazan aize erauntsiak eraginda, gozoa jarriko zan. Zer egin bear zuten berak? Zer egin bear zuen intxaur azal arek, ezeren babesgarri gabe?

— *Tifón* deritzaion ekaitz gaizto oietako bat gaiñean diagu. Laster aize erauntsiak erdiz erdi arrapatuko gaitzik. Urreneko kaietik milla asko urruti gabiltzak. Oietakoren batera urbiltzeko itxaropenik etzeukagu. Itxas zabaleko bakardade ontan arpegi eman bearko ziogu ekaitzari.

Bereala eman zituen bere aginduak, bakoitza bere lekuan egon zedilla:

— Len ere olakoak igaro izan dizkiagu. Gaur ere gure ontzi onek eutsiko zio, ustegabekoren bat izan ezik.

Laster azaldu ziran ekaitzaren ezaugarriak: itxasoaren sabelak irakiten; ura dantzan eta moltsoka ta balantzaka; aizeak txistuz egin, itxaso gaiña orraztuz.

Ontziaren gaiñean arraixku txarra zegoen, aizearen indarrak urera botatzeko. Ontziak, batzuetan bi saietsetara, bestean atzeraka ta aurreraka, balantz beldurgarriak egiten zituen.

Eguzkia estali zuten aizearen egoan zetozen laiño moltsoak. Itxi zituzten ontzirako sarrera guziak, eta

intxaur azal arek gogor egin bearako zion aidez ta urez zetorkion ekaitzari eta elementu guziei, ontziaren sabelak barruan babestuta zeramazkienak salbatu nai bazituen.

Itxasoa arrotu zan. Urak orain mendi, gero sakon biurtzen asi ziran. Urak, alegia, balantzaka ari ziran. Ontzia, berriz, gora ta beera, jetxi ta igo, txunban balebil bezela. Ainbeste urtez urean zebiltzanei ere, urdailla naastu egiten zitzaien, eta etzan asiera besterik. Etziran oraindik ikaragarri aietakokak asi, baiña ekaitza goraka zijoan.

Lemazaiñak bazeukan lana ontziaren branka ekaitzaren alde ezin edukiz, ugiñak saietsetik arrapatu etzezaten. Kapitanak beste bat biali zuen lemazaiñari laguntzeko.

Beren gaiñean ortots ta euria, abaillan estali zuen eguzkia, eguna edo gaua zan antzik ezin emateraiño.

Neurri gabeko aize ta erauntsia. Itxasoa arrotzen, gero ta zakarrago. Aren orroak etzuen ezer entzuten uzten. Bazirudien aldizka mendi gaiñera igotzen zirala, gero bat-batean buruzpera itxasoaren ondora, azpiko arkaitzak jotzeraiño. Bat-bateko kolpe legorrak ere bai, lertzeko arraixkuan, gora ta beera *tíovivo* bat bezela.

Betiko ontziaren eragin gaiztoak etzien atsedetik artzen uzten, eta ekaitza etzan oraindik gaiñeraiño iritxi. Jateko betarik ere ezin zuten artu. Aultzen ari ziran. Beti erne ibili bearra gaiñera. Uste gabeko golpe batekin erori zitezken buruzpera, bodegara alegia; eta etzan oraindik gaiztoena etorri.

Alako zurrunbullo batean, ia irauli zuen. Eskerrak zamatua zeramaten. Barruan larri bizi ziranak ura zuten babesa. Baiña berriro bere lekura biurtu zan.

Milla mordo batean etzeukaten ura beste eusgarririk. Itxasoa, berriz, gero ta zakarrago.

Ugin gaiztoren batek saiets aldetik jo ta lertzen bazuen, kito. Arri koxkor bat bezela, urak irentsiko zituen, beren aztarrenik utzi gabe.

Gizona itxasoarekin burruka asi zan ezker, amaika milloi izango dira olaxe betirako galduak. Andik barrena zijoan besteren batek, ol zarren batzuk-edo billatuko zituen, eta berekiko ala esan ere:

— Nonbait emen galdu uan itxas ontzi ura. Arek utzitako puskaren batzuk izango dituk auek.

Baiña bertan bizi ta ito ziranentzat oroitu ere gabe. Ori da mundu ontako elkar maitasuna.

Gizona nor da itxas asarreko zurrunbulloari gogor egiteko? Ainbeste jauzi ta gora-beerak egiten zituen ontziak. Alakoren batean lertzea ere etzan arritzekoa izango. Etzekiten ontzia bere jostailutzat non barrena zebilkien itxasoak.

Orduan igertzen dio gizonak munduan ez dala ezertxo ere. Egiten dituen aurrerapen guziengatik arro-arro mintzatzen bada ere, eta emengo errege dala aitortu, olako eraso gaizto bati eusteko ez dauka indarrik.

Urean oituak bazeuden ere, ainbesteko ontzieren eragin ta gora-beerako jauzi aiekin, naastuak zebiltzan aien barruak, eta jandako guziak goitika zijoazen, berriz jateko gogorik gabe. Alare, bizia zan lenengo. Bakoitza bere lekuan erne. Utsegiterik txikienean zegoen agian, barruan zijoazen bederatzi gizon aien bizia.

Neurri gabeko ugin batek aidatzen zuen bere bizkarrean ontzia, gero ondora bota ta berriz, aldapan gora bezela, urrengoaren bizkarrera jasotzen zuen.

Etzuten lorik egiten. Gogorrago joko zuen beldurrak zeuden. Alare, eusten zion lemazaiñak brankaz ekaitzaren aldera.

Kapitana, atsedetik artzeko betarik gabe, bazter guziak aztertzen zebillen, iñondik urik sartzen ote

zitzaion. Itxasoan zaildua eta len alako asko ikusia, oraingoan izutu samarra zebillen. Baiña itxaropena noski goraka, onuzkero ontziak eutsiko ziola ekaitzari. Joan Joxeri ala esan zion:

— Munduz mundu dena ikusteko asmoan ez uan ibili nai?

— Bai. Nere gogoia beiñepein ala zan. Beti amets gozoak egiten nituen. Olako arraixkurik ez nuen ikusten. Bestela, ontzi auetan sartzerako ondo pentsatuko nuen.

— Milla metroko putzu baten gaiñean, ekaitza gurekin jolasten zebillek. Txunban gabiltzak, batean gora, bestean beera. Txulo bat egitea aski, bere sabeletik ateratzeko betarik eman gabe, denok il kaja batean urpera joateko, gu non galdu geran aztarrenik utzi gabe. Munduak alderdi onak badizkik, bai. Txarrak ere bai ugari, ordea.

— Zu oraindik lasai zaude?

— Itxuraz bai. Baiña larria or zebillek barruan. Nere emazte ta alabaren oroitzak ere bai. Gu emen galduko bagiña, zer egin bear litekek aiek?

— Nik ez daukat olako buruausterik, baiña bizi nai nuke.

— Ik bezela besteak ere. Entzuten al dek ontzi axaletik kanpora dabillen orru ori? Eta ur putzu ikaragarri oiek au joka? Itxaropen au zeukagu: azal gogorra daukala ontziak, eta eten gabeko itxaso onen eragin ta zakar aldiei eutsiko ote dien. Eta, ekaitza asi duenean, itxas zabalean geundela. Orain, berriz, etzekiagu non gabiltzan.

— Eta ona al da ori?

— Ez al dek ikusten urak ontzia nola dabilkien? Oni bultzaka ari diran ugin oien indarra ikaragarria dek. Itxas ertzean izan bagiña, onuzkero arkaitzen bat jo ta txikituko gaitziken. Baiña gaurko au izu-



garria dek. Eta, berriz gurasoak eta Lutxi ikusi nai badituk, egin zak otoitz, biotz garbien eskaria Jainkoak maitasunez entzuten dik eta.

— Eta zuk errezatzen al dezu?

— Bai, gazte, bai. Ikusten al dek nola ari naizen?

Eta beatz artean zebilkien errosarioa erakutsi zion.

— Nere txirristadak izango dizkit. Baiña arratsera au errezatu gabe ez nauk lotara joango. Gure aurrerapenetan itxaropena galtzean, Jainkoa bakarra dek salbatu gaitzakena. Umil gaitezen beraren aurrean. Ekaitz auetan ederki agertzen ziguk bere indarra. Emendik ondo ateratzen bagera, Urkiolara erromes joateko promesa egin ziot San Antoniori.

— Nik Guadalupeko Amari egin diot. San Antonio baino obeto jakingo du Ondarrabiko Amatzok itxasoaren berri.

— Aizak: elkarrekin joango gaituk Urkiola ta Guadalupera.

— Orren estu al gabiltza?

— Oso ekaitz gaiztoak igaro dizkit. Baiña olakorik ez dit uste. Oraindik indartzen ari dek noski. Alare, uste gabekoren bat izan ezik, zurrunbullo oni eutsiko diola uste dit. Bost egun bazeramazkigu, ta laster amaituko dek, nere iritzian.

— Ura sartzen ari da nonbaitik! —oiu egin zuten.

Denak zabaldu ziran ontziaren barruan, nondik sartzen ote zan ur zirriztu ori billatzera.

Bereala arkitu zuten. Denak elkarri lagunduz, estali zuten. Eskerrak zeramaten algodoiari. Zerbait sartu zan, baiña ezer gutxi.

Jendea ler egiña zegoen. Etzuten jan nai, bota egiten baizuten. Ekaitzak, berriz, sekula baino gogorrago jotzen zuen.

— Ez gera ezertarako gauza, eta datorrela nai duena! Orrela bizi baino, il obe diagu!

Alako batean, ugin aundi baten bizkarretik bat-batean erori ta indarrean azpia jota, kolpe legor bat artu zuen ontziak, zutik zeudenak botatzeraiño. Ura orduko jendearen larria! Uste zuten lertu zala.

— Beste olako bat eta kito —zion kapitanak—. Gure maiteak itxogin lezatekek. Gaztain morkotsetik aleak bezela aterako gaituk ontzitik.

Baiña uste gabeko jauzi arek bota zuen mutil zaar bat, marrokiarra bera, eta lepoa autsita zerraldo illa geratu zan.

Kapitana zegoen noski denetan ondoena. Bazter guziak barrena zebillen, erantzunkizunik geiena berea zan gaiñera ta.

Lemazaiña ondatua arkitu zuen, eta bera jarri zan aren lekuan. Ura atsedentzera biali zuen, al bazezaken beiñepein. Lemazaiña, zerbait lasaitua, biurtu zan bere lanera; eta kapitana joan zan atsedentzera.

Loak artu eta esnatu zanean, itxas orroak ixilduak ziran. Itxasoa baretu zala zirudien. Berak ortarako zeukan txulo batetik begiratu zuen, eta orduan ari zan sortaldean eguzkia jaiotzen. Oskarbi zegoen. Igaroa zan ekaitza, eta salbatu ziran, marrokiar gizarajo ura ez besteak. Eskerrak emateko belauniko jarrita, aitagure bat errezatu ondoren, oi u egin zuen:

— Salbatu gaituk, mutillak, eta atera gaitezen ia sei egunean ikusi ez degun eguzkia agurtzera!

Kapitanaren oi u arek etsitako jendea pizkortu zuen, eta denak ontzi gaiñera atera ziran aize berritzera. Elkarri zorionak eman zizkioten, eta langille batek ala esan zion kapitanari:

— Zuk berri ona eman diguzu, baiña guk txarra emango dizugu: oraintxe atera degu Olako bodegatik illa.

— Deabru guzien ixtilluak igaro ta orixe bear genin orain!

Eta zuzenean bodega barrura joan zan, il zana ikustera.

— Nola gertatu zaio au, salbatu geran orduan?

— Azkeneko ontziaren golpe artan erori da.

— Izan ere, ezer gutxi bear. Gizarajoari etziok iñork negar askorik egingo. Iñor bai al zuen bere artekorik onek?

— Ori marrokiarrak jakingo dute.

Aiek ere etzekiten ezer. Guraso ta anai artekorik etzuela noski.

Oitu bezela, karga puska bat jarri ta itxasora bota zuten. Laster zan tiburoien sabelean. Bi aita-gure errezatu zizkieten katolikoak. Musulmanen berri ez dakigu.

Bein ekaitza gaiñetik igaro zanean, itxasoa ere baretu zan.

— Oraindik olako ekaitzik ez diagu igaro. Alare, ontzi onek eutsi egin zio. Ez dik nolanaiko azala.

— Bost eguneko agoni au ere pasa orratik azkenean.

— Jatea ere aztuta bizi gaituk. Zerbait bizigarri artu dezagun. Illak ez dik bearrik. Baiña bai bizi geranok aurrera jarraitzeko —agindu zion kapitana sukaldeziari.

Kristauak, kapitanak lenengo, eskerrak eman zizkieten Jainkoari, estutu zituela, baiña ez lertzeraiño. Musulmanak ere beste orrenbeste egin zuten, aiek ere beren erara.

Urpekoa zala zirudien ontziak. Etzan tximinirik ere bere lekuan geratu. Dena urak eramane zion. Burnizko barandillak ere okertu samarrak. Itxasoa oraindik dantzan zebillen. baiña paketua. Zerua

oskarbi. Pasa zan erauntsi gaizto ura, ortots ta guzi bere bidean bazter guziak txikituta.

Urrun ikusi zuten eguzkia, zeru ta itxasoak bat egiten duten leku artan, gorri-gorri. Baiña ezin antz eman goiza zan edo illunabarra. Ez baizekiten oraindik non zeuden. Baiña gora zetorrela igerri ziotenean, jakin zuten egun berri baten jaiotza zala.

Etzuten besterik ikusten, bada, goian muga gabeko zerua eta beean itxasoa, eguzkia igo aiñean argitzen. Etzekiten ekaitzak non utzi zituen.

Barruko estuasun artan etzan birao aundirik nabaitu. Orain, berriz, zoriontsu ta eskertsu zegoen jendea.

Maomatarrak iru aldiz auspeztu ziran, Ala beren Jainkoa agurtuz. Bai kristauak ere umil asko belauniko jarrita. Bigarren aldiz aitagure batzuk errezatu zituzten.

Ontzi gaiñean puska batean egon ondoren, non zeuden ezin asmaturik, eztabaidan aritu ziran. Eguzkia ezkerretik erten zitzaien. Baiña, len zera-maten bidean, eskubitik atera bear zitzaien. Ekaitzak, bada, atzekoz aurrera utzi zituen, eta zenbat bidean eraman?

Ala zebiltzala, urrun ikusi zuten itxas ontzi bat, ekaitz aren ondoren kaietik ateratakoa noski. Kapitanak bereala esan zuen:

— Ez gaudek legorretik urruti.

Urbiltzen zetozenak arritu ziran ontzi ura an gel-dirik ikusita. Alderatu aiñean, orduan ta arrituago, urpekoa zirudien ta. Andik igaro bear zuen eta, berena bezela, kargaketako ontzia zan. Altabozarekin nor ziran galdetu zuten.

— Olako ontzia.

— Galdutzat emana zegok.

— Gu, berriz, bederatzitik zortzi bizi gaituk.

— Nai badezute, lagunduko dizuegu.

— Mesedez, non gauden jakin nai genduke.

— Olako uretan, legorretik eun bat millara.

— Eskerrik asko. Geren buruz kaia billatzeko moduan gaituk.

Aiek joan ziranean, ala zioten elkarri:

— Ez gaitzik ekaitzak bide gutxian eramán.

Ontziari buelta eman zioten, eta ustez jarri ziran berak nai zuten kaierako bidean.

Denak, galdutzat zeukaten ontzia sartzen ikusi zutenean, arritu ziran.

Kapitanaren lenengo lana irratiz abisatzea izan zan, bederatzietatik zortzi bizirik eta osasuntsu sartu zirala. Etzuen abisu arek nolanaiko pakea eramán naigabetan zeuden sendietara.

Ontzia ustu ta kanpora atera zuten konpontzeko. Bitartean, bertako langilleentzat jai.

Kapitanak etzuen Joan Joxe bakarrik utzi. Elkarrekin etorri ziran bidean.

— Zer derizkiok ekaitz ortaz? —galdetu zion.

— Zer nai zenduke esatea? Legorrean ere gertatzen dira olakoak. Ugoldeak dirala, sua dala, olako ixtilluak ikusi izan ditugu. Tristeena neretzat, alare, bat il zaigula, eta beretako iñork ikusi gabe itxasora bota degula.

— Lengusuren batzuk izan bear dizkik Marruekos alde ortan. Beste gaiñerakoan iñor ere ez, adiskideren batzuk besterik.

— Alare, il ezkerro, legorrean geratu edo urean, ez dio ajola aundirik.

— Eskari bat egingo nitek, ontzat artuko bauke.

— Itzegin zazu, ta konponduko gera.

— Ontzia egin zuten lekura eramango ditek konpontzera, txatarrerako ez badute saltzen beiñepein.

Oraindik gaiña ez besteak onak zeuzkak onek. Bitartean, bertako langilleak, kobratu nai badute, ontzia konpontzen ari diran lekura joan bearko ditek. Baiña nik, ura konpondu arte, etxean lana emango nitek. Baita ondo saritu ere.

— Eta zuk kobratuko al dezu?

— Azkeneko xentimoraiño.

— Ez dago gaizki: lanik egin ez ta kobratu. Eta zuk eskeintzen didazun lan ori, nolakoa da?

— I nekazari ta baratza lanetan ondo ikasia aiz. Gure etxe ingurua, berriz, erabat utzia zegok, eta ontzia konpondu arteko lana baeukake an. Gogozko bazaik beiñepein, ator. Nik sarituko aut, eta gure bi atsoak ondo zainduko iñuteke.

Joan Joxek antz eman zion orain ere dotore bota ziola amua; eta, illebete batzuk ez galtzezkeroz, irentsi bearra zeukala. Azkeneko andik atera zanean, alako naigabe txiki bat nabaitu zuen biotzean; eta orain, illebete batzuetarako lanera joaten bazan, arrunt sarean lotua geratuko zala. Baiña ori etzitzaion mundu ontako etorkizuna txarra iruditzen, eta:

— Joango naiz —erantzun zion—, uste det azkenean nerekin zure asmoak beteko dituzula baiña.

— Orduan atsegin zaik gure Lutxi?

— Txoria dotorea da. Kabia ere bai. Biak batera eskeintzen badituzu, nori ez? Baiña ni or sarean lotzen banauzute, ez naiz zu bezela itxasora joango. Ez det maite detana urte guztian utzia ta naigabetan edukiko.

— Orixe dek nik ere nai detana. Orretxen billa nabillek. Ni pipiak erdi jana niok, eta denbora gutxi zeukat. Eta nere bizia aiña maite ditudan puskak, emendik joaterako esku onetan utzi nai nizkikek.

— Baiña astebeteren bat utziko didazu noski etxean gurasoekin pasatzen.

— Bai, motell. Ez uan eskatu ere egin bear.

Joan Joxe etxera joan zan, bada, egun batzuk pasatzera; eta kapitana ere bai, naigabe guziak aztutzera, zoriontsu, bere etxeko martxa, urte aieta-ko bere buruausterik gaiztoena, zuzendu zuelako.

## Marrokiarren zemaia

**J**OAN Joxe txuxenean etxera joan zan. Biotz-  
-biotzez artu zuten denak, ustez itxasoan  
galdu zana.

Egun batzuetako negarra eta etxeko elkarrizketa bera izana zan. Kapitanaren emazteari bixitatxo bat egin zion aitak, ea itxasoan galdutako ontziaren berririk bai ote zuten. Galdera au entzun orduko, ama-alabak negarrari eman zioten.

— Ez dakigu ezertxo ere, ekaitzak erdiz-erdi arrapatu zituela besterik.

— Mundu au ikusteko gogoia zeukan, baiña asko ikusi gabe geratua izango da.

— Bai. Anbrosiok min ematen digu, baiña bai Joan Joxek ere. Ain zan gazte alai, eder ta zoragarria ura.

Lutxi gazteari malkoak asi zitzaizkion.

— Biotzean zendukan orduan?

— Ainbesteraño ez bada ere, itxaropena beñe-pein bai. Orain nolako martxa geratuko zaigu, etsaia beti ateetan dabilkigu ta?



— Nor? Or zegoen moro kaxkar ori?

— Bai. Orrengatik dauzkagu zakur aundi auek. Ez genduke guardiazipiletara abisurik biali nai. Okerragoa izaten baita.

— Nere semeak laster moztuko lituzke orren lainezak.

Agurtu ta triste joan zan etxera. Ara ere etzuen atsegin aundirik eramango.

Kapitanak irratiz abisua zabaldu zuen. Baiña etzuten noski entzun, eta larritasuna zegoen bi famelietan.

Semea etxean sartzen ikusi zutenean, poztu ziran. Zoriona eraman zuen baserrira. Len esan degunez, denak, baita anaiak ere, maitasunez artu zuten.

— Bizi al aiz, motell? Etsita geundeken.

— Estuasun ta larri aldi gaiztoak igaro ditugu. Baiña Jainkoak estutzen omen gaitu, baiña ez itozteraiño.

— Eta berriz joatekotan?

— Ontzia konpontzean bai. Urte au bukatu arte ez det utziko.

— Eta zenbat denborako zeukatek ura konpontzen?

— Ori ez dakigu. Neri kapitanak lana eman dit. Ondo sarituko nauela gaiñera. Emen astebete igaro ondoren, aren etxera joan bearko.

— Sarean arrapatuko aute.

— Ez dakit ez ote nagoen ala.

— Ez dek batere galduko. Ezeren berririk bazuten jakitera joan niñun; eta aingerutxo arek, ire izena entzun orduko, negarrez asi uan.

— Baiña ni etxe artan geratzen banaiz, itxasoak erabat utziko ditut. Nik dakit bi emakume aiek nola supritzen duten.

Astebete etxean igaro ta joan zan kapitanaren etxera. Errege bat bezela artu zuten, eta txunditua geratu zan gure gaztea. Ama-alabetan nor nor zan ezin ezagutu lenengoz. Ain gaztea zirudien amak. Baiña laster jarri zan. Iru-lau bat zentimetroz luze-agoa zan alaba.

Kapitana betiko lekuan arkitu zuen.

— I pozik etorri aiz onera? —agurrak egin ondoren galdetu zion Anbrosiok.

— Lenengo etorri aldian larria eman zidan. Semetxo bat bezela artu ta tratatu niñuten. Ni, berriz, ez nengoen artara oitua. Bigarrengoan, emendik ertetzerakoan, alako ixilleko naigabe bat bezela nabaitu nuen biotzean. Len ere esan nizun. Lutxik esan zidan: “Utzi zaitte maitatzen eta asma-tuko dezu”. Datorrenari bidea zabaldu bearko.

— Ori dek arrazoia ta ondo pentsatzea. Oso gutxi ateratzen dituk auek etxetik. Onera, berriz, ni bezelako agure zaar batzuk besterik ez dituk etor-tzen. I bezelako gazte batek, berriz, poztu egiten dizkik. Eta marrokiarra ikusi al dezu?

— Ez zure emazte ta alaba besterik. Azukre kozkor bat bezela urtuko naute.

— Pixka baterako balitekek.

— Aidean ibiltzen ote da marrokiar deabru ori?

— Eta benetan ezagutzen al dek?

— Bai, gizona. Bi edo iru kaietan itzegin det nik orrekin. Bakarrik ikusiko banu, ez lidake espa txarrik emango. Baiña emengo langille diran marrokiar-rekin izketan aritzen baita, alako oztopo txarren bat jarriko ote diguten beldurra ematen didate neri.

— Etxe inguruko saretik begira zegoela arrapatu nin lengoan. Anbat usteko zin betiko galduak giñala.

Antxe topo eginda, elkarrizketa bero au izan zuten kapitanak eta marrokiarrak:

— Zer deabrukeri dabilkik emen? —oiu egin zion arek.

— Lanik ez daukat eta egurasten.

— Diru paltan ez abil, bada, noski.

— Nola dakizu ori?

— Gu gabiltzan inguru samar abil. Ikusitakoak ala esan zidatek. Justiziarengana salatuko aut.

— Ez dakit zergatik. Justiziak ez dauka emen zer egiñik. Nik ez diot iñori txarrik egiten. Ez nabil gaiñera zure barrutietan. Zuk emen barrena ibiltzea zillegi badezu, zergatik ez nik?

— Zergatik abil i gure atzetik? Len ere esan dit leku askotan ikusi autela.

— Ez dakit non. Egia balitzake ere, gaizki egingo al nuke?

— Bazekit nere alabaren atzetik abillela ere.

— Ortan ere nori txarrik egiten diot?

— Utziok, Jainkoagatik, or txakurrak bezela ibiltzeari, emakume gaixoak beldurrak aidean dabilzkik eta.

— Nik ez diot egundo maite detanari txarrik egingo.

— Ez aute begien aurrean ikusi nai, ordea.

— Zuk ala diozu, baiña orren berri ez daki neskak bestek.

Aldarte gaiztoak izaten zituen gure kapitanak, aspaldian berekin zebilkien gaitzak erasotzen zionean. Orduan ere alaxe omen zeukan. Bere ate guziei maratil egokia jartzen zielako marrokiarrak, azkeanean sutu zan eta zemaiz gaizto au egin zion marrokiarrari:

— Gure ontzi inguruan arrapatzen baaut, bertan zutoi batetik zintzilik urkatuko aut, eta itxasora bota.

Besteak irripar maltzur bat egin zion. Bai dotore asko erantzun ere:

— Orixe bai izango litzakela polita: zuk neri zemai egin eta nik zure ontzian bertan zu urkatu ta tiburoien janari itxasora botatzea. Ori ere litekena da gero, Ambrosio. Eta ondoren zure alabatxo orrekin ezkondu.

Kapitanak onelaxe esan zion ondoren Joan Joxeri:

— Deabru guziak nerekin nituela aldegin nin andik. Oraingo eztabaida au asarre aldi bat uan, eta bata besteari egindako zemai gaizto orrekin bukatu genin. Orain, i etorriarekin eta nere alabari dioken maitasunarekin, lasaitzen nauk.

Eta bere pipari itsatsi zitzaion.

Marrokiarra askoz maltzurragoa zan. Goxo-goxo adarra jotzen zion, eta ezin zuen inondik ere irentsi kapitanak. Bestea, berriz, poliki-poliki, atzeratu bearrean, aurreraka zetorren. Lenago ere olako zemaiak elkarri egiñak ziran.

Ontzia konpondu zuten. Berri-berria bezela jarria, ondo margotuta gaiñera, axaletik ederra zirudien beiñepein.

Orduko oituretan, gaurkoetan ere ala uste det, bedeinkatu zuten. Bere nagusiak kristau jatorrak omen zirala; sinismen berokoak.

Barruan zeraman zama, busti samarra, subastan saldu omen zuten, eta etzirala galduan atera.

Lengo langille guziak asi ziran berriro ildakoaren lekuko beste bat aukeratuz. Ekaitzaren mende ibilitako ixtilluak etzituen atzeratu erazi.

Ontzira sartu baiño lentxeago itzegin zuen Joan Joxek marrokiarrarekin. Etzituen bistatik galdu. Onek kapitanarekin izan zituen eztabaidak ta elkarri egindako zemaiak, txeetasun guziekin kontatu zizkion.

— Utziok pakean gizarajoari, motell. Bestela, edozertara jarriko dek, ire izena entzun orduko bere onetatik ateratzen dek eta.

— Baiña arrazoirik gabe. Neska ez al zegok aske?

— Aske? Nola dakik ori? Ni ere or nabillek. Gurasoak eta alaba bera ere nere eder ezin egiñik ikusten dizkit. Neri itz emana egon litekek gaiñera.

— Ez dit sinisten. Ik ez dek ori maite.

— Ik baiño geiago agian.

— Nola dakik?

— Berak esanta.

— Orren berri etzekit. Gurasoak beiñepein ederkizaintzen ditek.

— Ez dek arritzekoa, besterik etzeukatek eta.

— Kristalezko kutxa batean sartu dezatela orduan.

— Ik neri esandako itzekin erantzungo dit: ik ez dek neskatxa ori maite. Ik bere aitari diok deabru baten gorrotoa. Oni ezeren txarrik ezin egin dioken ezkerero, bere interesetan zauritu nai uke: munduan maiteenetako duen alabatxoa ondatu. Bere aitak ez likek orduan geiago onik izango. Arek uste bezelako gizarajoa ez aiz.

— Ik, berriz, arraixkuan ura zainduko dek noski?

— Ik zer egingo uke nere lekuan baengo? Alaba goxo ura bere gurasoak neri eskeiñi zidatek. Alare ni, nere larruan ukuitu bitarte, ez nauk zuen eztabaidan naastuko. Baiña, txarrean ezkerero eta nere aurrean, beartua negok kapitana ta bere familia babestera, konponketa ori egin genin ta.

— Ez adilla, bada, nere bidean jarri.

— Alazankoa! Ire aurretik nabillek. Ik neri bidea galerazi? Zemaika al ator? Nik ez dit gero atzerarik egingo. Nere egin bearrak ondo betetzen saiatuko nauk, eta abisatzen duena ez omen dek lapurra.

— Orduan oraindik elkar ikusiko diagu.

— I billa baldin baator beiñepein, bai. Eta ez Lutziren atzetik ibili. Arek ni maite niok. Bost ille-bete osoak bere etxean igaro dizkit, eta neri biotze-raino sartu zaidak. Non ibili aiz orain arte? Ez aut inon ikusi. Bazekit gure ibillerak ondo zaintzen ditukela. Norbaitek egiten ziguk ispitza.

Itzik erantzun gabe eta serio aldegin zuen andik. Joan Joxeri beldur geiago zion kapitanari baiño.

Mutillak garbi-garbi antz eman zion maite zuela-ko etzebillera ura neskaren atzetik, bere aita gorro-toan zeukalako baizik. Au, emaztea edo alaba gal-tzeko asmoan. Bera ere naspil ortan sartuko zuten beldurrak zebillen.

Kapitanari antz eman zion egun aietan asarre zebillela. Etsaiaren adar jotze arek sumindua utzi zuen, eta ezer egiterik ez.

Geigi naigabetzeko beldurrak, etzion aipatu ere etsaiarekin eduki zuen eztabaida. Oso aldarte gaiz-toak izaten zituela esan zion bere alabak.

Europako guda, berriz, azkenetan zegoen. Asia-koa ere orduantxe ari zan agonian.

Ontzia Bilbaon konpondu zuten, eta burniz betea Londresa eramán. Ondoren andik, gudan ibi-litako arma zaarrez gainezka, Ego Amerika alde ortara. Irakiten baizegoen ura ere.

Beste atzera-aurrera batzuk ere egin zituzten. Geiena kontrabandoan zebilkiten, arma kontu ortan inoizka. Ango gobernuei ere bai; besteetan, berriz, ango bazterren batean ustuta, gerrilleroei.

## Beldurrak baabil, oa emendik

**B**AZEBILTZAN ara-onera. Baiña El Salvador-ko kai batean ontzia ustutzen ari ziralda, ikusi zuen berriro Joan Joxek marrokiar *gixaixo* ura, kapitanak zionez, berarekin lanean ari ziran lau marrokiar aiekin izketan. Zerbait bazebilkiten aiek esku artean. Batean European, bestean Afrikan. Orain, berriz, Ameriketean.

— Urde ori, gu nora, bera ara zebillek. Alare, gure kapitanak etziok orri garrantzirik ematen. Baiña bost auek zerbaiten moldaketan ari dituk.

Ez ikusi egin ta beste bide batetik joan zan. Mutilla bakarrik, bost aien tartean, etzan seguru geratuko.

Bere serbitzura joan zan batean, kapitanari kontatu zion ontzia ustu zuten kaian nola ikusi zituen bere adiskide maitea eta lau langilleak izketan.

Onak aldarte txarra zeukan nonbait, begi azpiak azita, erretxin eta saltakorra, azkeneko eztabaidan etsaiak adarra jo ziolako. Etzeukan izketarako gogorik. Aren izena entzuten zueneko, sumintzen zan. Ezin bai zezakeen aren aurka ezer egin, itxuraz beiñepein beti legepean zebillen ta.

— Arritzekoa dek, motell —erantzun zion—. Gu or gabiltzak, bada, ta ez diagu olakorik ikusten. Azkeneko etxe aurrean ezker, ez dit nabaitu ere. Ik, berriz, ia kai guzietan. Ez ote dituk oatzean egiten dituken ametsak izango?

— Arrazoi dezu. Nik amets asko egiten ditut oatzean, eta ez beti gozo-gozoak. Baiña nik bostak elkarrekin kaian ikusi ditut.

— Etzekit, bada, motell, zer pentsatu.

— Badakit bein atarian eztabaida gogorak izan zenituztela, ta elkarri zemaiz gaiztoak egin zenizkiotela.

— Aztiren bat al augu ori jakiteko?

— Ez. Berak kontatu zidan dena. Bilbaon ikusi nuen, eta an itzegin. Tartean ez naasteko, obeto aterako nintzala esan ta aldegin zuen.

— Barkatu, Joan Joxe. Ez ote aizen normala ere kezketan nabillek.

— Nork daki? Bat bakarrik bai ote da munduan? Bat normala dan edo ez erabakitzeko, neurriak non daude? Agian, olako epaiak ematen dituen izan liteke besterengatik dion bezelakoa.

— Beldurrak al abil?

— Bearbada ez naiz ala ibiliko; baiña kezketan bai. Gizon ori gure orpoz orpo dabilkigu, eta gure etorkizunerako zer pentsatua ematen dit. Ez baidabil bakarrik. Emengo langille marrokiar oiekin ikusten det beti.

— Berri au entzuten detan bakoitzean, urduri jartzen nauk. Zer egitea nai uke: oiek biali? Makinista ere oietakoa dek; emen dabiltzan euskaldun batzuk baiño piñagoa alare.

— Nik, nola dabiltzan salatu besterik ez det egiten. Ortik aurrerakoa zure egitekoa da, batez ere neurriak artzekoa.

— Ez, ordea, beti. Egokiera dekan guzietan ori salatzen aritzea ere ez dek ire eginkizuna.



— Emendik aurrera ez dizut ortaz itz erditxo bat ere esango. Berandu damutzeak ez digu balioko. Alare, nik nere neurriak artuko ditut.

— Motell, beldurrak baago, oa eta utziguk pakean. Ire orde egingo duena billatzen ez dek zaila izango.

— Bai. Urte au bukatzean orixe egingo det. Mundu onen berri ez det asko ikasi, baiña bai mundukoena ederki.

— Neretzat, berriz, munduan ez dek txibatoa baiño okerragorik.

— Nik txibatotik ez det ezertxo ere, Anbrozio; ta baliteke zuk uste baiño len orrela epaitua damutzea. Gizon batzuen bizia dabil emen jokoan eta arraixku txarrean. Neurriak artzea zure esku dago. Nere orde besteren bat ekartzea ere zure egitekoa da. Bein gizon baten jenio kaxkarra ezagutu ezke-ro, ez det egundo arekin konfiantzarik izango. Baiña ondo pentsatu, nik au uzten detanean, zuen etxe ori ere betiko utziko detala. Ez nauzute geiago an ikusiko. Jaunari eskerrak ez nintzala aurreragi sartu. Norbaitek esan zidan, bai, deabruaren aldarteak izaten zenituela —esan ta bere lanetara joan zan.

Ondoren, berriz, onela zion berekiko:

— Aldarte kaskarra zeukak gaur. Purgatorioan bizi obe dik batek, orren ondoan baiño. Etxekoekin ere ez dek oso gozoa izango ori.

Joan Joxe benetan serio jarri zan egun batzue-tarako. Ondo serbitzen zion, baiña itz gutxi egin.

— Eskerrak, alare, ez nagoela geiegi maiteminda —zion berekiko.

Kapitanari damutu zitzaion artara itzegiña, eta berak eman zion itza:

— Serio abil, Joan Joxe.

— Zer nai zenduke, bada, arri eraso batetik denok iges egiten degu ta? Badakit gaiñera serbitzen diodanaren onaren billa nabillela.

— Ori ez dit egundo zalantzan jarri. Gaiñera, ez nabillek asarre. Ik salatzen didaken orrengatik tripa jaten jartzen nauk. Etxean ere beldurrak zebiltzak, eta ezer ezin egin. Ontzia konpondu ta lenengo etxera joan nintzanean, ia jan nioteken zakurrak. Ez nintzala iñondik sartuko. Otsoa aiñako bi zakur, burni sarez barrendik, beren letagin zorrotz aiek erakutsiz. Zakur aiek ezjakiñean sartzan zanen bat itoko zutela ta zerbait esateko asmoan nintzala, sarrerako atean idatzi au arkitu nin: “Mesedez, ez sartu atean deitu gabe, zakurrak aske dabilta ta”, Orren beldurrak zeudek etxeoak, eta ezer egiterik ez. Gure atzetik eta gure langilleekin artu-emantantan dabillela entzuteak, nere onetatik ateratzen nauk. Emakume aiek babesa bear ditek. Etzekit neronek ere txango au ez ote detan utziko.

— Nai badezu, joan ziñezke. Nere itxaropenetan beiñepein ez bizi.

— Joan Joxe, etzaidak olakorik esan.

— Normala ez dan bat artuko al dezu, bada, etxeo sui bezela?

— Etzaidak ori esan, Joan Joxe, maite aute ta.

— Jainkoak mirariren bat egin bearko du.

— Barkatu. Ire salaketa ori ez dit gaizki artzen. Baiña nolako erabakiak artu? Langilleak bialtzen baditugu, kaietik ateratzerik ez. Ezertan eskubiderik etzeukagu. Subeak txoria txoratzen duen bezela utzi gaitzik orrek.

— Lenengo zure etxetik atera nintzanean, ala nion nerekiko: Oraindik aari jokoren bat egin bearrean izango gaituk gu biok.

— Armaz ez bada, ire ondoan ez dek iñor ere ori.

— Olako muturjeko gizonen berri ez dakit nik; baiña zemai egin zidan.

— Nere purrustaldiak barkatuko dizkidak noski.

— Bai. Ez dezu pekatu izugarririk egin. Alare, nik emengo lanetan jarraitzeko ez daukat gogo aundirik.

— Eta ori zergatik?

— Len ere esan dizut: arraixku txarra, gutxi irabazi eta lagunarte kaskarra. Goitik asi ta beraiño, bi sailletan bereziak gaude. Ez daki batek oiekin nola itzegin, eta susmur gaiztoa ez ote diran oiek eriotzen bat egiteko moldaketan ari. Oiek, denak batera, benetan zapaldua uzten naute.

— Nik, berriz, ez dit olako arraixkurik ikusten.

— Zure etxean ere, bada, neurriak artu dituzte.

— Bai. Neronek ikusia. Baiña emen etzeukagu beste orrenbeste egiterik. Orrek emen ibiltzea eta bere lagunekin itzegitea ez al dik, bada, zillegi?

— Bai. Ori ala da. Nik ere ez diot beste ertenbidetik billatzen. Oiek zerbait badabilkite beren eskuen artean. Zergatik, ordea, ontzi barrunbe ontarako neurriak ez artu, zureak egin duten bezela?

Biak geratu ziran serio. Baiña kapitanak bere neurriak artzen bazituen, bere buruak babesteko aiña baziran.

Joan Joxerenak egin zituen, ordea. Al zuenean utziko zuen ontzia, eta benetan pozten zan aurreragi ez sartua. Baiña Lutxi uzteak min ematen zion, ordurako biotzean zeukan eta.

Azkena artutako zama ere kontrabandoa zuten. Itxas bazterreko arkaitz batera urbildu ziran. Ortan oso iaioa zan makinista. Etzuten noski lenengo aldia. Ur sakona zegoen eta, bazterreraiño urbilduz, sirga edo kable lodi batekin bazterreko arkaitz mutur sendo bati lotu zioten. Ordurako illunbista zan. Egunsentira arte an egon bearko zuten. Orduan etorriko bai ziran.

Apaldu ta dena illun ta ixilik geratu zan. Kapitana bere ofizinan zegoen, eguneroko gora-beerak zuzendu ta garbian jartzen. Betiko oitura zuen ori.

Joan Joxek, gau ona zanean, ontzi gainean lo egiten zuen, estalki zaar batean bildua. Baiña arrats artan, batez ere, zelatari bezela. Susmur gaiztoa zeukan: barrura sartu nai zuenak, etsaiak alegia, leku erosoagorik ezin zezakeala aukeratu. Beerako igesbideak ere ikasiak zeuzkan Joan Joxek. Babestuko zuen bere burua. Bere neurriak artu zituen.

Ibai txiki bat sartzen zan itxasora, eta inguru ura guzia zugaitz aundiz ta txaraz josia zegoen. An edukiko zituzten ontzia ustutzeko bear zituzten txalupak.

## Erasoa

**I**TXAS bazterreko arkaitz bati lotuak, gau giro eder artan dena ixilik zegoen.

Joan Joxek askotan esan zion kapitanari nola zebillen bere adiskide kaskar ura bere garai bateko lagunekin eta zer gertatu ziteken. Obea izango zala aldez aurretik neurriak artzea, bada ez bada. Kapitana, ordea, etzion aintzakotz artzen. Ez ori bakarra; iseka egiten zion, beldurti ta kobardetzat artuz.

— Txibato alua aleena i! Bazirudik emakumetxo bat aizela edo beraizik neri adarra jotzen ari aizena. Marrokiar kaskar orrekin ondo etortzen danik ez dek billatuko emengo langilleetan; eta guk nabaitu gabe, gaiñera, ezin litekek iñor ontzi onen barrura sartu. Oso zailla dek benetan ontzi ontara igotzea, altzairuzko txapa legun ontan gora. Gauden bederatzietatik batek nabaitu gabe, ezta katurik ere ez uke sartuko, bakarra badator beiñepein.

— Nabaitzezkeroz, zu baiño erneago egotea al du norbaitek.

— Oraindik ere isekaz ari al aiz? Ontzi ontan iretzat au izango dek azkeneko biajea. Iruzurtua nengoken. Beste bat intzala uste nin.

— Bai, aita, bai. Eskerrak Jainkoari ez naizela aurreragi sartu. Ea zuk ere ala izaten dezun. Iseka egite orrek denoi min enaten digu. Baita neri ere.

Ixil aldi bat egin zuen emen kapitanak, eta ondoren berean jarraituz:

— Geratzeko zoratzen al ago?

— Zure alaba orrek min pixka bat emango dit; baiña ezer gutxi. Gorputz ta anima, ontzi au babes-teko alegiñak egiten ari naiz; eta, alare, neretzako erritak eta purrustadak besterik ez daukazu. Or konpon zaita, Anbrosio. Nik nere neurriak artuko ditut. Baita zureak eta denenak ere. Or konpon esan dizut, baiña ortara etorri nintzan da...

— Jainkoa al augu, bada, ere buruari olako garrantzia emateko? Emengo neurriak ondo artuak zeudek len ere. Esan dit: altzairuzko txapa ortan gora igoko dan katurik ere ez dek sortu oraindik.

— Eta arkaitzari lotuta dagoen katetik sartzen bada?

— Ire itzetatik, edozeiñek pentsatuko likek emakume alargunen bat aizela. Len ere esan dit: gorputzez Sanson dirudik, baiña bai kobarde ta beldurtia.

— Letaniak errezatzen bezela ari zera, iseka ta iseka. Baiña nik beldur detana etortzen bada, ikusiko degu arazo onek nolako bukaera izaten duen, ikusterik izaten badezu. Ori, deskuidatzen bazera. Arek dizun gorrotoarekin josiko zaitu.

— Gaiztorako dagoenak, onenbeste berriketa gabe egiten dik azioa.

Arrazoi auek esan ondoren, purrustada batean aldegin zuen kapitanak. Baiña Joan Joxe etzan lasai geratu, eta bereala asi zan neurriak artzen. Kapitana, ainbeste pastilla zikin artuz, iroitua zegoen, eta erdi lotan.

Joan Joxek lenengo bere lagun euskaldunekin itzegin zuen, esku artean zekarren artaz: len bere-

kin lanean aritutako eta kapitanak bialitako marrokiar arek nolako zemaia egiten zituen, batez ere kapitanaren aurka; eta:

— Ari azio txarra egitezkeroz, gu ere gaizki ibiliko giñukek. Gu aurretik eraman gabe ez baileukake ori egiterik. Batez ere ori emengo marrokiarrekin batuko balitz. Askotan ikusten baidet nola oiekin izketan ari dan.

— Aizak: askotan pentsatu izan dit nik ere ori —zion batek.

— Ori dek nere iritzia ere. Baiña orrek ez dizkik bost xentimo balio. Eta, etorriko balitz bere lagun baten bitartez, marrokiarrak berak botako litekek itxasora. Ez dek ori beste langilleak nai orduko bialia.

— Eta geron buruak babesteko zer egin gentzakek? Armatua etorriko baita.

— Lau euskaldunok elkar artu eta al degunarekin geron buruak babestu gaur beiñepein. Andik aurrerakoa gero pentsatuko diagu, batez ere arraixkua daukagun lekuan. Ontzirako sarrera erreza zegok. Arriari lotua dagoen katetik aixa sartu litekek. Eta beti jarraika zetorkiguk ori.

— Eta nola? —erantzun zioten denak piakaitz.

— Gaur al degun bezela: makilla burni puskaren batekin ondoan artuz. Gaiñean lo egin ere bai. Nik, beti bezela, pistola txiki bat bazeukat ortarako eresia, kapitanaren gordean. Gaur ez bada ezer gertatzen, urrengorako denentzat ekarriko dizkit. Kapitanari eskatzea alperrikakoa dek, deabrua bezela jarzen dek eta.

— Bai. Gu sartzen geran kairik geienetan somatzen dizkit, bai, elkarrizketan, emendik bialitako txirtxil arekin. Gixaixo bat zirudik, baiña billaua dek; eta duen pixarra, gaiztoa.

— Kapitana ere, bada, otsoa bezela zebillek.

— Beti dek ori olakoa; eta urteak igaro aiñean jenioz biurritzen. Baiña aldizka oparoa ere bai —zion batek.

— “Au izango dek ire azkeneko biajea” arpegira bota zidak, arraixkuan gaudela aipatu diodanean. Nai badu, lo egin dezala. Eta “zurea ez al da ala izango?” erantzun ziot. Or konpon dedilla. Nik artu dizkit nere neurriak. Gaiñean egingo dit lo ere, orain arte bezela. Ortik aurrerakoa zuen esku zegok.

— Eta, etortzen bada, zer egin bear diagu?

— Orixe galdera! Al deguna, motell. Ez nitek ige-sirik egin nai, kapitanaren mutil bezela bainago. Marrokiar aul orrek baiño buruauste geiago eman-go ziguk kapitanak. Orren beldurra zeukat. Etsaia armatua etorriko dek. Bere lagunentzat ere anbat ekarriko dizkik. Eta, barruan arrapatuko baziñuzte, bertan tiro bana eman ere bai, gero kapitanari erasotzeko. Arek gure aurka ez dik ezer ere. Baiña, txoraa ez bada, guk nagusiaren alde egingo degula bazekik. Inolaz al badu, kapitana galdu nai dik. Giro bikaiña zegok eta gera gaitezen gaiñean.

— Ik orain arte esan dekan guzia ez dek ire egi-tekoa. Arma ekartzea ain gutxi. Guk ari entzungo ziogu, baiña iri ez. Urteak zeramazkigu guk emen, eta ez dek olakorik gertatu. Oraindik urtebete ez daramakik, eta laster egin aiz ere ustez emengo jabe. Denetan zaarrena au dek, eta langille guzien enkargatua, kapitanaren urrengoa. Ik, berriz, orren lekua artu nai uke. Lau bat urte bazeramazkik petral orrek ontzi orren atzetik, eta kapitanaren alaba txar ura bereganatu nairik.

— Guretzat arraixkurik txarrenetakoa ez dek ori, kontrabandoan gabiltzala baizik alegia: eta agian non gauden ere jakingo ditek, eta ez dek bakarra etorriko, ik dioken tisiko ori bezela. Eta ez dek



lenengoa gu emen sartzen gerala. Eun lagun bedere-  
nik etorriko dituk au ustutzer. Aietako bat ispi iza-  
tea aski genikek denok orma orren ondoan tiro bana  
eman ta garbitzeko. Ori dek gaiztoa. Ez ik diokena.

— Orduan ez dezute nere asmoa ontzat artzen?

— Oraindik i sartu berria aiz. Ez dakik, gaiñera,  
emengo gora-beeraren berri, eta kapitanaren lekua  
artzen dek. Ire agindu auk arek eman bear dizkik  
eta ez ik.

— Kapitanaren itxaropenetan ez bizi.

— I augu orduan iñork izendatu gabeko nagu-  
sia. Ik uste baiño buru argiagoa zeukak arek orain-  
dik. Bere neurriak ondo artuak edukiko dizkik.

— Bai. Lo zurrungan geratu dek. Arek nabaitze-  
ko beldurragatik, baita elefanteak ere sartuko ituke  
barrura. Zer asmotan zerate orduan?

— Ni, beti bezela, barrura joango nauk. Aspal-  
dian osasun kaskarra zebilkit; eta arratsak goizera-  
ko otzegi egiten dituk neretzat.

— Bizia maite badezute, datorrenari ez aterik  
zabaldu.

— Ortan irekin gaudek.

Joan Joxe bakarrik utzita, lau euskaldunak  
barrura joan ziran denak. Sartu berri zan ume  
mukitsu batek etzuen aginduko saillean.

— Laurak emen geratu balira, beste kuku batek  
joko ziguken.

Gau giro eder artan dena ixilik zegoela, mendiko  
pizti ta egazti batzuen karrasiak entzuten zirala, eta  
eten gabeko itxasoaren eragiña, Joan Joxek, esnatu  
zan batean, ikusi zuen txalupa txiki batekin norbait  
ibaiak gora igarotzen.

Parrandara ateratako eta beeko barrio koxkor  
aietakoren batetik etxera zijoanen bat izango zala,  
erretiran zetorrena alegia, pentsatu zuen lenengo.

Baiña ontziaren ondora iritxi zanean, andik laster barrundik atera zan langilleetako batek lagundu zion ontzi gaiñera sartzen.

— Orra bi etsai armatuak etxean. Orra erakutsi altzairuzko orma legun batean nola igo liteken.

Biak marrokiarrak ziran noski, ondo ezagutu ez bazituen ere.

— Nere esana entzun balute, gure buruak babesteko aukera ohea izango genduen orain. Auek sartuko dituk. Lagun marrokiarrak armatuko dizkitek. Euskaldun gizarajoak untxiak bezela lotan arrapatuko zizkigutek, eta ezer ere kostatzen gabe egingo dituk ontziaren jabe. Kapitana, berriz, zurrungan arrapatuko ditek, Joan Joxeri ez entzuna beranduegi damutua.

— Aiek barruan ezkutatu ziranean, bakarrik baizegoen, katetik iges egitea pentsatu zuen lenengo. Baiña naiz bakarrik izan, armatua zegoen, eta barruan zer gertatuko oraindik ikustekoa zegoen. Marrokiar guziak etzuten ontzat artuko zemaika zetorrenaren agindua. Agian barruan erabakiko zuten arazo ori, euskaldun ta marrokiarrak elkar artuz. Makinistak, bere purrustada guzien gaiñetik, asko maite zuen kapitana. Onek ere bai makinista.

Ori ikusi zuenean, kapitanari abisatzeko asmoan igo zan, arek lo egiten zuen lekura; eta zurrungan arkitu zuen, lo betean.

Oierakoan, lo ondo egiteko, pastillak artzen ari zala bein baiño geiagotan somatu zuen. Kapitanak, zeukan lantegirako, etzuen balio. Ontzia ta bertako langilleak nola babestu bere bizkar zegoen; eta, berak bere burua ezin babestu bazuen, nola langilleak? Ortarako beste bat zeukaten aukeratu bearra.

Bein uste gabeen gaberdi aldera esnatu zuen; eta, armaren bat eskuetan eduki balu, bertan garbituko zuela zemai egin zion. Etzan, bada, Joan

Joxe ura esnatzera ausartzen, sekulako purrusta-  
darekin erasoko ziolakoan, beren ontzia ta beren  
buruak babesteko kaltegarri. Bakarrik geratu zan,  
bada, etsaien kontra.

Orain, biren arte ederki babestuko zutenak, baka-  
rrik aurpegi eman bearra. Baiña barruan zer gerta-  
tzen zan, asko zaildu edo erreztuko zan bere babesa.

Sartu ziran, bada, biak barrura. Luzatu gabe  
antz emango zion gazteak ontzi artan zer gertatzen  
zan. Erne jarria zegoen.

## Marrokiarrak

**M**ARROKIARRAK lau ziran. Etziran denak euskaldunekin ondo etortzen. Lapurrak omen zirala, eta zikiñak gaiñera. Sona gaiztoa zeukaten beiñepein, eta gutxitan ibiliko ziran elkarrekin, lanerakoan izan ezik. Kanpoan, berriz, ezta pentsatu ere.

Ontzian bertan ere oso gutxitan. Apal ondoetan musean ariko ziran, baiña beti euskaldun eta marrokiarrak berex. Lotarako ere etziran leku batera bilduko. Etzeukaten, bada, elkarrekin konfiantzarik, batez ere lapurrak ziralako.

Alare, makinista marrokiarra zan; eta, len esan degunez, kapitanak asko maite zuena. Estuasun askotatik onik atera zuen. Oso iaioa zan ortarako. Au ta beste marrokiar bat ere ondo konpontzen ziran euskaldunekin.

Len beren langille laguna izana eta, guk nor dan ondo dakigun bezela, kapitanak lantegitik bialitakoa, onek galdu nai zuen bere lengo nagusia. Gorroto ikaragarria zion. Orregatik, len lagun zituenekin elkar artuta, arratsean ixilka, kapitanaren

uste gabea, au garbitzeko asmoan zan. Baiña lautatik bi ixilik geratu ziran. Etzuten billaukeri ori ontzat artu. Besteak egin zuten tratua.

Gutxi irabazten zuten, baiña mutil zaar aientzat naikoa. Janarengatik etziran asarretuko. Aske zeudenean ere, etzuten obeto jango. Ez baizuten lanik billatuko. Artzen zuten tratua ere etzan gaiztoa. Andik kanpora, bada, etziran obeto biziko.

Erdi tisiko aren eder egiteagatik etziran, bada, beren buruak ondatzeko arraixkuan jarriko. Orain, bada, barruraino sartu baziran, illun zegoen eta ango bi marrokiarren ibilleren berri etzan ondo ikusten. Lau marrokiar batetik, txirtxillarekin bost, eta lau euskaldunak bestetik, aurrez aurre arkituko ziran. Sartu berriak, seguru asko, armatuak, berekin bat etzetozenak iltzekotan.

Joan Joxe etzegoen bakarrik. Baiña bere burua babesteko obe, ala balego.

Ia ordu erdi bazan kaskarra esaten ziotena, kapitanaaren etsaia, sartu zala. Baiña oraindik barru artan etzan kinkiorik. Goian zai zegoen Joan Joxe. Arentzat itxura ona zan ori: ezin konpondu zirala, alegia.

Kapitana ta gazte ura nola arrapatuko erabakitzen ariko ziran, zalantzarik gabe. Seguru baizekiten kapitana pistola txiki bat ibiltzen zuela. Gazteak ere bai agian, kapitana eman.

Gazteak bazekiela, gaiñera, kapitana ta kaskarraren elkarren arteko ezin ikusia, eta agian Joan Joxe edukiko zuela itxu aurreko bezela goian, kapitana ustel aren zurrungak entzuten. Aiek biak, bada, elkar artzen bazuten, aiek andik botatzen etzan auntzaren gaberdiko eztula izango.

Lenengo, beiñepein, lotan zeuden lau euskaldunak iltzea erabakiko zuten. Atzean bizirik uztea etzizaien komeni. Len esan degunez, etziran leku batean bizi ere euskaldunak elkarrekin. Marrokiarrak berdin.

Erabaki ori artu zuten len kanpoan; baiña ez denak. Makinista eta beste bat ere etziran orren aldekoak. Zer erru zeukaten euskaldunak txatxu aren eder egiteagatik, lotan zeuden lekuan iltzeko?

Aiek zeuden lekura sartu naita, sarrera, len egundo ez bezela, itxia arkitu zuten. Arritu ziran. Bazirudien dena bazekitela, eta an sartzea galeraziko ziotela.

Marrokiarren atea jo zuten, baiña etzuten erantzunik artu. Gero, euskaldunena. Andik ere ez, bada.

— Zerbait gertatzen dek emen. Oiek, iñondik ere, gogor egiteko asmoan, elkar artu ditek. Leku onean geratu gaituk orduan.

Berriro ere deitu zuten,

— Utziguzute pakean! —artu zuten erantzuna.

— Ez al dakizute nolako erabakia artu genduen?

— Ori zuek artu zenduten. Besteok ez gaudek zuek nai dezutena egiten uzteko. Zoazte beste leku batera lotara.

— Bai. Erne asko egongo dituk goikoak.

— Emen etzegok, bada, zuentzat lekurik. Bizia maitagarria dek. Berdin armatuak etorriko zerate, zuen erabakia nai ez degun guziok garbitzeko asmoan.

— Zer egin gentzake orain?

— Ire egitekoa dek ori. Eddorrek erabaki. Agian bazekitek ire berri, eta gu noiz aterako zai egongo dituk. Eta, ezer ez irabazteko, gure biziak iregatik arraixkuan jarriko ditugula uste al dek?

— Au jakin banu, ez niñun etorriko.

— Eta nork deitu au?

— Ez al genin, bada, itzegin eta elkar artu?

— Irekin batera dagoen orrek dizkik errurik geienak, iri sartzan lagundu dikelako. Alperrik egingo dituk oiua eta jarriko aiz laguntza eske. Atez

barrura ez aiz sartuko. I armatua ator, garaile gurekin nai dekana egiteko asmoan.

— Orduan zer egin bear diagu? Lenbailen jotzea komeni zaiguk.

— Sartu zeraten lekutik atera zaitezte. Ustu zaleak etorri arte ez diagu aterik zabalduko. Guk ez diagu ezer ere kapitanaren aurka. Ire eder egiteagatik ez gaituk, basoko piztiak bezela, elkar iltzen ariko.

— Or banego, denak bertan josiko ziñuztekek.

— Ortara etorri ez aiz, bada? Ez bagendu atea itxi, goikoak eta beekoak il gabe etziñaten emendik joango.

— Billaukeria dek au.

— Irea dek billaukeria; ez gurea. Iri onera sartzen lagundu dikenari esaiok. Estuasun ontan ixil asko joan dek. Bestela, ez genioken utziko. Eta berriketan ari baiño obe dezute lenbailen aldegin. Bestela, kapitanaren eskuetan eroriko zerate, eta badakik aga aundi bat non dagoen ortarako preparatua.

Azkenean, goikoak etzutela ezer jakingo ta aldegitea erabaki zuten. Kapitanaren eskuetan erortzea baiño obe zutela. Goikoak ez bazekiten sartu zira-  
nen berri, ea biak uste gabeen arrapatzen zituzten.

Elkarrizketa ori dena entzun zuen goitik Joan Joxek; eta, aien erteera al zuen erosoena artuz, zai jarria. Bat beiñepein an eroriko zan; eta, tiroak entzutean, barrukoak ere etorriko zitzaizkiola laguntzera.

# Kapitana

**A**RMATUTA gora zetozen marrokiarrak. Armatuak, baiña beldur geiago ematen zion lotan zegoen kapitanak, arazoa ondo bukatu edo gaizki. Zergatik etzion abisatu botako zion aurpegira. Abisatzen bazion, berriz, deabrua bezela jarriko zan, ondo esnatu arte; eta, lagundu bearrean, bere burua babesteko kalte egingo zion.

Askotan somatu zuen oierakoan beti pastillak artzen zituela lotarako; eta begiondo ugeldu ta aundituekin azaltzen zan goizean. Bestela ere jenio kaskarrekoa zan. Aspaldian gaixorik zegoen, bada. Lan ori utzi nairik zebillen. Baiña ontziaren nagusiak, ortarako bat aukeratu arte, jarraitzeko agintzen zioten.

Arratsean zerbaitegatik norbaitek esnatzen bazuen, deabru bat bezela jartzen zan. Orregatik etzuen Joan Joxek esnatu nai izan, pakerik emango etziolako.

Marrokiarrak barrundik birao ta zemaika atera ziranean, Josetxo, bere burua ezik, kapitana ere salbatzeko, erne jarri zan.



Lenengo azaldu zanari, pistola txiki bat eskuan zekarrela, sutu zion eta zerraldo erori zan. Baiña etzekien txirtxilla zan erori zana edo bestea.

Bitan bizirik geratu zanak itxasora jauzi egin nai zuen, zegoen bezela dena utzita. Inguru samar zegoen eta besotik eutsi zion gazteak. Une artantxe norbaitek sutu zuen bigarrena. Kaskarrak noski, eta Joan Joxeri. Arma berekin baizeraman. Baiña onek eskumuturretik eusten zion, eta bala norabait joango zan.

Zoritxarrez, ordea, tiro aien otsera esnatu zan kapitana, oiuka ta tiroka, erotu bat bezela, Joan Joxeri deika:

— Joan Joxe, non abil? Zer uan ori? Zer gertatzen dek emen? Nor zebillek ontzi ontan armatua? Ez al didak erantzuten? Deabruak eramango al au, geiago azalduko ez aizen lekura! Baiña non sartu aiz, nere oiuei ez erantzuteko? Leku onean geratuko dek ire itxaropenetan bizi dana. Arrapatzen baaut, bertan bi tiro emango dizkit. Azkeneko ogiak jango dituk. Baiña non sartu aiz ez erantzuteko?

Ara-onera, ero bat, bere arma eskuan, oiuka zebillen, lenengo ikusten zuenari sutzeko asmoan.

Ango oiuk eta tiroen otsera, goikoak eziñean baziran, laguntzeko asmoan lasterka atera ziran barrukoak. Baiña iñor etzan ausartzen ari itzik trukatzera.

Ontan, egoaidera bi gizon ikusi zituen indarka ari zirala; eta esna berriko itxumen artan okerrena iduritu zitzaion noski, Joan Joxek erantzuten etzionean: bera lapurretakoa zala, eta ontzia aien esku zegoela.

Nor ziran pentsatzen egon gabe, bi tiro sutu zituen. Bai ederki asmatu ere. Ia *bocajarro* baizituen. Bat zerraldo bertan erori zan barrura. Bigarrena, berriz, buruzpera itxasora. Egundoko zaplas-

tekoa atera zuen. Eta oiuka jarraitzen zuen oraindik kapitanak:

— Nora sartu aiz, Joan Joxe, ontzian lapurrak sartu ta ez babesteko?

Ezkutuan ixilik zegoen langille batek ala erantzun zion:

— Lapurrak edo norbaitzuk ontzian sartu dirala badakigu; eta, Joan Joxek bat il da bestea arrapatuta indarka ari dirala, zuk il dituzu biak. Alperrik ari zera, bada, gazteari oiuka. Ainbeste aldiz aipatutako marrokiar kaskar arekin burruka ari dala, zuk il dezu. Denok bizia zor diogu.

Une bateko ixil unea.

— Nik Joan Joxe il detala? Ori ez dek egia, bizia ere emango nitek beragatik eta.

Oiu egin zuen berriro:

— Joan Joxe!

Baiña arek etzuen erantzuten.

Berriro langille berak, besteren bat il etzezan, erantzun zion:

— Anbrosio, mesedez lasaitu zaite eta entzun zadazu.

— Zer entzun eta entzun ondo? Zer gertatzen dek emen? Non sartu dek Joan Joxe?

— Ez dakit ez ote dezun zuk il. Zuk il dituzun bi aietako bat ura zan. Itxasora erori dana noski, gure biziak salbatu ta gero. Etsaiak armatuak etorri dira. Bakarrik aurpegi eman die.

Eta berriro, ixil une baten ondoren:

— Baiña zer gertatzen dek emen? Zuek ere gainean zabiltzate. Joan Joxe nik il detala? Ezin litekena da ori. Baiña zer gertatzen dek, zuek ere erdi nastuak zabiltzate ta?

Atzetik urbildu zitzaion beste langille bat. Arekin etzegoen piatzerik; eta, lengoekin izketan ari zala,

kendu zion arma. Bere buruari bi tiro emateraiño ere itxutu ziteken.

— Emaidak arma ori, emen etsai geiago ere izango dituk eta.

— Lasaitu zaite, Ambrosio, eta entzun zaiguzu.

Bere lenengo itxumen artatik esnatu zanean:

— Zer gertatzen dek emen, Anton?

Ezagutu baizuen bere langilleetako bat zala.

— Joan Joxek beldur zuena gertatu da. Gazteak erne egoteko esan digu; al badegu, gaiñean geratze-ko. Baiña gu barrura sartu gera, iñor etortzen bada ere, ara sartzen ez uzteko. Ez baidiogu dena sinistu. Baiña erne geunden. Lenengo tiroa entzun deguneko, gaiñera atera gera. Ortxe, gaberdi aldera, gure langilleetako marrokiar batek soka luzatuta igo da. Jakiña, biak armatuak noski. Beren lagunetara sartu nai zuten. Baiña ez dira konpondu, eta ez diete sartzen utzi. Zure adiskide ori bakar baten laguntzarekin geratu eta iges egin naiko zuten. Erne zegoen, ordea, Joan Joxe; eta gaiñera azaldu-takoan sutu dio. Bat bertan zerraldo erori da. Besteak, naiz armatua egon, jauzi egin nai zuen itxasora. Baiña gazteak besotik eldu dio. Marrokiar onek sutu dio. Baiña, agidanez, ez du asmatu. Ortan zu esnatu zera; eta itxumen ortan, burruka nor diran jakin gabe, sutu dezu. Bat bertan erori da. Ez daki-gu nor dan illa eta itxasora eroria.

— Gazte ori nik il detala? Oraintxe geratu nauk iñorako gauza ez naizela. Gazte eder ori nik il badet, zer esan bear ditek neregatik?

— Zure lekuan egon banintz, ez dakit berdin ez ote nuen egingo, zuk etsaien erdian bakarrik zeundela pentsatuko zenduen ta.

— Au geiegia dek. Ni ez nauk emendik iñora joango. Nere burua itxasora botako dit tiburoien janari, ta kito nere munduko egunak.

Bitarte ortan, kapitanaren beldurak zeuden eta marrokiarrak bertan illak nor ziran jakin nai zuten.

Marrokiar kaskarra zegoen alderik alde zulatua. Au kapitanaren lana zan. Eta arekin indarka ari zan gazte gizarajo ura itxasoak eramango zuen.

— Nork daki, tiro geiagoren beldurak iges egin badu ere?

— Igari geiago jakin gabe bizirik ateratzeko leku txarrak dituk auek.

— Beti ere itxaropena.

— Kaskar madarikatu onek!

Eta amorruz ostiko eman zion kapitanak illari.

— Il da gero ortaraiño ere bai? —esan zion batek.

— Ez dit au ondo egin, ez —erantzun zuen kapitanak—. Alare, onek dana merezi likek. Kakatsua aleena! Bazter guziak nazkatu dizkik. Eta, bizi diran etxean, nere emazte ta alaba beldurak aidean eduki dituelako, bi presa zakur aundi zeuzkatek etxea babesteko. Baiña gaztea galduak nere amets guziak mozten zizkidak. Ez nauk etxera joatera ere ausartuko. Badakizute berri kaskar onekin nere maiteei nolako naigabea emango dieten. Seme bat bezela geneukaken.

— Ontzi gain ontan besteren bat ere bazegok illa. Orri sokarekin sartzan lagundu diona. Ori, Joan Joxek illa. Onek ixilka bazebiltkien arma. Arek sutu dio lenengo tiroa. Eta, zuk sutu dezunean, kaskarrarekin zebillen indarka.

Argitzen asi zuenean, bereala arkitu zuten.

— Alu au ere bai? Amaika mesede egin ziot nik, bada, oni. Or konpon! Geron buruak babesteko egindako lana dek au.

Kapitan jauna gero ta lasaiago ikusi zutenean, lau euskaldunak urbildu zitzaizkion, nolako eraba-

kiak artu jakiteko. Berdin langilleen laguntzaren paltarik etzuela izango. Illak putzura, bai, ta kito.

— Ederki pentsatua. Baiña marrokiarrak zer esan bear ditek? —zion kapitanak.

— Zer esango dute? Arrazoa degula, ez berak. Nola ez dituzte il, sarrera galerazita? Azkenean, zure eskuetan bizirik erortzeko beldurrak atera dira. Erru geienak, alare, sartzen lagundu dionak ditu. Joan Joxek eman dio bere merezia. baiña gazteak bazuen gertatu danaren beldurra.

— Gizarajoa illa erori bada, ez diagu aren aztarrenik billatuko. Onuzkero tiburoiak irentsiko ziteken. Nik makinistarekin konfiantza osoa zeukat. Ni ez niotek gaiñera ontzi ontan asko ikusiko. Gaixo nabillek eta ez dit balio.

Ordua zala ta, euskaldun ta marrokiarrak denak batera bildu ziran, eta zalantzarik gabe denak arrazoi eman zioten kapitanari.

— Txirtxil aren asmoa etzan besterik, berak askotan kontatua: lenengo, lau euskaldunak, zeuden lekuan bertan il; gero, marrokiarrok batera zuri eraso.

— Eskerrik asko. Etsaiak beiñepein beren burua ondatu ditek. Baiña, zoritxarrez, gure salbatzaillea ere palta dek.

Kapitanak bi tiro sutu zituen, eta indarka ari ziran biak arrapatu.

— Joan Joxeren berririk ez diagu, baiña beti ere itxaropena.

Eguna argitu baiño leenago, langille guziak, euskaldunak eta marrokiarrak, bat egin zuten naigabe-an. Berak salbatu zituen maitagarri bat zan galdua, eta benetako tristura zegoen aien artean. Bi illak billatu zituzten. Ura ez, ordea. Urera erori baizan. Ez dakigu kapitanaren beldurrak bere burua bota

ote zuen ere. Inguru aiek guztiak, ontzitik asi ta dena, goiak eta beak, aztertu zituzten; baiña etzan aren aztarrenik azaldu.

Ontzia ustutzero etorri ziranak ere, beren buru egiten zuena azaldu artean, langilleekin bat egin zuten. Inguru aietan etzan, bada, metro bat ere aztertu gabe geratu. Mutil ura ito bazan, etzala ontzi aren inguruan galdua. Itxaso geldigeldi zegoen, eta ezin ziteken ildakoa uraren eragin geiago gabe andik itxas barrenera atera. Galdu bazan, andik bizirik aldegin zuelako.

Izan ziteken mendira aldegiña ere, ontzia mendi bazterrean zegoen eta.

Geienen iritzia au zan: mutilla etzala an bertan galdu, kapitanaren tiroz alegia. Bestela, nai ta nai ez, billatu bear zutela. Zalantzan, baiña oraindik itxaropena.

Gerrilleroen buru egiten zuena etorri zanean, kapitanarekin itz batzuk egin zituen, eta presaka ta muturka'ustu zuten, etsaiak beren berri bai omen zutela uste zuten ta.

Ustu ta agurtzerakoan, gerrilleroak ala agindu zioten kapitanari: egun artan bertan, illundu baiño len, buzo ta guzti itxas bazter aiek aztertuko zituztela. Baiña orduan ezin zitekela, etsaien beldur zirala ta. Eta aal zan azkarren usu zuten.

# Igesa

**A**IEK ustuzuten orduko, agindu au artuzuen makinistak:

— Gure berri badakitela noski esan zidan gazte auen buru egiten duenak, eta lenbailen atera ta goazemak emendik. Gazte gizarajoa ezin billaturik ez gaituk ibiliko, bestela bertan arrapatuko giñuztekek eta.

Marrokiarra, makinista alegia, oso iaioa zan. Amaika buruaustetatik atera zuen kapitana; eta bere lagunak bi sailletan berextea ere aren lana izango zan.

Unetxo batean aterata, jarri ziran martxan. Baiña etsaiari iges egiten etzan orren erreza izango. Arratsean an ezkutuan zeudela ere, inguru samar ibilia zan etsaia.

Aberri artako agintariak bazekiten itxas ontzi batek noizikan beinka sarrerak egiten zituela nazio artara. Batzuetan bear-bearrezko gauzak eramango zituen; auek agirian. Armak ere bai, ordea, tarteka; baiña auek ezkutuan. Ontzia, iñork eskatu gabe, alde artara atera zala ere bai.

Aren atzetik zebiltzan, bada; baiña ezin arrapatu.

Kapitanak ere bazekien orren berri; eta ustuleen buru egiten zuenak ere erne ibiltzeko agindu zion; inguru artan zebiltzala.

Eguntxinta orduko azaldu ziran andik-emendik txara barrundik erreka txiki aietan barrena; eta, ustu zutenean, kapitanak, esan degunez, agindu zion makinistari al zuten lenena aldegin bear zutela.

Arma kontrabandoa aberri oietan gogotik zigortua zegoen. Gerrillak baizebiltzan.

Al zuen kemen guzia eman zion ontziari. Dana-ren bearrean arkituko zan, eta aldegin zuten andik, etsaiak inguratzen asi baiño len.

Lekurik egoki eta erosoena ordurako artuak eduki arren, iñork altorik eman gabe atera ziran aberri artako uretatik; eta len askotan zamatzen zuten kai eder batean ontzia sartu zuten, zerbaitekin zamatzeko.

Ura pasa ta gero, ertzaiñak arkitu zituzten iges egin zuen ontziaren aztarrenak. An ezkutuan zeuden txalupa txiki asko ere arrapatu ta txikitu zituzten. Baiña armarik ez.

Aiek iges egin zuten, baiña kapitanari etzion ajolarik. Bere lenengo lana beren etxeetara abisatzea izan zan, gertatu zanaren berri emanez; eta ontziaren jabeari, beste bat olako kaietan zegoela eta ontziaren erantzunkizuna artzeko. Bera berdin kapitan izateari uztera zijoala. Lantegi ortarako gauza etzalako, gertatuaren erru guziak bereak zirala.

Abisua artu ta bereala azaldu zan ontziaren jabea, arazo ori lenbailen konpondu ta martxan jartzeko asmoan. Ibilian zeukala irabazia, eta ez kaian loturik edukita.

Ontzian bertan arkitu zuen kapitana. Itzaldi luze ta lasai bat egin zuten elkarrekin.



— Eta ildako oien gora-beera nola konpondu bear dek?

— Bi marrokiarrak ondo illak zeudek. Berak ontzira arratsean igo ta eraso zigutek. Baiña nik baiño obeto jakingo dek arazo oien berri. Al badek, ixilka ibili. Badakite kontrabandoan armak ekarri ditugula. Oiek, emen beiñepein, ez ditek bere artekorik. Gazteak ematen zidak benetako naigabea. Ogei urteko mutil sasoiko bikaiña. Esan gentzakek berak salbatu gaitula. Nik, itxu-itxuan, beste bat zalakoan, sutu ta illa bada beiñepein. Etzekiagu besterik: urera erori zala. Agian igesi egiña dek. Mutil ontaz etzekit besterik. Bere gurasoekin uste dit ondo konponduko naizela. Baiña aiek zerbait artu bearko ditek noski.

— Bai. Ori legeetan erabakia zegok; eta aien arauera ordainduko zaiek gurasoei.

— Ez dek erreza, nola zabiltzaten salatu gabe, arazo au ondo konpontzen. Ate askotan zeukat jo bearra. Baiña elduleku oneko lagunak ere bazeuzkat.

— Bi marrokiarrak beiñepein geron buruan babesteko il dizkiagu.

— Armen kontrabandoan ez baziñaten ibili, ori polizien lana uke; ez nerea.

— Guk agindua egin diagu, bada, ta...

— Nere errua dek ori. Eta ire lekuaren modukorik ire lagunetan edo langilleetan bai al dek norbait?

— Bai: gazte samarra, ona, eskol andikoa, dane-kin ondo datorrena. Lontxo zeukak izena. Nik orri utziko niokek, oraingoz beiñepein. Gerora zuek ikusiko dezute. Jainkoak dakien bezela iges egin diagu. Onuzkero gure aztarrenak billatu dizkitek. Baiñan, zorionean guretzako, berandu. Kontrabandotik zetorrek ontzi auen bizia. Gurea ere bai noski. Baiña, al badek, gaurtik aurrera ez armarik biali, zenbait aberritara beiñepein. Bestela, ontziaren

bizia seguru asko, baita langilleena ere noski, dena galduko uke. Berrogei urte auetan iraun dit ortan, utsik txikienik egin gabe. Gogozkoa nin nik lantegi au. Baiña oraintxe nere buruarekin ezin dit. Okerragokoren bat gertatu baiña len, garaiz erretiratzea obe. Etzidak kalterik egingo. Gazte ori galduak zearo erorita utzi niok. Etxeko martxa jartzeko, ori neukaken aukeratua.

Nagusiak ontzat artu zuen kapitanaren aolku eta erabakia. Gaixo ta eskasa zegoela igertzen etze-  
goen zailla.

Anbrosio jauna, bada, bere langilleak agurtuz, zai zeuzkan emazte ta alabaren artera joan zan. Txakur-  
ren zaunka otsera oartu ziran Anbrosio etorria zala. Besarkada batean lotu ziran. Anbrosiok ere negar egiten zuen. Emakumeak zer esanik ez, berriz.

Irurak batera sukaldera joan ziran. Emazteak eta alabak jakin nai zuten zer gertatu zan. Irurak malkoak txukatuz, poliki-poliki dena kontatu zien.

— Orduan arek salbatu ziñuzten.

— Egia ori. Ni ez banintz esnatu, etzan olakorik gertatuko.

— Zu etortzeak pozten gaitu. Baiña aingeru ura galduak illundu digu berriro etxea. Ziur al zaude illa dala?

— Ez alderatzekorik ere. Billatu arte ez det itxa-  
ropenik galduko.

Amaika meza atera zituen amak. Berri onen bat noiz etorriko zai geratu ziran irurak.

## Illetak

**I**LLEBETE triste samarra joan zan. Inñondik etze-torren Joan Joxeren berririk. Etzegoen, bada, zalantzarik, geienentzat beiñepein, gaztea illa edo bizirik zan. Urera erori eta arenak egin zuela. Kristauak ziran eta zor txiki bat bazioten gurasoak: illetak ospatzea alegia.

Onenbeste denboran, bizirik balego, bere aztarrenak azalduko ziran. Etzituen gurasoak urduri ortara edukiko.

Etzeukaten bizirik azalduko zan itxaropenik, eta seme maiteari zioten zor txiki ori bete bearra zeukaten.

Emakumeak izaten ziran, gure gazte denboran beiñepein, arazo auen gora-beerak eramaten zituztenak. An ere amak egin zuen lan ori.

Etsipena artu zutenean, erretore jaunari baimena eskatu zioten, il zan beren semearen illetak ospatzeko. Itxasoan galdu zala illebete igaro berri zala.

— Bai, emakume, bai. Bizi bada ere, meza batek ez dio kalterik egingo. Azkeneko itxasora atera zanean, nerekin aitortu zan eta Jauna artu zuen;

eta ondoren joan zan emendik. Orduan gazte garbi ta zintzoa zirudien. Ura, zituen urte aiekin, etzan itxurak egitera etorri izango. Ez det geroztikako berririk. Baiña benetako naigabea eman zidan alako gazte paketsu ta eder batek artara itxasoan bizia galdu bearrak.

— Ogei urte bete berriak bear zituen orain. Baiña nere semea etxetik atera bezin kristau garbi ta sinistuna zegoen. Kapitanak asko maite zuena, eta badakigu ondo zaindu zuela. Beren alaba bakarrarekin ezkontzea nai zuten gaiñera. Semea deitzen zioten, nik entzun detanez. Olako gazte bat ez litzake gaizki etorriko etxe artara. Gurasoak beldurrak aidean bizi dira, alabak nolako suia ekarriko duen kezketan. Etxeko pakerako ta etorkizunerako garrantzi aundia baidu orrek.

— Nik benetan naigabean laguntzen dizuet —zion erretoreak.

— Eskerrik asko. Mundua ikusi nai zuen, ta laster itxi diote bidea.

— Eta etxeko martxa ondo geratu al zaizute?

— Gure baserrian ez da aren utsunik nabaitzen. Semerik zaarrena etxera ezkondua daukagu; eta erraiña benetan zintzoa, garbia ta langillea. Eskerrek Jaunari. Bi seme ere badituzte. Guk beste bi seme baditugu, biak ezkonduak. Alare, galdu zaigun semea, zalantzarik gabe, geiena maite giñuna. Baiña, jakiña, aren zai ezin giñazke bizi. Etsi degu eta guraso kristauak seme kristau bati bezela illetak ospatu nai dizkiogu.

— Len ere esan dizut ez dagoela ezeren eragozpenik. Zerok aukeratu eguna.

— Gaur illaren lenengo egunean gaude noski. Illebetea galdu zitzaigula, eta egun ortan nai genituzke illeta oiek ospatzea.

— Ondo dago. Eta ordua?

— Guretzat erosoena amarretan litzake. Zure berri ez dakigu.

— Ederki. Amarretan orduan. Guretzat ere ordu egokia da ori.

— Eta zenbat da ordain bearra?

— Onenbeste. Baiña ori, ospatzean emango didazu. Ainbeste uste gabeko gertatu litezke bitarte ortan.

— Agur, bada, bikario jauna. Ordu ortan, Jainkoak ala nai badu, famelirik geienak etxe ontara bilduko gera.

Emaztearen eskuetan utzi zuten kapitanari abisatzea. Au gaixo samar ote zebillen otsa zegoen. Gaztetan Josetxoren aitaren lagun aundia izana zan, eta seme galduaren gora-beeren batzuk ikasi nai zituzten.

Illetarako deia zabaldu egiten zan baserrietan beñepein ethez etxe. Neroni ere ortan askotan ibilia naiz. Baiña erne ibili bearra zegoen, erdi mozkortuta geratu gabe, baserri guzietan sagardoa eskeiñiko zizuten ta.

Egun ori ere, bada, etorri zan, Eguraldi bikaiña genduen.

Inguru artan Joan Joxe, oraindik gaztea izanagatik, etzan ain ezaguna. Baiña bere sendia oso ezaguna zan, eta sekulako jendetza bildu ere. Illebete gertatu zala. Oraindik berri samarra eta orduko aurrerapenekin nola izan zan gutxi zabaldua. Txetasun geiago jakiteagatik ere asko joango ziran.

Kapitana, gaixo samar, etzan azaldu. Baiña bere emazte ta alaba an ziran.

Elizara sartu baiño len, arteeran berdin, jendeak berriketarako gogoia edukitzen du. Orduan ere, oitu bezela, kontu kontari ari ziran, kanpaia entzun zanean; eta eliza bete-betea geratu zan.

Illetak luze samarrak izaten dira. Ura itzaldi ta guzi izan zan gaiñera. Bikario jaunak jakin zezaken gertatuaren berri. Txeetasun guziekin kontatu zuen nola erori zan eta galdu. Aztarrenen bat azalduko zan itxaropenetan egon zirala. Baiña alperrik.

Jauna artu ondoren, banaka-banaka beren aulkira zetozen; eta denen atzetik non zetorren ikusi zutenak, arrituta geratu ziran:

— Ori izango da-ta Joan Joxe!

Begiraka-begiraka, onela zioten:

— Ametsetan ari gera edo mirariren bat degu au?

Atzeko aulki batean belaunikatu zan, meza bukatu artean. An ikusi zituen bere gurasoak. Lutxi ta bere ama ere bai. Baiña kapitana etzan ageri.

Bukatu zanean, lasterka bera atera zan lenengo, bazter batean gordez. Ango musuketak beldurra ematen zion, eta denak atera arte bazter batean ezkutatua egon zan. Baiña sekulako ixkanbilla sortu zan:

— Non gorde zaigu ori?

— Nor ori?

— Joan Joxe alegia.

— Ori ez da amets bat besterik.

Bereala berexi ziran: sinisten etzutenak eta sinistuak. Ezagutzen etzuten asko ziran an; eta, bein meza bukatu zanean, jendeak aldegin zuen. Baiña ikusi ta ustez ezagutu zutenak, naigabetuak, elkarrengana bildu ziran.

— Baiña denok ikusi degu. Garbi-garbi ezagutu ere bai. Zer egin du arek? Auxe adarra jotzea!

Zer pentsatu ezin asmatu etxerako bidea artu zutenean, bidera atera zitzaien, beti bezin eder ta maitagarria, eta amari lotu zitzaion:

— Egun on, ama.

— Baita iri ere! Ez aiz noski orain galduko?

— Emengo musuketak ez dit onik egiten.

Ondoren, aita, anaiak, koiñatak. Baiña bai Lutxi ere. Etzeukan aztuta.

— Oraingo au egia izango da noski? —zion Lutxiren amak.

— Bai. Ez nintzan il. Gero kontatuko ditugu gure mirariak.

Musuketak bukatu ziranean, ala galdetu zion amak:

— Etxera etorriko aiz noski.

— Ametitzen banauzute, pozik.

— Erorren etxera ez ator, bada?

— Danetarako badago denbora. Borondate ona bear mundu ontan. Neretzat, baiñepein, Jainkoak eman zizkigun gurasoak dira lenengo. Lutxi ta gainarakoak, ez gaizki artu. An ere laster nauzute.

Mutillak ori esan zuenean, Lutxiren amak berriro besarkatu zuen, esanez:

— Bejondeikela, Joan Joxe. Aiek mundura ekarri gaitziken. Laster etorriko aizela bazekiagu. Zuen etxe ori betea zegok; baiña ura utsa.

— Bai; zuek nai dezutenean.

Ordukotz bukatu zan. Baiña oraindik gerora ere luzaroan itzegingo zuten ortaz, eta berri emaleak bazeukaten zertaz itzezin.

## Bazkaritan

**I**XKANBILLAK, zaratak, jakin naiak, denak elizako atarian utzirik, bere guraso ta senideekin batera joan zan baserrira, aspaldi artan ikusi gabeko bere sortetxera.

Ondo asko ta arretaz begiratu, nola zainduak zeuzkaten ikusi nairik, berak ainbeste urtez landutako barruti aiek, ederki landuak zeudela iruditu zitzaizkion. Poztu zan semea. Aitak egingo zuen lana noski. Begietatik malkoak zerizkiola utzi zituen barruti aiek, eta aldegin zuen munduz mundu, pozik geratuko zana, beste batek artu zion aurea ta.

Izketan-izketan baserrira iritxi ziranean, bere koiñatak, etxea zaindu ta bazkaria jartzeko illetara gabe geratu zanak, laster ikusi zuen. Bai ezagutu ere illetak egin zizkiotena bizen artean zetorrela. Dena zegoen bezela utzi ta lasterka etorrira, besarkatu zuen.

— Ongi etorria il da piztutako Joan Joxe, zuregatik bizientzat egindako bazkaria jatera! Auxe uste gabekoa! Oraindik ez beste mundurako eldua egoki. Katua al zaitugu, arek zazpi bizi omen ditu ta? Tristura guziak bota ditzagun, eta poztu gaitezen, il da piztuaren omenez!



Itzaldi motxa, baiña bai goxoa, koiñatak egin zuena.

Patxara ederrean exeri ziran maiera. Joan Joxe gurasoen erdian jarri zan. Aitak bedeinkatu zuen maia, baserri askotan amaren lana ori ere baiña.

Bazkaritan denetik itzegin zuten.

Orduan etzan gaurko oiturarik, jai eta egun berezietan bakarrik artzen baizan akeitatxo. Orduan askoz grazi ohea artzen zitzaion edari oni. Gaur askok, egunean askotan, basoerdi bat artuko balute bezela. Jan-edanez berotu samarrak, eta bein akeitatxo maiaren gaiñera atera zutenean, aitak artu zuen itza:

— Gertakari zoragarri onek merezi dik akeitatxo au. Jai egitea ere bai. Ez baago nekatuegia, kontatu bear diguk nola egin dekan mirari ori.

— Bai orixe. Pozik gaiñera.

— Amaika aldiz kontatu bear ko dek gero ere.

— Gertatuaren erru guziak kapitanak ditu. Uste det ala aitortuko duela —asi zan esaten—. Alare, au bego gure artean.

Bere langilleetako marrokiar kaskar bat bazuen bialia. Zergatik ez dakigu. Berak ematen zizkidan arrazoiak aulak ziran, neretzat beiñepein.

Kaskar ura beti gure atzetik, berak nai zuena egiteko egokiera on baten billa. Sartzen giñan kairik geienetan ikusten nuen nik ori, gurekin lanean ari ziran bere kastako laurekin izketan.

Nik, kaskarrak esanta, banekien nolako asmoak zituen: iñondik al bazuen, kapitana galtzekoa. Naiz onek neri aitortu bere alabaren atzetik zebillelako biali zuela, aitari zion gorroto ikaragarria.

Amaika aldiz esan nion kapitanari bere neurriak artzeko.

— Txoroa aleena! —esaten zidan—. I, esna ere, ametsetan bizi aiz. Marrokiarrak denak berdintsuak dituk: nor nor dan ezagutzen zaillak.

— Jaunari eskerrak, oraindik begi argiak dauzkat, Ambrosio —erantzuten nion.

Azkenean, euskaldunak elkar artu bear genduela pentsatu nuen nik, eta itzegin, denaren berri eman ez. Ala bear ta arrats artan bertan gertatu zan.

Denak etzidaten ontzat artu. Oraindik ume bat nintzala ni an. Ea zergatik igo nai nuen, aspaldian an zeudenen lekua arrapatzera.

Aiek barrura joanta, ni bakarrik geratu nintzan kanpoan. Etzidaten sinistu, baiña erne geratu ziran.

Gaberdi aldera azaldu zan kaskar ori ontziaren ondora, eta langilleetako marrokiar batek lagunduzion igotzen. Baiña barruko langilleak atea itxi ta etzioten utzi sartzen.

Eguna argitu ta kapitanaren eskuetan ez erortzezkeroz, bazekiten oitu bezela ni bakarrik nengoe-la goian, eta armarik gabe egongo nintzala. Baiña ixilka erosi berria nuen. Orrek galdu zituen. Atera ziran gora, eta nik bertatik bertara sutu nuen, eta bat zerraldo illa erori zan. Besteak arma bazekarren, baiña uste gabeko arekin moztua geratu. Nik arma zekarren eskumuturretik eutsi nion. Sutu zuen, baiña Jainkoak jakin non galduko zan bala.

Gure tiroen otsera esnatu zan kapitana, oiuka ta deika. Gu indarka ikusi giñunean, bi tiro sutu zizkigun bertatik bertara; eta nik eutsita neukana zerraldo erori zan illa. Neri ere igurtzi bat egin zidan saietsean; eta, beste bat artu baiño lenago, itxasora bota nuen nere burua.

Geroztik ez det ontzi aren berririk. Nere lagunena ain gutxi. Kapitanarena, bere emazteak esan didalako.

Baiña nik igari banekien, asko ez bada ere. Baita Jainkoak lagundu ere, kaskarrak ekarritako txaluparen ondo-ondoan erori nintzan da. An sartu nintzan eta betiko agurtu nituen nere itxasoko bizi-lagunak. Geroztik ez det ezertxo ere aietzaz jakin izan. Ez nuen beste tirorik entzun.

Itxas bazterrean nengoena, etzitzaidan an gertzea komeni. Inguru aietan nonai zebiltzan gerrille-roak, laster ontzia ustutzero etorriko ziranak. Arraixku txarrekoa zan zauritutako gazte batentzat aien eskuetan erortzea, eta orrek salbatu niñun.

Eten gabeen odola ixurtzen ari zitzaidan saietseko zauritik. Al nuen bezela lotu nuen, eta arraun egiñez banijoan bazter aietatik urrunduz.

Ordurako egun argia nabarmendua zan, eta nere aurrez-aurre zetozen bi gizon txalupa batean. Ni aien igesi eta aiek jarraika. Bat oraindik gaztea, baiña bestea urte batzuetan aurreratua. Neri begira zetozen. Ikusten zuten arraunean neketan ari nintzala, aldizka saietsari eutsiz. Geldi-geldi urbildu zitzaizkidan, eta galdetu zidaten, erderaz jakiña, nik euskeraz kontatuko dizutet baiña:

— Egun on, gazte. Garai ontan zer zabilta zu emen?

— Baita zuei ere. Ementxe, goizgiro eder au ikusten.

— Ez iñondik ere. Zu norbaitengandik igesi zoaz.

— Ori ere egia da noski.

— Eta zauritua.

— Ori ere erdiz erdi. Zauritua nator. Ez daukate begi txarra. Ezkerreko saiets ontan balazo bat eman didate. Al detan bezela igesi nator.

— Nola gertatu zaizu ori?

“Nor ote dira auek: agian poliziak?” nion nerekiko.

— Ez gera zuk pentsatzen dezun oietakoak, eta itzegin lasai.

— Itxas ontzi batean nenbillen lanean eraman-ekarrian, kapitan baten mende; eta, goizean ustutzeko zai gaudela, kanpotik sartu zaizkigu etsaiak, langilleetako batek lagunduta. Berak armatuak zeuden, eta lenengo erasoan aietako bat erori da. Besteari eutsi diot geratzeko asmoan. Orduan bat-batean esnatu da kapitana. Gu orrela ikusi gaituenean, etsaiak inguratua zegoela oroituz noski, tiroka asi zaigu. Nik besotik neukana seko erori da nere oiñetara, eta ni ere arrapatu nau saietsean. Zorionez, azal samarra da noski. Beste bala batek arrapatu baiño len, urera bota det nere burua; eta, Jaunari eskerrak, aren txaluparen ondora. Aren barruan sartu ta iges norabait nijoa.

— Zu etzera emengoa —esan zidaten—. Zure itzegiteko modua ez da amerikarrena.

— Ez. Euskalduna naiz. Errenderiko semea. Ez dakit egundo entzun zenduten izen ori.

— Bai. Antz eman dizugu —euskeraz erantzun zidaten—. Ni, bietan zaarrena, oiartzuarra naiz. Au azkoitiarra. Mixiolariak gera biok, apaizak. Ni sendagillea, gaiñera. Atoz gurekin.

Eta berekin artu niñuten.

— Ez uan nolanaiko suertea izan —esan zion aitak.

— Bai. Bestela ez dakit ez ote nintzan an geratuko.

Biotz-biotzez artu niñuten, eta gorputz ta anima sendatu ere bai. Nere zauria sendatu arte, lan txiki bat egiten lagundu nien. Aitaren izenean bi eskutitz egin ere bai. Ura bukatutakoan, azkoitiarrarekin batera etorri naiz. Emen gazte bat topatu det, eta noren illetak zituzten galdetu. Arek, gertatutako guzia garbi-garbi esan dit. Arritu naiz, nere eskutitzak non ta nola galdu diran pentsatuz.

— Gu ere arritu gaituk, orrenbeste denboran abisorik biali gabe etorri aizenean.

— Izan ere, aberri aietan ez dago gauza onik. Erri-guda itxua dabil. Gaurko egunean, gizonaren biziak ez du zentimorik balio. Mixiolariengatik edozer esango dute. Baiña ikaragarria da, beldurgarria, aiek an daramaten bizimodua, zentimorik ez irabazteko. Aiek dabiltzan bezela, ez dute nolanaiko sinismena. Aiek bezela elkar maite bagendu, beste kuku batek kantatuko liguke. Aiek denei laguntzen diote. Ez dute berexketarik egiten. Illebete ontan ikasi det ederki auek daramaten bizitza.

Entzuten zeuden guziak arriturik geratu ziran. Aitak ala galdetu zion:

— Ibili aizen bezela ibilita, munduko berri ere ikasiko uan?

— Munduko berri ezer gutxi ikasi det. Gizonena bai ederki.

Orrela jardun zuten illunabarrera arte; eta ondoren, etxeko barrutiak aztertu eta etxetik ertee-ran, amak kontseju au eman zion:

— Joan Joxe, leku onera oala uste dit; fameli orrek asko maite auela, batez ere neskatxa orrek. Illebete ontan, gutxieneko sei bat aldiz ire berririk badegun galdetu zidak orrek neri. Etxea ere dotorea dek. Barruti ederrak dizkik bereak. Ez badek beie-ñepein beste asmoren bat, utzi adi maitatzen. Nekez arkitu ezake txori ta kabi oberik.

Etxekoak agurtu ta ara joan zan, bada, ta bertan geratzeko asmoan.

Gaztea noiz etorriko zai zeuden, ongi etorri eder bat egiteko asmoan; eta, beti bezela, gure mutilla goxo-goxo artu zuten. Egoarte guzia aiekin igarota, ta ama-alaben erdian bazkaldu zuen.

Aldegingo zuen beldurrak zeuden; eta kapitana-k, al zuen ondoena, ala esan zion:

— Ikusten nauk nola nagoen ni. Aurki baniak mundutik. Auek biak bakarrak geldituko dituk, eta

esku onetan utzi nai nizkikek. Mesedez, Joan Joxe, nere zakarkeriak barkatu ta gera adi bertan.

— Nere amak ere aolku orixe eman dit: “Lutxik asko maite aula bazekit. Illebete ontan gutxienez sei bat aldiz galdetu zidak ire berririk badegun. Ez badek beiñepein beste asmoren bat, utzi adi maitatzen”. Artu nai banauzute beiñepein, zuen esku nago.

Etzuen bi aldiz esan bearrik izan. Bi emakumeak, oi zuten bezela, atsegiñez etxean artu zuten. Bai kapitanak ere, zoriontsu eskua emanez:

— Mutil ondradu asko ikusi dizkit, baiña i aiña-korik ez. Orain seme berri bat badegu etxean. Au, goitik asi ta beraiño, zuentzat geratuko dek.

— Alegiñak egingo ditut, bada, nik, al detan ondoena zaintzen.

Etxeko barrutiak utzi samarrak zeuden. Ezkondu aurretik, denak garbitu ta martxan jarri zituzten.

Baiña igande ta jaiak etzizkion iñork kenduko. Inguruko mendi aiek aztertuz, bere gurasoen etxera joango ziran neska-mutillak.

Egun batean, noiz ezkonduko eguna aukeratu zutenean, amak irripar egin zuen.

— Irripar zerk egin erazten dizu?

— Ez al aiz oroitzen zor txiki bat badidakela?

— Nik amari zor? Jakiña, zuk neregatik egindakoa ez dizut egundo ere orainduko.

— Ez. Beste zor txiki bat badek.

— Ez badidazu esaten...

— Ez uala ezkontzeko asmorik esan ez idan?

— Bai. Egia da ori.

— Ogei ta amar urte baiño len ezkondu baietz nik, eta ik ezetz, zer jokatu genin?

— Oraintxe oroitzen naiz. Arrazoi dezu. Soiñeko ori egingo zaizu, bada.

— Utziok pakean. Munduko gora-beerak guk uste gabeko aldaketa asko dizkik. Ik bide batetik joan nai badek, Jainkoak bestetik eramango au.

Lutzik atsegiñez par egin zuen.

— Ez, ama, ez. Zor ori ordainduko zaizu.

Ezkontzerakoan, bada, soiñeko eder ura jantzita joan zan ama.

# Arkibidea

Semearen salaketa .....	7
Aparia .....	15
Lizar xaarra .....	21
Esna ametsetan .....	28
Amaren kezkak .....	32
Agurra .....	39
Kapitanaren etxean .....	44
Marrokiarra .....	53
Ama-alabak .....	57
Mundurik mundu .....	62
Gudatea .....	76
Etsai artean .....	83
Eguberriak .....	88
Joan Joxe .....	91
Baitua .....	96
Kapitanaren aitormenak .....	100
Madagaskar aldera .....	106
Kontrabandoa .....	112
Kezkak .....	116
Salaketa .....	119
Ekaitza .....	124
Marrokiarraren zemaiak .....	136



Beldurrak baabil, oa emendik .....	143
Erasoa .....	149
Marrokiarrak .....	156
Kapitana .....	160
Igesa .....	167
Illetak .....	171
Bazkaritan .....	176



1051075  
G-128/91



## Salvador Zapirain **“Ataño”**

Gure baserrietan etxerako gelditzen dan bakarra maiorazkoa izanik, andik erten bearra izan oi dute gainontzeko senideak beren ogibidea billatzera.

Orrialde auetako Joan Joxek itxasora jutzen du. Ala, baserritar giro batean asten dan liburua, abentura-nobela biurtzen da. Gure mutil askoren bizitzak ez al du aldakuntza ori bera ezagutu?

Ori dana, Atañoaren euskera gozo, aberats eta eredugarriz jantzia. Gure artean idazle gutxi izango da, erriak egin oi duen izkuntzatik berak paperera ixurtzen duenera alako tarte txikia uzten duenik. Orrek ez dio dotorezirik batere kentzen; bai, ordea, jatortasunez betetzen.

ISBN 84-89080-34-8



9 788489 080348